

EGĀN



1-6

1974

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

INFORMAZIOA NEURRITZEN:	
Karlos Santamaria Ansa	3
AITA PLAZIDO MUJIKAREN	
OMENEZ: Manuel Lekuona ...	12
EUSKERAREN EGOERA NAFA- RROAN LEHEN ETA ORAIN:	
A. Irigaray	27
EUSKAL OPERA. Isidoro Fagoa- ga (traducción): Yon Etxal- de	33
HAURREN ETA GAZTETXOEN PSYKOLOGIAZ: Mattin Etxe- berrik	55
JAN EDANAK: Antonio Arrue ...	68
FANTASIA BAT: Amaia Lasa ...	72
ZENBAIT IPUIN: M. ^a J. Lasa	76
IPUINAK: Etxeberria P., S. J.	86
OLERKIAK: Pedro Martín Za- baleta	103
ADABAKIAK: M.-B. A. G.	112
GORA ARRATIA: E. Erkiaga ...	115
LIBURUAK: J. San Martín	122
BIBLIOGRAFIA: J. San Martín	124

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excm. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.

CONSEJO DE REDACCION: Angel Irigaray, Antonio Arrue y Luis Michelena.

DEPÓSITO LEGAL: SS. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, - P.º Colón, 4, S. S. - Diciembre 1974

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXIV

Enero-Diciembre, 1974

INFORMAZIOA NEURRITZEN

Karlos Santamaría Ansa

«Informazio» hitzak «mass media» direlakoak bururatzen dizkigu, alegia, egunkariak, aldizkariak, telebista, erratia, etabar. Hau ez da, ordea, artikulu honetan «*informazio*» hitzari ematen diogun esanahia.

Informazioa deitzen duguna, ez da bakarrik giza-munduan agertzen, fisikako munduan non nahi ere aurkitzen dugu. Non nahi ere, Natura guztian, ibiltzen dira, batetik bestera, *informazio eramale* diren ezin kontako eta izkutuzko *gastiguak*.

Gaurko Zibernetikak frogatzen duanez, Naturaren mugimendu eta harreman guztiak, holako mandatuen bitartez egizatzen dira.

Alde honetik, eguneko zientzian, garrantzirik handienetako konzeptu bat da informazioa, Unibersoaren sail guztietan sartzen dalako.

Gaztigu batek eramandako informazioa hamaika motakoa izan daiteke. Batzutan *agindu* bat izaten da, izan batek beste bati bialdutakoa (1) Bigarren honek, agindua hartzen duanean, bera betezen

(1) Nahasietatik itzuritzeko, *mandatu* eta *manu* alde batera utzita, *gastigu* eta *agindu* hitzak erabiliko ditugu gehienetan: “*gastigu*” (“mensaje, message”); “*agindu*” (“orden, ordre”).

abiatzen da, hortarako programaturik bait dago. Beste batzutan, galdera bat izan hoi da, erantzun bat eskatzen duena, edo *ohar* bat, hartzaileak kontuan izan behar duena, bere jokaera bera zuzentzeko. *Berri* bat izan daiteke ere, baten batek beste edonorri «hemen, hau gertatzen den» jakin arazi diona. *Deiezko* eta deadarrezko gaztiguak ba daude ere, zenbaitek espaziora zabaltzen dituanak laguntza eskatzeko, SOS bezalatsuak. Zenbait hori ez da beti pertsona bat, bizi gabeko bat izan daiteke ere (izar bat edo molekula bat, esate baterako) complementoko elementu bat eskatzen duena.

Ikusten dugunez, informazioa konzeptu guztiz orokarra da.

Gainera, *gaztigu* eta *informazio* konzeptuak guztiz loturik daude. Baina gaztigu batean dagoen informazioa neurri ahal daitekean zerbait da. Informazio *kantitate* bat da, magnitude neurrigarri bat, alegia.

Hartley injinadorearen hastapenen ondoan, Claude Edwook Shannon izan da informazioaren neurri eta kalkuloaren egiazko sortzailea. 1948 urtean, Zientzia Historiaran igaroko diren bi artikulu argitaratu zuen, gai honi buruz. Biak Iparramerikako «Bell Systema Journal» aldizkarian agertu ziren, eta, hoietan, zientzia berri baten oinarriak jarri zituen Shannon jakintsuak.

Matematikalari fina zen —eta da, oraindik bizi bait da—. Nahiz eta konzeptu simple eta elementalak erabili, Matematika zienziari bide berri bat iriki dio.

Shannon jakintsuak asmatutako matematika berria «informazioaren teoria» deitzen zaio. Haren helbururik nagusia *informazio kantitatea* mugatu eta neurritzea da, eta kalkulatzeko honetik hamai-ka ondore garrantzizkoak sortzea dira, teknika eta zienziaren sailean.

INFORMAZIOAREN NEURRIA

«Baina nola izan daiteke informazioa neurritzea?» —galdetuko du bat edo batek.

Informazio baten garrantzia eta saria, gauza guztiz subjektiboa da. Alde honetik informazio neurritzerik ez dago. Askotan gertatzen da, balio handienetako informazio batek, informazio teoriaren aldetik oso gutxi baliotzea.

«Zer izan da, mutiko ala neskato?» —galdetzen dio emaginari erditu berri dan emakumeak.

«Analisaren emaitza, zer izan da, baiezkoa ala ezetzkoa?» galdetzen dio midikuari mingaizto batez mehatxaturik dagoen gaisoak.

«Zigorra, zein izanen da, herioa ala presondegia?» —prozesa-
tuak abokatari.

«Nixon lendakariak bere kargua utziko du, ala ez, 1974.urtean?». Hau jakitea kauka-mauka ederra izanen litzateke bat noski ba-
tateat.

Holako galderak, galderatzailentzat ezin esanezko balioa izan
arren, Informazio teoriaren aldetik baliorik txikiena dute, «*bit*» uni-
tatea dalakoa, alegia.

Aipatutako kasu guztietan, *erantzun bakar bat* eskatzen du gal-
derak: *Bai* ala *ez*. Berehala ikusiko dugunez, holako kasuetan behar
den informazioaren neurria «*bit*» bat da, besterik ez. Hori baino
txikiagoa ez dago praktikan.

Beraz, Informazioaren Teoriak, informazioaren mamia alde ba-
tera uzten du, eta kantitatea besterik ez du begiraten. Zenbat «*bai*
ala *ez*» behar da galdera honi erantzuteko? Zenbat baialaezko en-
tsaio edo proba egin behar da, halako fenomenoa garbitzeko? Zenbat
sinbolo erabili behar da gertaera hau adiarazteko? Mintzaera jakin
batean, zenbat da edozein letra batek eskuratutako informazioa?
Nola jokatu behar da, informazio bat ematekotan, energiearen gas-
torik txikiena egiteko? Etabar...

Hona hemen Teoria honen helburuen exenplo simple batzuk.
Zientzia honen aplikazio-alorra nolako zabala denez, irakurlea errez
konturatuko da, duda gabe.

Baina mintza gaitezen, lehenengoa, informazioko *entropia* de-
lakoaz.

ZALANTZAZKO EGOERA BATEN ENTROPIA

Eman dezagun zalantzazko egoera batean gaudela. Adibidez, bi
bide dugula aurrean. Gure mugarat heltzeko nondik jo ez dakigu,
ordea. Seguro gaude, bidea, bata ala bestea izan behar dela, baina
ez dakigu zein den. Bestaldetik, aukera egiteko, arrazoin berdinek
ditugu, bi aldetatik, guretzat bi bideek probabilidade berdina du-
telako.

Kasu honetan probabilidadeen banaketa ($\frac{1}{2}$; $\frac{1}{2}$) dela esango
dugu.

Zalantzazko egoera honetik ateratzeko, igarotzen den lehenen-
goari galdetzen diogu. «Mezedez, jauna, halako herrira nondik joan
da?»

Baina galdera hau, Informazio Teoriaren aldetik, ez da ondo

egina. Beste gisaz egin behar dugu. Adibidez: «Halako herrira joateko, ezkerretikako bidea izango al da, ote?» Besteak «bai» ala «ez» erantzungo digu, eta kito.

Baialaezko erantzun batekin garbiturik dugu, beraz, kasu honetan, zalantzazko egoera.

Egoera honen entropia, *bat* dala esango dugu. Baina zer motako *bat*? Hemen, neurritze guztian bezala, unitate bat behar da. Esan dugunez, *bit* delakoa da, unitate hori. Aipatutako egoeraren entropia, «bit» bat dela esan dezakegu. (BINIT edo BIT, «binary digit» ingeles esanbidetik dator.)

Entropia, zalantzazko egoera baten *zalantzaren neurria* da, eta zalantza zurrizko *behar diren erantzun zenbakiaren arauaz neurritzen da*.

Hau pixka bat hobe erakusteko, ipuitxo bat kontatuko dizuegu.

ERREGINA ETA ZORTZI DAMATXOAK

Erregina batek zortzi damatxo omen zituen, eta hauen artean here lehenengo dama aukeratzea erabaki zuen. Haietako bat autatu zuen, beraz, baina honen izena «in petto» gorde zuen, Aita Santuak, kardenalak izendatzean, egiten omen duen bezala.

Damatxoek gogokoaren izena jakin nahi zuten, jakina, eta galdezka hasi zintzaizkion.

Erreginak, galdera batzuk egin zitratela esan zien, eta berak erantzungo ziela, bi baldintzakin, ordea, alegia, «bai» ala «ez» baikirik erantzungo ziela, eta galderaen zenbakia ahalik eta txikiena izan behar zela. Behar ziren galderak baino gehiago egiten baldin ba zuten, tutik ere ez zuela esango jakin arazi zien.

Damatxoak, orduan, nola jokatu asmatzen asi ziren.

Alfabetako ordenez Ainize, Dido, Eder, Erlea, Gabon, Krysis, Psykis eta Safo ziren, damatxoen izenak.

Erlea izena zuenak, nahiko sinplea zena, galderak bana banaka egitea proposatu zuen. Hau da: «Majestadea, Ainize izanen da, ote, zure gogokoa?»... «Majestadea, Dido izanen ote da, zure gogokoa?» etabar, ziena agerrarazi arte.

Ainizek proposatutako jokabidea ez zen oso ona. Zori ona baldin ba zen, bai, izena berehala agertuko zen. Baina damatxo berezia azkenetako bat izanez gero, Psykis adibidez, galdera asko beharko zen, eta galdera gehiegi izanaz, erregina galdeketaen erdian ixilik geldituko zen.

Orduan, Krysys zelakoa, oso argia zena, beste proposamendu bat egin zuen, benetan ona.

Lehenengo galdera, honoko hau izango litzateke: «Majestadea, zure autatua, lehenengo lauen artean izango al da, ote?» (Lehenengo laiak, alfabetako ordenez, Ainize, Dido, Eder eta Erlea ziren, dakigunez).

Bai ala ez erantzungo zuen erreginak. Eman dezagun «ezetz» izan zala haren jardespena.

Orduan, bigarren galdera honoko hau izanen litzateke: «Majestadea, Gabon eta Krysiss-en artean izanen da, ote, "in petto" daukazuna?» Bai ala ez ihardetsiko zuen erreginak. Onar dezagun *bai* izan zela jardespena.

Azkeneko galdera honoko hau izango litzateke, erreza da hau jakitea: «Gabon da, ote, zure gogokoa?»

Erreginak, nahiz «bai», nahiz «ez», erantzun, galdeketa bukatu-rik zegoen, esan beharrik ez, hirugarren galdera honekin. Hiru baialaezko galdera nahikoa zen egia jakiteko.

Aipatutako egoeraren *entropia* hiru «bit» dela esan dezakegu, beraz.

Gauza garrantzi handiko bat gertatzen da hemen. Frogatzen ahal denez, kasu honetan egia zuritzea, *hiru galdera baino gutxiagoren bidez ezin daiteke*.

Egoera jakin batean, *galdera zenbakirik txikiena, entropiak erakusten digu hain zuzen ere*.

KALKULUTXO BATZUK, ENTROPIARI BURUZ

Ikusi dugunez, hiru zatiketa egiten dira «Krysiss-en metodoaz».

Lehenengoa, bi erdietan, bakoitza lau damatxoko.

Bigarrena, bi laurdenetan, bakoitza bi damatxoko.

Hirugarrena, eta azkena, bi sortzirenetan, bakoitza damatxo bakarrekoa.

$$\text{Beraz } 8/2 = 4 \quad 4/2 = 2 \quad 2/2 = 1.$$

Eta horretik $8 = 2 \times 2 \times 2$ egiztatzen da, $8 = 2^3$ alegia.

Zortzi aterabide ditu egoera honek, eta entropia 3 da. Erlazioa da, beraz,

$$2^{\text{entropia}} = \text{aterabide zenbakia.}$$

Edozein kasoan, entropia ematen duan erlazioa honoko hau da

$$2^x = n$$

(x entropia, n aterabide zenbakia)

Hemendik erreza da beste honoko formula hau ateratzea

$$x = \frac{\log n}{\log 2} \text{ «bit»}$$

Adibidez, egoera batek hamar atera baldin badu, haren entropia $\frac{\log 10}{\log 2} = 3$ bit gutxi gora bera da.

Beraz, egoera jakin batean, *aterabide guztiek probabilidade berdina baldin ba dute* (baldintza hau nahi ta nahiezkoa da hontaz) entropia, eman berri dugun formulaz kalkulatzen da.

Aterabide guztiek probabilidade berdina baldin ez ba dute, entropiaren kalkuloa pixka bat zailagoa da.

Hau da, hain zuzen ere, Hartley eta Shannon-en teorien arteko desberdintasuna. Esan dugunez, Hartley izan zen zalantzaren neurria aztertzen hasi zen lehenengoa.

Baina Hartley, edozein egoeraz, aterabide guztiei probabilidade berdina ezartzen zien beti. Shannon, berriz, aterabide bakoitzaren probabilidade desberdina kontuan izaten hasi zen. Probabilidade banaketa ($p_1, p_2 \dots$) baldin ba da, entropia neurritzeko honoko formula hau asmatu eta frogatu zuen Shannon jaunak:

$$\frac{p_1 \log 1/p_1 + p_2 \log 1/p_2 + \dots}{\log 2}$$

(besteak beste). Baina ez gera hemen sartuko holako kalkuluetan, irakurle matematikalariak beste tokian aurki ditzakelako.

INFORMAZIOAREN KANTITATEA. KRIPTOGRAFIAREKIKO EXEMPLO BAT

Hau ere, exemplo guttiz errezaren bitartez adiaraziko dugu.

Kriptolari bat gaztigu bat deskorapilatzen saiatzen da.

Gaztigu hortan, hitz bat agertzen da, kontestoaren guttiz berezia. Aginduzko hitz zifratu bat da, edo, garrantzi handia duana.

Zoritxarrez lehengo letra galdu da. Besteak, bai, heldu dira kriptolarien eskuetara.

Beste letra hauek a , r eta a dira. Hitz beraz, honela idazten da

A R A

eta toki utsan zenbait letra ezarri behar da.

Hitz, zer hizkuntzazkoa da? Occitanoa, portugesa, grekotarra, alemana, esperantoa...? Ez da jakiten. Gauza bat ba daki kriptolariak, alegia, falta den letra, latin alfabetako hogeitazortzi letraen artean aukeratua dela (eman dezagun 28 letra direla).

Lehen esan dugun arauaz, egoera honen entropia, $4'8$ bit da, hau da, $\log 28/\log 2$.

Baina, zenbaitek *informazio* baliotsu bat ematen dio kriptolariari, azterketan zegoelarik.

Informazio honek, misteriozko hitza *euskal hitz bat dela dio*.

Agiri da, informazio hau hartzean, *zalantza gutxitu dela*. Zalantza edo entropia, guretzat gauza bera delako.

Lehenengo entropia, ondoko entropia baino handiagoa zen, duda gabe.

Azter dezagun, beraz, entropiaren balore berria, hau da, hartutako informazioaren ondoan zenbat balio du egoeraren entropiak.

Oker ez ba gaude, euskeraz, lau letrako *ara* bukaera duten hitzak, honoko hauek dira: *bara, gara, hara, jara, kara, mara. para, zara, xara*.

Bederatzi aterabide daude, eta hauen artean egin behar du kriptolariak bere aukera.

Egoera berriaren entropia, edo ondoko entropia, $\log 9/\log 2$ izan da, alegia, 3^2 bit.

Ikusten dugunez entropia gutxitu da, informazioari esker.

Gutxitze hau $4^8 - 3,2 = 1^6$ bit da.

Eta *hori da*, hain zuzen ere, kriptolariak hartutako *informazioaren balioa*.

Egoera jakin batean, gaztigu batek emandako informazioaren balioa, *lehenengo entropia eta ondoko entropiaren arteko liferentzia da*.

KINIELETAN

Igandero, espainol gehienak kiniela egitea du bere eginkizun nagusia.

Kiniela osoak 3^{14} aterabide desberdinak ditu. Kiniela jokalarieren zalantzak 22 bit du, entropiatzat (gutxi gora bera): $\frac{\log 3^{14}}{\log 2}$

Eman dezagun orain, partidu batean ondorea ematen zaigula. Zenbat da informazio honen balioa?

Partidu batek, 3 aterabide ditu. Beraz, partidu baten ondorea jakiteak $\log 3/\log 2$, alegia, 1^6 bit informazio ematen digu. Partidu baten informazioa, 1^6 bit inguru da.

Informazio hori hartu ondoan entropia $22 - 1^6 = 20^4$ bit izango da.

Bi informazio izanez gero, 18^8 bit izango zen ondoko entropia. Etabar.

Jakiña, 14 informazio hartzen ba ditugu, ondoko entropia ZERO izanen da, kiniela guztia ezagutzen dugulako.

XUHURRA ETA DIRU FALTSUA

Xuhur batek mila urrezko diru gordeturik zituen, eltze handi baten ondoan. Diruak onak ziran eta ederrak. Haien dirdirek, zi-koitzaren atsegin eta zorientasuna egiten zuten.

Baina itzalaren batek goibelarazten zuen gizonaren bizia.

Diruetako bat, faltsua zen, besteak baino pisu txikiagoa. Gainera, liferentzia oso txikia zen eta diru faltsua eskuz kausitzea ezina zen.

Hori zela eta, egunen batean, bera xuhur bezain lagun bati, balantzatxo bat eskatu zion.

Besteak, prestatu ez, alogeratuko ziola esan zion ordea. Alogera zenbat izango zen, galdetu zion, orduan, gure gizonak.

«Haztatze edo hazta bakoitza gaitik txanpon bat eman behar didazu —erantzun zion lagunak—. Bestaldetik, pisuak edo pisu neurriak ez dauzkat eta, nola konpondu, zuronek ikusiko duzu.»

Gure zikoitza haztakinakin nola jokatu pentsatzen hasi zan, ahalik eta haztatzerik gutxiena egiteko.

Egoerak mila aterabide zituen. Beraz haren entropia 10 bit zan, zenbaki borobilatuez ($\text{Log}1.000/\text{Log}3$).

Bestaldetik hazta bakoitzak hiru aterabide izanik, dagokion informazioa $1'6$ bit da.

Argia da $10/1'6$ hazta egin behar zala, gutxienez informazio osoa lortzeko. Sei hazta ez zan nahikoa. Zazpiak egin behar ziren, gutxienez, eta zazpi txanpon ordaindu.

Hona hemen xuhurrak nola jokatu zuen.

333 diru jarri zituen haztakinaren platera batean, eta beste 333, bestean. Haztakina plomuan gelditzen baldin ba zan, gainerako 334 diruen artean aurkitzen zen, duda gabe, diru faltsua. Platera bat gora egiten baldin ba zen, ordea, diru faltsua platera hortan bertan aurkitzen zen.

Ematen baldin ba dugu bi platerak pisu berdina zeukatela, zalantza oraindik 334 diruen artean dago (Beste kasuan 333, izanen litzateke besterik ez, eta arazoa errezagoa izan).

Zer egin orduan? 111 diru platera batean jarri eta beste 111, bestean. Lehen bezala, kasorik txarrenez, 112 kasoen artean gelditzen zan zalantza. Etabar.

Ez gara jarraituko. Irakurleak erreza du kalkulo hau bukatzea. Eta, kasurik txarrenean ere, zazpi hazta egin eta, diru faltsua agertzen dela ikusiko du.

BUKAERA

Exemplo simple ta errez batzuk erakutsi ditugu, besterik ez. Ume-keria ba dirudi ere, teoria hau oso ederra da, eta garrantzi handikoa. Aldizkari honetan zerbait gehiago esatea ez da posible, ordea.

Irakasleek hortaz pixka bat ikasiko balute, ikastoletan oso ari-keta politikak egin litezke.

Aita Plazido Mujika'ren Omenez

(1974 - San Pedro aurreko astean)

Aita Plazido Mujika'ren Omenezko Aste Beterako, itzalditxo bat, Lasarte'ren Historiaz eskatu didate lasartear adiskide batzuek. Eta nik baietz erantzun. Eta pozik. Oso pozik, bi aldetatik, Lenengo Lasarte'ri nik ez bait dakit ezer ukatzen. Leen ere, gaur bezela, iru-lau eretitan, beste ainbeste itzaldi egiña naiz ni Lasarte'n. Eta, bestalde, Aita Plazido'ren Omenerako eskatzen bait zait.

Aita Plazido, euskaltzale bezela, gizonik aundienetako bat degu. Zor zaio aitormen ori, batzuren batzuek —ez dakigu zergatik— ukatu nai izan badiote ere. Azkue aundiaren urren, gure lexikograforik aundienetakoa degu gure Aita Plazido, Jesus'en Lagundiko Aita zintzo eta lasartear jator-jatorra.

Azkue'k, euskeratik erderetarako Iztegi arrigarri bat berak bakarrik egin zigun bezela, gure oriatarrak, erderatik euskerara beste ainbeste ta geiagoko bat egin digu orain urte batzuek, berak bakar-bakarrik, dozena bat urtean, ordu libretan lan egiñez —bere lagunak afaltzen ari ziran artean, berak lan-ta-lan jardunez.

Olakoxe langille aspergaitza —asper-eziña— azaldu zaigu gure erritarra; gaur, argitaldutako Iztegi lodi-lodia dana agortuta, argitaldi berri bat prestatzen berriz ere lan-ta-lan ari zaiguna... (1).

Olako gizon baten omenaldian parterik artu gabe ezin egon iñor, eta, iñor baño gutxiago, Lasarte'ko Erriarekin nik añako zer-ikusi izan duanik.

Aitormen au egiñik, bada, asi gaitezen gure lanean.

Lasarte'ren Historia apur bat aztertzeke eskatu didazute.

Guazen arira.

(1) Itzaldi au argitaltzean, saldu da Iztegiaren bigarren argitaldia.

GEOLOGIA

Asi gaitezen Geologiatik. Lasarte'ko lurraren beraren izaeratik.

Lasarte'ren Geologia, Lasarte'ko etxe zaarren paretetatik, ormaetatik, igerri diteke ederkitxo. Lasarte'ko etxe zaarren ormak, arri biribillez egiñak azaltzen zaizkigu.

Arri biribil oiek, Oriá Ibaítik ateratako arriak dira. Bañan Lasarte osoaren lurra lur-azpia, olakoxe arri biribillez osatua dago. Eta ola osatutako Geologia, «Kuaternarioko Geologia» dala esaten degu. Kuaternariokoa, lurraren laugarren Arokoa, alegia.

Dakizuten bezela, lurraren lenengo Aroan, mundua, gaur eguzkia bezela, suzko gai gori-goria zan, gal-gal-gal irakiten ari zan miazgoria; eta, itzali zanean, arri astun, trinko-trinko, olaetako zepa bezelatsuko gai astun gelditu zan; fosillik gabeko arri astun: kaiku-arri eta granito.

Bigarren ta irugarren Aroan, lurra loi ta buztin-lur zan, gero arri biurtu zana —milloika urte askoren buruan arri biurtu zana; eta fosildun azaltzen zaigu.

Laugarren Aroan lurrean ugelde ikaragarriak gertatu ziran, eta mendi-artectan, nunnai, ibai azkar eta potzu izugarriak sortu ziran, ondoa dana ibai-arri biribillez zuana.

Laugarren Aro artan Lasarte, Oriá'tik asita, Orió'raño, potzu lago aundi bat zan, potzu sakon, ura Teresategi'ko aldapan gora zuana. Eta potzu iraun zuan, millaka urtetan, arik-eta milla urte aien ondoren, Orió'n potzuko urari itxasorako bidea galerazten zion Igeldo-mendia lurrikararen batek-edo pitzatu eta ura itxasoraustu zan arte eta Lasarte orain dagon bezela gelditu.

Bitarte ortan, urpean zilipurdika zebiltzan arriak, zearo biribil-durik gelditu ziran, eta aiek dira, Lasarte'ko Kuaternarioa egiten duten ibai-arri biribillak; olako arriz, esan degun bezela, egiñak bait dituzute lasartearrok zuen etxerik zaarrenak; karezko zarpeoz estalirik badaude ere, bañan nunean-nunean agirian ere ikusten bait ditugu, Aliri deritzan etxe ortan, adibidez, edo Konbentuko aurrealdean. Eta Geologiaz naikoa degu-ta, jarrai dezagun Historiara.

ASIERAK

Lasarte'ren Historiak, «historia» ez baño «soziografia» areago bear du izan, batez ere bere asierari buruz begiratuta. Historiak dokumentua eskatzen du. Eta gure Lasarte'ren asieran pentsa dezakezute dokumenturik izango ez dana. Dokumentua gure errietan ez da oso berandu arte agertzen, oso urrutitik ikutu bat edo beste egiten

digun bat-edo-beste izan ezik. Bañan Etnologiak ederkitxo betetzen bait digu, asieratik -prehistoriatik -berandu ori arteko utsune luze ori.—Etnologiak, gaur dan eguneko jakinduri eder ta zabal orrek: gizadia mundu guztian nola bizi izan dan ederkitxo explikatzen duan jakinduri bikain orrek... Orla osotzen bait zaigu ederkitxo, «Historia» baño areago «Soziografia» deritzaken edesti-histori ori.

Orra bada: Etnologiak dionez, gizona lurraren gañean, lenengo-lenengo eiztari izan zan, eiztari soil-soil; gero artzai, gero nekazari, eta bion bitartean, olagizon, artesano, eta baita merkatari ere. Jakiña, «asieran eiztari» izan zala diogunean, arrantzale izan zala ere esan nai degu.

Eiztari ta arrantzale izate ori, Lasarte-inguruan, Prehistori-prehistorian izan zan. Historiaren sarreran, ordea, lasartearra artzai zan; artzai eta gero nekazari.

Gero ta gero ere, ordea, gizonak etzion uzten, leen izandakoari. Nekazari-garaiian ere etzuan aztu eiza ta arrantzua. Beraz, zuzen esan dezakegu, Historiaren asiera artan lasartearra, artzaiez gañera, arrantzale ere ba zala. Arrantzale, ots, itxas-gizon, mariñel.

Asiera-asieran, legorretik egingo zuan arrantza, ibai-bazterretik; Bañan azkar asiko bait zan ibai-barruan eta itxasoan ere bere lan ortan; itxasoan, ots, Orio-inguruan. Eta ontan naasten zaigu, leen aipatu degun beste zeregin ura ere: artesia, gure kasuan txalupagintza ta mariñeltza.

Artzai, Lasarte'n, mendi-aldekoak izango ziran: Goen-kaletik Urnieta eta Ernani-aldeko etxeetakoak: Larrekoetxe, Elgezabal, Larezabal...

Arrantzale ta mariñel izateko, barriz, Oria-ibaiaren erriberak izango ziran aukerako leku. Erribera oietan, bear bada, nekazaritza baño leenago azalduko bait zan arrantza, arrantzalea eta itxas-gizona, mariñela —bere eskuz egindako ontzietan arrantzan egingo zuan gizona, alegia.

ARRANTZALE TA TXALOPAGILLE

Orrenbestez —Etnologiak erakusten digunez— ba dakigu nola-koak ziran Lasarte ontako lenengo gizonak: mendi-aldean, artzaiak —Galarreta'tik Buruntza-gañera arteko larretan, artzaiak—; Oriarriberaetan, ordea —gaurko Lasarte jatorrean, alegia— arrantza-leak, legorretik ezik ibai-barruan ere txalupetan arrantza-egingo zutenak, eta ortarako baita txalupagille artesano ere izango ziranak, zala arbol-gerriak oso-osoan barruak-usturik txalopatxoak egiten

zekitenak, zala gaurko «alak» bezelako edo Nafarroa'ko «almadiak» bezelako baltsa zabalak egiten zekitenak...

Orra or, asierako Lasarte'n eiztari-arrantzaleak alde batetik, eta artzai ta txalopagilleak bestetik... Guzti ori —arrantza batez ere— parajeak berak eskatzen bait du. Izan ere, Lasarte berez, ezer bada-ta, mendia ta larrea baño, erribera areago bait da.

BIDEAK ETA GALTZADAK

Etnologiaren eskutik daramagun bide ontan, eman dezagun beste pausu bat aurrera. Au ere, parajeak berak eskatzen diguna, eta Etnologiaren eskutik emango deguna. Bideai eta galtzadai dagokiena.

Munduan, prehistoria-prehistoriatik dira bideak.

Bide-ingenierook —lenengo bide-eballeak— abereak izango zira-la ezik; baño, abereak beren bide-senaz ebakitako bideak, gizonak azkar asko beretzakotu eta obetu bait zituan. Bideak galtzada biur-tu, alegia...

Lasarte'n ere, aspaldi-aspaldidanik, prehistoriatik ba ziran bi-deak. Eta ez nolanaikoak.

Lasarte, parajez, bidagurutze batean dago. Oyartzun'dik Ernani'n barrera datorren bideak, eta Nafarroa'tik Urnietan barrera datorrenak Lasarte'n alkar jotzen zuten, emen bat-egiñik, aurrera jarraitze-ko. Jarraitu, gañera, edo-ta «alaetan» edo-ta zubiren batean ibaia igaroaz. Lasarte'n zubirik etzala, ezik, Sorabilla'kotik Zubieta'kora arte. Beraz, onera, naiz Ernani'tik, naiz Urnieta'tik irixten ziranak, bitan-bat, edo Zubieta'ko zubira jo bear zuten, edo, bestela, Lasarte'n «alaetan» igaro Artuxa-Hipodromo-aldera, andik Saldatxur'en gora, Belkoain-barrera, Zarate'ko Bentan eta Andazarrate'n zear, Gipuzkoan aurrera jarraitzeko...

Garrantzi aundiko bidea bait zan bide ori. Gipuzkoa'ren «bizka-rrezurrik-bizkarrezur», San Adrian'en zear Araba'ran zijoan bidea, eta antziñako pelegriñariak beren kroniketan eta kantetan izen aundiko bide bezela aipatu izan zutena... Lasarte'ko bidagurutzean bere asiera zuan Gipuzkoa-goierriko bidea.

ERMITA ETA OSTATUA

Bidaren eta galtzadaren ondoren, Lasarte'n, Edad Media, Erdi Aroa dalakoan arkitzen degun beste gauza, San Pedro'ren Eliza da; obeto esateko, Elizatxoa, Ermita; bidagurutz-bidagurutzean, aspaldi batean, kristauen elizkoitasunak kokatutako Ermita; etxea bera baño zabalagoko portalepea zuan Elizatxoa, bidez zebiltzanentzat babes

ta anparatzalle an ipiña. Anparatzalle, ez, ordea, animarentzat bakarrik, baita gorputzarentzat ere. San Pedro Apostoluaren izeneko, bañan ez Apostolu Santuari Eliz-barruan otoitz-egiteko bakarrik, baita, bidez zebiltzanak elizpe-portikoan arratsean lo-egiteko ere.

Olako bidagurutzetan sortzen zan, baita, beste gauza bat ere: Ostatua, bidezkoen «konforterako» Venta. Bañan, ostatua pagatzeko dirurik etzeukatenentzat, an egoten bait zan, bidagurutze-bidagurutzean, Elizatxoa, bera baño aundiagoko portalepearekin, beartsuak nun lo-egin izan zezaten. Lasarte'ko Soziografiaren dato bat geiago, alegia.

TORREA

Erdi Aroan, errietan —batez ere bidagurutzetako errietan— izan oi zan beste gauza bat ere: Torrea, Torre-Jauregia. Bidagurutzak zaitzeko izan oi ziran. Torre goreak. Arrizko Torreak... Erriko etxerik geienak, artean, ez bait ziran izaten arrizkoak, egurrezkoak baizik; egurrezkoak, edo arri baño egur geiagozkoak; eta etxe bajotak, geienez ere bizitza batekoak.

Torreak, ordea, egurrezkoak ez baño, arrizkoak izan oi ziran: beetik goraño dana arri, arri labratu. Eta tellatu orde, arrizko barbakana eta almenak...

Gorez, berriz, oso goreak, oso altuak izan oi ziran; beeko ikulluz gañera —zaldi-ikullu eta eskaratzaz gañera— bi, iru edo lau bizitza, etxeko bizitzatarako eta *cuero de guardia*'ko gudarientzako. Eta eskallerak geienean etxearen saietetik lenengo bizitzaraño; arrizkoak auek ere. Dana arriz, gerrateetako suaren kontra. Izena ere ala, arriz izaten bait zuten: Etxarri, Arretxe, Arrese...

Olako etxeak Lasarte'n, antziña, bat baño geiago ziran: Sasueta Arrese zeritzana bata —gero «Sasueta Txiki» ezagutu genduana, eta orain galdua. Bestea, aren pareko «Sasueta Aundi» edo «Sasueta Zaar». Eta bestea «Lasartegaraikoa» zeritzana: gero aipatuko bait degu berriz ere. Bañan batez ere, «Lasarte-Torre», orain Konbentuko Kapellau Jaunaren etxea dagon leku berean zegona, eta leengo gizaldian, karlistateren batean —ez dakigu noiz— galdu, erre edo bota zana...

Torre orren jabeak, abizenez «Lasarte» zeritzanak ziran, XVI gizaldian, Zizurkil'go San Millandarrakin eta Donostiako Okendotarrakin bat-egiñik azaltzen zaizkigunak... aiek sortu bait zuten, baita, XVII gizaldian, azken aldean, gure Lasarte'ko Monja Brijjidaen Konbentua.

Konbentuaren historiatic atera liteke —eta gero ikusiko degu, gauza jakingarri bezela —nolako Torrea zan XVII gizaldian, Lasarte— Torre-Jauregi eder ura.

Bañan ikustagun leenago, zertarako sortu izan ziran errietan Torre aiek. Eta, asierako, esan dezagun, Torreak geienean Aaide Nagusien bizileku izan oi zirala: Aaide Nagusiak, «Parientes Mayores».

AAIDE NAGUSIAK, JAUNTXOAK, AUNDIKIAK

Torreetan Aaide Nagusiak bizi izaten zirala, esan degu: Aaide Nagusiak: *Parientes Mayores*, *Banderizos*; Jauntxoak; Larramendi'k gero «Aundikiak» esaten zienak. Jende arroak, jende burrukalaria; jende aberatsak, askotan Erregearen serbitzuan edo Erregeen erregaliz aberastuak, eta orrela leen baño geiago arrotuak.

Erriak, gorroto zien. Alderdiak egiñik, partidutan banaturik, elkarren kontra —etxea etxearen kontra— gerra egiñez bizi bait ziran; batzuek «Oñeztar», eta besteak «Ganboar»; beti elkarri zipoka, askotan eriotzeraño, elkar iltzeraño.

Asieran, «aaide» izenak aditzera ematen duanez, bando berekoak, elkarren «pariente», elkarren aaideak izan bide ziran, eta elkarri gogor laguntzen zioten; bañan aizkenerako *por intereses de partido* ere elkartu oi ziran... Bañan, nolanai dala, erriak, Erri jatorrak gorroto zien; eta, poliki-poliki, geroko batean, Erregeen balimentuz baliatuak, aizkenean, XV, XVI gizañdirako, zearo otxandurik ikusten ditugu.

Famili oietako bat zan Erdi Aroan —XIV, XV gizaldian— Lasarte-Torrearen jaun-da jabe. Ez degu esango, Lasartetorretarrak Aaide Nagusiakin alkaturik bizi zirana. Ganboarrakin, bear bada.

Lasartetorretarrak gerora Zizurkil'go San Millandarrakin bat egin zuten; eta Zizurkil'go San Millandarrak, Ganboarrak ziran. XVI gizaldirako baita San Millandarrak Donostia'ko Okendotarrakin bat egiñik zeuden, eta Donostia'ko Okendotar oiek XVI-XVII gizaldirako Lazkauko jauntxo-jendearekin bat ziran: Don Antonio de Okendo —Donostia'ko Zurriolako estatuakoa— Lazkau'ko Andre Maria de Lazkano'rekin ezkonduak zegoen... Lazkautarrak, ordea, oñeztar bait ziran, eta San Millandarrak, ganboar... eta Okendotarrak tarte ortan sartu-sartuak...

Ala ere, eta ola Aaide Nagusiekin alkaturik bizi arren, ezin esan dezakegu, gure lasartearrak elkarrekiko burruka oietan oso sarturik iñoiz ibilli ziranik. Burrukaz bestelako lanetan, ots, baserri berriak sortzen eta burniola-lanetan sarturik arkitzen ditugu; 1499'gn urtez, Martin Arano de Lasarte bat arkitzen degu Lasarteolaren Olajaun.

Bañan aspaldi-aspaldidanik baita beste erregezko kargu batean sarturik ere bizi bide ziran: beren Torre gore-goretik Lasarte'ko bidagurutza eta inguruko bideak zaitzen, Erregeren enkarguz seguru asko; beren Torretik dana kontrolatzen, batez ere gerraren bat suertatzen zanean, zala Frantzia'rekin, zala Nafarroa'rekin, zala Inghlaterra'rekin berarekin; ibaiko ibiak eta «alak» kontrolatzen...

SANTIYAGO-ZALEAK

Leentxuago pelegriñuak aipatu ditugun ezker, aipa dezagun orain, Lasarte'n Erdi Arotik datorren oitura bitxi bat, eta ia orain arte bizirik iraun duana —Gipuzkoa guztian leen iñoiz izan-da, aspaldian galdurik dagona, bañan Lasarte'n iraun. Santa Ana Karkaban, urteoro, Santaren egunean —Santiyago bigaramonean— egin oizan fartsa bat, juizio-itxura xeble bat. Garbi-garbi Erdi Aroko oitura zaar bat bait zan, Santiyago'ren pelegriñuentzat entretenigarri egiten zan komeri-jai bat, alegia.

Fartsa oietan gizon gaizkille bat salatu oi zuten Juezaren aurrean; oker aundiren bat eginda arrapatua, alegia —eriotzen bat edo lapurreta aundiren bat-edo— eta gaizkillea bera eta testiguak eta fiskala eta abogadua, Juezaren Tribunalera etortzen ziran, an guztion aurrean juizioa egitera; eta juizioa gora-berakin jendeari naiko farra eragin ondoren, Juezak iltzeko sententzia ematen zuan; eta, aizkenik gaizkillea —lastozko irudi farragarian ezik— su-emanda erre egiten bait zuten jende guztiaren algara-artean.

Olako fartsak eta parodiak oso Erdi Aroko kutsudunak dira. Leen nunai oso oituak, bañan orain ia leku guztietan galdu diranak; bañan gaur oraindik Euskalerriko baxtarren batzuetan irauten dutenak, Zuberoan, adibidez, *txari-bari* izeneko fartsaetan.

Olakoxe Erdi Aroko oitura zaarra arkitzen degu Lasarte'ren bizieran. Erdi-Aro Erdi-Aroan sortua, eta ia orain arte zuen artean iraun duana. Santa Anaren Karkabako «juizio-parodia».

TORREA NOLAKO?

Lasarte-Torrea nolako zan jakiteko, Gipuzkoa'ko zenbait beste Torre ikusi besterik ez degu, Azpeitia'n Loyola'koa, adibidez, edo Oñati'n Lasarraga'koa, edo Andoain'en Ixturizta'koa, edo Zarautz'en Torreluzea... Torre goreak, ez ain zabalak estu-antza; arrizko sendo-sendoak.

Beren bebarruko ormaetan —metro lodiko ormaetan— lau edo bost saietera izan oi zuten, barru-aldera zabal eta kanpo-aldera estu.

Saieteratako bat edo bitan, brontzeko kañoi bana egon oi ziran, beti prest etsairen bat zetorrenean gogor su-egiteko...

Gure Lasarte-Torrek brontzeko olako bi kañoi zeuzkan, bakoitza amabiña arroakoa. Kañoi bakoitzaren kontu, artillero bat egon oi bait zan.

Gañerako saieteratan, saieteriak egon oi ziran, saieta zorrotzak antziña-antziñako arkuz etsaiari jaurtitzeko; gero, polbora sortu zanean, saietera aietatik arkabuz-tiroak jaurtiko bait zituzten.

Bebarruaren gañean, serbitzarien bititza egon oi zan —kanpoko eskalleratik sarrera zuala— eta bititza artan sukaldea eta sukalde-osteoa eta serbitzarien gelak —serbitzari emakumezkoenak, alegia.

Lenengo bititza aren gañean, bigarren bititza, Nagusiena; eta aren gañean etxeko mutil ezkongaien gelak.

Dana, leio txiki, arku-txorroxton, askotan bikote.

Tellatu-aldea, tellatu-egatzik gabea; ertzak, orma xut, almenatua, andik etsaiari arrika gogor egiteko. Dana gerrarako prest.

Torrearen aurrea, enparantza; etxea baño ondotoxoz zabalagoa, gerratean *plaza de armas* izango zana, eta pake-garaian, iñoiz —ez-taietan eta bataioetan-da, zezenak korritzen ere zirana.

Denboraz, enparantzaren lekuan Jauregia egin bait zan, Torreari erantsia; Jauregi zabal eta leio-aundiduna, Nagusiaren emazte ta aurrentzako egoitza egokia...

Olakoxea azaltzen zaigu Lasarte-Torrea antziñako paperetatik.

LASARTEGARAIKOA

Bi Sasueta eta Lasarte-Torreaz gañera, mala bereko beste etxe sonatu bat ere ba zan Lasarte'n Erdi Aroko garaian: Lasartegaraikoa.

Lasartegaraikoa —izena bera dago esaten— Lasarte-Torre baño gorago —ibaietan gorago— zegoen. Gaur «Rekondorena» edo «Aizpurrutarrrena» esaten zaiona. Goen Kanean, Urnieta-lurrean.

Bi Lasarte oiek, gaur bi nagusienak badira ere, asieran biok odol berekoenak izan bide ziran. Heraldika da orren testigu. Lasarte-Torrearen eta Lasartegaraikoaren armarrria, biak bera dira. Ikusi besterik ez dezute, Konbentuko Elizaren sarreran dagona, eta Lasartegaraikoaren ate-gañean dagona; biok berdin-berdiñak dira: goitikan beera, ezker-eskubi: erdi batean bi otso, goi ta be; eta beste erdian, esi, langa edo olako zerbait, itxuraz soro-itxiturako...

Lasartetorretarrak Oria ibaiaren kontrola zuten bezela, Lasartegaraiotarrak, itxura danez, artantzako ta arrantzako malan jarraitzen zuten gero ta gero ere. Torrekoak Erregeren serbitzuan lenengo,

eta burni-ola-lanetan gero, eta luberri eta baserri-lanetan ikusten ditugu. Lasartegaraikotarrak, berriz, ibai-luberri ta zumaburu-lanetan, eta arrantza-lanean. Lasartegaraikotik urruti gabe, Artuxa-aldean, or zegon, leengo-paperetan «naza salmonera» zeritzan ixtribu bat, izenak erakusten duanez, izoki-arrantzarako sortutako naza ederra.

Izoki-arrantza beti ere gure historian ixtimazio aundiko arrantza izan da; bai Bidasoa'n —oraindik ere jarraitzen bait du— bai, ikusten denez, gure Oria-ibaian ere...

Ez noa, emen izokiaren joan-etorriak eta izokiaren arrantza nola zan esatera; zeurok dakizute naikoa gai ortan. Nik bakarrik esango dizutet, leen ere inoiz aipatu izan dizutedana: erdi-aroan nolako errekesta zuan arrai garesti-garesti orrek; eta nola, urteoro-urteoro Pazko-aldian, Bidasoa'ko zenbait erritatik, izoki osoak bidaltzen zituzten, «primizi» bezela, Leyre'ko Monastegi Nagusira, salbo-ta, oraindikan ere zenbait baserritatik Gabonetan kapoiak Nagusietara bezela; izokiak, izoki ederrak, zaldiz, aal zan azkarrena Leire'ra iristeko...

Lasarte'n ere artzen bait ziran olako arrai gozoak garai batean.

LASARTE ERRIA

Aipatu ditugun etxez gañera, Erdi Aroan Lasarte osatzen zuten etxeak, beste amarren bat izango ziran guzitara, iru edo lau Elizaren inguruan kokatuak, eta gañerakoak ibai-baztarrean batzuek eta inguruko bixkarretan besteak, auek arrantzale-etxe, aiek artzai-borda eta danak poliki-poliki, gutxi edo geiago, nekazari-baserri. Ori zan orduan Lasarte.

Gero, ordea, ugaritu ziran etxeak.

Ona emen, 1610'gn urteko paper batean arkitzen degun zerrenda:

Ansorena (Maria de Sasoeta maiztar);

Garro (Katalina de Garro bizi);

Erramusena (Marianton de Arratzain bizi);

Domingo-Oarena (Grazia de Berreyartza bizi);

Martin-Fernandez-Berridirena (Domingo de Etxeberría maizter);

Arozarena (Maria de Yriarte maizter);

Enparan (Maria de Petriarza bizi);

Joanes-Araetarena (jabe; Maria Perez de Atorrasagasti maizter);

Asodakar (norbait bizi);

Sasoeta arretxea (Migel de Barrenetxea jabe; eta *Larrekoetxearena*);

Sasoeta zarra (Joanes de Sasoeta jabe; eta *Larrezurirena*);

Mitxelena (Esteban Iparraguirre bizi);
Goyegi (Maria de Petriarza jabe; Joanes de Artusa bizi);
Joanes-Araetarena (Pedro de Absalon bizi);
Etxeberria (Miguel de Barrenetxea jabe);
Torrea (1510'gn urtean etzan iñor bizi).

Etxe oiek danak Ernani-balladakoak ziran. Urnieta'koakin batean guzitara beste ainbeste geiago izango bait ziran.

Nolanai dala, 1671'gnean —Konbentua egin zanean— 22 etxe ziran; eta aietan 15, Okendotarrenak.

LASARTE-OLA

Guzti orren geigarri, ordea, sozialki batez ere, ba zan an beste etxedi bat aipatu bearra: olaa, burniola, Lasarte-ola zeritzana; Lasarte-Torreko nagusiarena.

Burniola orrek itxura aundia ematen bait zion era guzitara Lasarte-auzoari. Etxadiak, «ofizina» esaten zioten lantegi aundi bat zuan erdian, sutegi ta txingudi ta gabi-mazoarekin; eta etzandegi ta ikaztoki ta Olaetxea inguruan; eta, urruti gabe, «Olajaundegia», nagusiaren bizi-lekua —Lasarte ontan, Erdi Aroan, Torrea bera bait zan «Olajaundegi».

«Burniola» izenak adierazten duan bezela, burnia lantzen zan olaetan: Bizkai'tik ekarritako burni-miatza burni egiten zan: burnipieza aundiak eta pieza txikiak: aundiak —*plantxuelak*— txingudian gabiaren kolpez; txikiak, martinetea, zirala iltze-entengak, itxas-ontziaren olak elkarrekin josteko, zirala kabil eta txabeta, ontzien tresneritarako; Usurbil'go ta Agiñaga'ko ta Donostia'ko astilleroetatik eskatzen bait zituzten itxas-ontzigintzarako...

Gaur lantegirik geienetan bezela, orduan ere olaetan izaten zan ots, zarata eta zalaparta, gabiak txingudian burni-zamarra mallukatuaz ateratzen zuana, eta sutegiko auspoan fifi-ta-fafaz gañera, urak urarkatik palastaka ixurtzean ateratzen zuana...

Ortaz gañera olagizonak beren umore onarekin itxura berezi bat ematen zioten erri guziari. Olagizonak —gaurko industri-langilleen aurrelari izanik— jende alai ta arro-antxa izan oi ziran; jende zaratsatu, bullosoa; ostatu-zalea, sagardo-edalea, beren kantu ta tobera, Igande ta Jaietan auzo dana alai eukitzen zuana eta aldian bein beren kantutako koplak txorrotxekin min-ematen ere zekianak...

Olagizonak izango bait ziran, seguru asko, Santanaetan, leen aipatu degun fartsa-jaia eratzen zutenak, pelegriñoen entretenigarri Santiagoetan...

OLAGIZONAK ERRONDAN

Orain esatera goazena, etzan izan fartsa bat. Benetako eriotz bat ere izan zan.

1699^{gn} urtea zan. San Juan bezpera. Olagizonak izan ziran tarteetan. Olagizon bertsolariak, San Juan bezperagabez etxerik etxe errondan kantari ibiltzen ziranak...

Begira, gauza nola gertatu zan. Gertatutakoaren ondoren artutako deklarazioetatik dakigu.

Arratseko amarrak ziran. Gau illuna. Oitura zan bezela, gazte jendea prestatu zan kuadrillatan errondarako. Urte artan bi kuadrilla prestatu ziran. Batean, Juan de Azkue, eta Mateo de Artusa, eta Bautista de Mitxelena, eta Migel de Larburu ziran kuadrillako, eta beste bat, ez dakigu nor. Azkue ta Mitxelena, ikazkiñak ziran —Mitxelena, oyartzuarra— biok Lasarteolarako ikatz-egiten zutenak.

Amarrak-aldean, Konbentuko Kapillauaren etxe-aurrean asi zuten beren kantu-saioa.

Bitarte artan beste kuadrillakoak Pintore-aldetik asi zuten beren erronda. Bañan aiek ere, etxerik-etxe, urbildu ziran Konbentu-alde-ara. Gaberdi-ingurua zan. Eta berak ere egin zuten kantu-saioa, Konbentu-aurrean, Kapillau-Jaunaren ate-ondoan —gaur «Largorena» esaten zaion etxean—. Eta, artan, urbildu ziran ara berriz ere lenengo kuadrillakoak. Okasio-billa.

Kuadrilla biak elkarren etsaiak ziran nubait, eta ez nolanaikoak. Bigarren kuadrillan buruzai bezela Felipe «Andoain'go» zuten. Eta onekin batean zijoan Lorentzo de Mitxelena bat ere. Besteen ize-nik ez dakigu.

Kuadrilla biak, kantatu, kantatuko zuten noski; bañan baita makillak dantzatu ere. Gaberdi-gaberdian illunbetan ba zan noski makilotsa Konbentuaren eta Kapillau-etxearen arteko plazatxuan.

Gero, gau guztian kantuan jarraitu zuten. Garrasirik beintzat gau guztian etzan entzun. Bañan bigaramon goizean, kamio-baztarran, Mitxelena zeritzan baserri-aurrean gorputz billatu zuten Lorentzo de Mitxelena, Felipe Andoain'goren kuadrillakoa.

Lenengo kuadrillako Juan de Azkue ta Mateo de Artusa ta Bautista de Mitxelena, kartzelatu zituzten; eta, aizkenik, irurak Zeuta'ra amar urterako bota; eta amar urteren ondoren erritik kanpora bizi izateko zigorra.

Migel de Larburu'k iges-egin zuan. Bañan urkatzeko sententzia atera zioten; erriko Plazan urkatzeko; Lorentzo de Mitxelena buruan makilkadaz berak il zuan señaile.

Bañan ezuten urkatu. Andik ogeitabost urtera bizi zan oraindik. Eta Lasarte'n il zan. Berak Lorentzo de Mitxelena il zuan bezela,

il zuan norbaitek bera. Buruan makilkada batez. Ala azaltzen da Lasarte'ko Elizako ildakoen liburuan: «Por un golpe mortal que le dieron en la cabeza».

II ZATIA

ELIZA

Orain arte aipatu ditugun gaiekin, Lasarte'k Erri bat izateko, oraindik bi gauza falta zituan: Eliza eta Kontzejoa. Eta noizpaiten buruan iritxi zan, Eliza izatera. Kontzejua, ez. Gaur oraindik ez dezute Kontzejurik. Noiz arte? Zuek zeurok dezute, galdera orren erantzuna.

Ba dira urte batzuek, nere illoba batek, itzaldi batean aztertu zizkitzutela, gai onen zuztarrak: nola, alegia, Lasarte baño erri txikiagoak iritxi diran noizpait, Kontzejua izatera, eta Lasarte, ez... ..Kontzeju-etxea bai, da dezutela —XVII gizaldia ezkerro izan ere— bañan «Kontzeju» esan oi dana, Alkate ta guzti, ez; zuen Kontzejua, Ernani'n dago...

Gaur ez det ikutuko gai au. Ba dakit, gai ontan, lasartear fin danok zerbait egin naiean zabiltzatela. Uztagan, beraz, gauza au bere puntuan, eta jarrai dezagun aurrera.

Kontzejurik izatera iritxi ez bazerate ere, Eliza izatera beintzat noizpait iritxi ziñaten; orain lareun urte iritxi gañera. Oraindik ez dira urte asko, «lareun urte betetze ori» gaingiroki ta otsaundiz ospatu genduala danok Lasarte'n, elizkizun eta itzaldi eder batzuekin. Gogoan dezute guztiok. Ez det, beraz, esan bear aundirik gai ontaz.

1569'gn urtea zan. Trento'ko Kontzilioak eman zizuten ortarako bide Munduan Elizak ugariagotzeko Erabaki-Dekreto bat eman zuan Eliz-Batzar aundi ark: bearrik zan lekuan, Eliza berriak egiteko baimena eta ortarako errextasunak. Eta izan ziran Lasarte'n, baimen orren berri jakin zutenak. Baimen orren berri jakin, eta Lasarte'n Eliza baten bearra —bear estua— zegola, sentitzen zutenak.

Ba zenduten Ermita bat —naiko aundia, San Pedro'ren izenekoa (2)—. Bañan noizean bein an Meza ematen bazan ere, ez igandero. Bañan, ez, bataiatzeko Ponterik, ez, ezkontzeko eskubiderik, ez, gaxoai Elizakoak emateko Sagrariorik, ez, eriotzean laguntzeko

(2) Itzaldi au euki ondoren jakin degu, Iruñe'ko Eliz-Artxiboetan paperen bat azaldu dala, Lasarte'ko Eliza egin zan lekua leen aristi bat zala diona, eta Ermitarik aipatzen ez duana.

Guk Ermita aipatzen degu, Iruña bereko beste paper batean Ermita aipatzen dalako.

Bi paper, beraz, Artxibo bereko: bata, Ermita aipatzen duana, eta bestea, Ermitarik aipatzen ez duana, arizti bat baizik.

Apaizarik. Jendea, berriz, naikoa. Eta serbitzu guzti oietarako, Antigua'ra joan bear; leenago, berriz, Ernani'ra. Eta Ernani urruti bazezon-ta, ez bait zegon alderago Antigua.

Bearra zegon, benetan. Zer falta zan? Gauzari eskua erantsiko zion gizon bat. Eta —nola ez— Lasarte'k arkitu zuan gizon ori; obeto esateko, iru edo lau gizon. Elizako fatxadan dauzkatzute aien izenak, marmol zurian ezarrita, betiko gogoangarri.

Gizon aiek asi ziran, baztarrak astintzen. Jo zuten bear zan lekura: Iruñe'ko Gotzaitegira. Eta, aien joan-etorri batzuen buruan, logratu zenduten «deseo zendutena». San Pedro'ren Ermita, Eliza Parroki egitea.

1569'gn Pazku-egunean izan zan egun señalatu ura.

IKASGAI EDER BAT

Bañan, arritzeko gauza. Eliz-berri-lantegi ortan ez dala azaltzen, Lasarte'ko aundiki inoren izenik: ez Okendo'rik, ez San Millan'ik, ez Lasarte torretarrik.

Askotan gertatzen da, gauza auetarako, aundizkiak baño —aristokratikak baño— areago izan oi dirala, ez degu esango «jende xeeak», baño bai zenbait «burgestxiki-jendeak». Iru edo lau —ez aundiki, ez jende xee ta arrunt— izan ziran Lasarte'n gauza ontan burubelarri ibilli ziranak.

Bi gauza bear ziran arazo ortan batez ere: Iñuñe'ko Gotzaiaren baimena, eta «base económica» esango gendukean zerbait: orduan «amarrenak» eta «primiziak» esan oi ziranak. Iruñe'ko baimena izango bazan, erriko amarrenak eta primiziak bear ziran; eta ortan zegon gauzaren zailtasuna. Artean, Lasarte'ko amarrenak eta primiziak, Antigua'ko Elizak eramaten bait zituan; eta Antigua'ko Elizak bere eskutik utzi nai ez: ortan zegon eragozpena...

Bañan orduko gizon bizkor aiek, sortu zuten, eragozpen ori baztartzeko bidea: lasartear guztion artean «fondotxo» bat sortzea, alegia, Apaizaren mantenurako bear zana, Antigua'ko Eliza-

Histori-zaleak erabaki bearreko auzia.

Guk, orain ogeita amabost urte idatzi genduan, Lasarte'ko Elizaren asierako Historia. Historia aren Sarreran, Lasarte'ko Monja Brigidak eta Donostia'ko San Telmo'ko Dominikoak elkarren artean izandako auzi bat azaltzen da: Monjaen etxe Ubistin'ek amarrenik eman bear zuan aal ez, arakutzen zan auzia; eta, irurogei urtez auzitan ibilli ondoren, Iruñe'ko Gotzai-Auzitegiak Dominikoen aldeko eta Brigidaen kontrako erabakia eman zuan, Lasarte'n Eliza baño leenago Ermita bat izan zala esanaz, "Meza entzuteko Ermita, gero XVI gizaldian Eliza egin zana".

Iruñe'ko Eliz-tribunalak emandako Erabakia da, ori diona...

Orain Histori-zaleak dute itz. Mintza ditezela. Guk ez diogu ezer.

rentzat inñungo kalterik gabe; eta ortarako, lenengo-lenengo, berak eman zuten ikasbide ta exenplo; bakoitzak eskuartean zeukan dirutik al zuanak al zuana ematea, eta ola guztion limosnaz osatu, obrak bukatuaz gain, Apaizaren mantenurako bear zan fondotxoa.

Olaxe egiña da zuen Eliza; leengo amarrenak Antigua'ko Elizarentzat geratzen zirala, beste fondotxoa zuek emanda. Ez nua emen detallarik ematera. Nere Historia batean or arkituko dituzute.

Bañan beste eragozpen bat ere izan zan, emen aipatu bearrekoa: leengo Elizatxoaren txikia. Ermitatarako naiko aundi izan arren, Eliz Parrokitarako etzan nunbait naiko aundi, eta an inguruko lurretan aunditu bear izan zuten. Inguruko lurak, berriz, Sasuetaaundi'ren lurak izan, eta nagusiari eskatu zitzaion ortarako bear zana; eta nagusi ark pozik eman, eta debalde eman ere, gañerako lasartearrak beren poltxikotik bakoitzak al zuana eman zuen ezkeru, berak ere zerbait egin nai zukeala-ta...

Ba zan, izan ere, egun aietan, lasartear jator aien artean, beren Eliza berriarentzako eman eta egin bearra!

Azkenik, ba dakizute, 1569'ngng Pzku-egunean egin zala Elizaren estreña. Iruñe'ko Goñzai Diego Ramirez Sedeño de Fuenleal Jaunak etortzerik izan ez ta, Donostia'n bere Ordezko zeukan Doktor Alkizak egin zuan egun aundi artako Elizkizun ederra. Ori leendik ere ba dakizute.

Bukatzeko: geroztikako obraen artean, aizkenik bi ditugu aipatu bearrak. Bata, XVIII gizaldian egindakoa. Orduan ipiñi bait zitzaion Elizari bere aurre-aldeko fatxada neo-klasikoa, eder askoa, bere elizpe sendo ta bere torre txukunarekin; eta Elizaren inguru guztian egindako zabalunearekin. Orduan egin bide bait zitzaion. Eliz-barruan koru ta korupe lasaigarri kuriosoa ere.

Ogeigarren gizaldian, berriz, sapa berriarekin Eliz-barruari eman zitzaion itxuraldatze ikusgarri-ikusgarria, Urreta'tar Don Migel zaren arduraz eta eskuabalez.

BRIJIDAEN KONBENTUA

Aipa dezagun aizkenik Konbentua.

«Ez giñala, baño ba gaitun» esan diteke, Lasarte'ko Brijidaen Konbentuz mintzatzean: «Ez giñala, baño ba gaitun»...

Lasarte'ko Eliza egiterakoan, erritarrik beartsuenak ere, Eliza egiteko zerbait ematen agiri ziranean, ez Okendotarrrik, ez San Millandarrik, ez Lasartetorretarrrik inñortxo ere ezer ematen agertu etzala, esan degu arestian.

Konbentua egin zanean, ordea, oso kontrara esan bear degu: beste lasartear inñortxok ere txanpon bat eman gabe, Lasartetorreta-

rrak berak bakarrik dana egin zutela: asi-ta-buka, azkeneko txanponerañoko guztia dana beren boltxikotik emanaz.

Egia da, besteak beste, Lasartetorretarrak gauza ori beren-beren motibo berezi bategatik egin zutela: beren familiako motibo berezi batengatik.

Konbentuaren egilleak, dakizuten bezela, Dn. Migel de Okendo eta D.^a Teresa de San Millan izan ziran. Biok, D.^a Maria Lasarte'ren illoba ta ondorengo oñordeko.

Dn. Migel, Dn. Antonio de Okendo'ren semea zan; eta, aitaren pausuai jarraituaz, «Eskuadra de Kantabria»ko itxasontzi galantaetan Almirante izan zan; itxasorik-itxaso zebilela, Kadiz'ko itxasoetan Santa Brijida gau batean, ekaitzak emanda, bere Eskuadra guztia galdu ondoren, bera bere Ontzi Kapitanako gizon guztiakin milagroz bizirik atera zalako, Ama Birjiñari egindako promesa beteaz, «Kontsueloko» Ama Birjiñari Elizatxo bat egitea pentsaturik zeukan. Eta, ortan zegola, bere bi alabaek monja-naia azaldu zioten, eta monja, ain xuxen, Brijidaetan...

Ortik etorri zan, Don Migel'ek eta bere emazte D.^a Teresa'k Konbentu bat Lasarte'n egitea erabakitzea.

Eta baita egin ere, dakizuten bezela. 1671'gn urtean bete bait zuten beren asmo biotz-aundiko ura. Berak bizi ziran Torre galantaren aldamenean ortxen egin zuten, gaur oraindik dotore asko ikusten degun Konbentu txukun bitxia...

Ikusten danez, familiako motibo berezi-berezi batengatik egin zuten beren egitekoa. Bañan, ala berean, baita, asi-ta-buka, dan-dana beren boltxikotik. Ba zezaketela, ezik, ori bai. Aberatsak, oso aberatsak ziran. Lasarte'n bertan, beren Torreaz gañera, Errian ziran 22 etxetatik, 15 berenak zituzten. Eta Lasarteola ere, berena; eta Aduna'n Agaraiz'ko ola, eta Elduain'en Inturia'ko ola. Eta San Millandarrak, zer esanik ez: Gipuzkoa guztian, etxe ta lur, garbi-garbi larogeiren jabe ziran.

Ba zezateken; bañan aitortu bearra ere dago, beren diruak etzi-tuztela Korteko bizitza lasaian eralki; Lasarte'ri, izen aundi bat eman-go zion Konbentu eder bat opa ziotela, Gipuzkoa guztiari bentaja aundi bat egiñaz gañera. Eunka, etxe oneko alaba izan bait dira monja, irureun urte oetan zuen Konbentu izen aundiko ontan. Eunka etxe oneko alaba, Gipuzkoa guztitik, Bizkai'tik, Nafarroa'tik, Lasarte'ren izen ederra baztar guztietan banaturik.

Eta ontan bukatzen det nere itzalditxo au. Dakizuten bezela, Aita Plazido Mujika lasartear ospetsuari eskeiñia.

Eskerrik asko, entzuteko pazientzia artu didazuten guztioi.

MANUEL LEKUONA.

Euskeraren Egoera Nafarroan

Leen eta Orain

Iruñeko *Escuela de Comercio* delakoan, joan den udan, solasaldi bat emana izan zen *Geografía diacrónica del Euskara en Navarra* liburu berriaren gaia artuz. Beraren puntu batzuk nai ditugu hemen eman, jakingarri diralakoa.

Ikastoletako Irakasleendako apailatu zen Ikastarora, ehun baino geiago aditzale bildu ziran, nafarrak geienak.

Liburu horren gaiari buruz, etzait atsegin mintzatzea, euskararen galtzapena kondatzen dugulako; ondamendi deitoragarria zinez. Erdi-aroko mende urrun eta ilun horietan, guttika bada ere, gibelka ari izan zen euskara.

Bainan oraiko mende huntan eta XIX-garreneko azken aldera, beherapen lasterrago eta are deitoragarriagokoa egin du.

Lehenago, XVI-XVIII tarte hortako mende zaharragoetan izan duen bizitza azkarra aipatuko dugu, eta Nafarro-erdira baiño beitialdeko errietaraino edatzen zela gure izkuntza, bai eta Erriberako toki batzuetaraino ere.

Ene liburuan ikus dezakezuen bezala, 1935 urtetik hunarat, hau da, berrogei urtez, euskararandako galdu ditugu, *Erronkari* ibar osoa, *Saraitzu geyena*, *Ayezkoa* puska aundi bat, *Arzibar* osoa, *Esteribar* geyena, *Anué*, *Txulapain* edo *Juslapeña* osorik; bai eta *Gulina*, *Odieta*, *Atez*, *Arakil* eta *Burunda* geyen parteak (Urdiain ez-ezik); *Sakana* aranak guti edo aski irauten duelarik. Denen artean, yada 150 erri eta errixka osatzen dira. Multzo aundia berrogei urtez; lotsagarria nafarrendako!

Eta urte hartatik ogeita amar geyago gibelatzen bagara, oraindik erri geyago galdu izan zituen euskarak.

Bladi Fagoaga profesore izan zenak Apezpikutegiko Artxiboan, 1904 urteko Inkesta inprimatu bat aurkitu zuen, tiletez tilet, zer errietan euskara egiten zen markatzentuena. Eta arriturik ikusiko dugu, duela 70 urtetik honarat bazter utzi zutela euskara, *aipatu erri hoiéz*

gaiñera, orduan euskaldun garbi ziren (iguzkialdetik mendebalera goazela), *Lónguida*, *Arzibar*, *Arriasgoiti*, *Egués* aranak, bai eta *Ezcabarte*, *Olza*, *Goñi* eta *Ollo* aranak ere. Hala dio Eliz-inkesta horrek. 1904 urtetik oraiarte, beraz, euskara galdu zuten erriak, 200 baino geyago dira.

Zerengatik da, zimizta bezalako galtze ezingelditu hau gertatu? —Arrazoin iduriko edo traba aunitzen artean, nagusienak aipatuko ditugu; konzienzia falta, lehena; euskaldun agertzeaz lotsatzen ziran nafar haiek, euren mintzaireia gutietsia eta mespreziatua ikusten zutelako erriko aundiki eta agintarien gandik, eta Iruñetik eldu zaizkoten erdalkeriarengatik; oroz gaiñetik, maisu eta apez geyenen erdeinuarengatik.

Eskoletan eta eliza geyenetan arbuatua izan da euskara dohaka-bea (yende pobreen izkuntza); hori ikusten da *Sánchez Carrión*-en liburuan (Estado actual del Vascuence en Navarra. Pamplona, 1970). Eta orai berean erri aunitzetan, hauxe bera gertatzen da.—Abisu bat egitera ausartuko nintzake Foru-Diputazione agurgarriari, huni daxikola. Bera, borondate oberena-rekin, eskuzabal agertzen dan denbora berean, eta erri berberetan, zenbait maisu marmarka ari zaizkio, euskara ikastea denbora galtzea dala, bai eta dirua ere; eta makurrago dena, aurrek kultura irabazteko eragozpen aundia dela euskara.

Maisu horiek ezdute oraino ikasi, gaurko pedagogo jakintsuek diotena; aurrek sakonago ikasten dutela kulturazko mintzaireia (erdara), euskara ere irakurtzera irakasten bazaiote, bereziki ama-izkuntza baldin badute; MENENDEZ PIDAL erdal linguista ospetsuak argi esan du, aur batendako, bi izkuntza jakitea, aberastasun bat dela, debekua eta eragozpena izan ordez.

Gure Diputazioneak, beraz, pezetak milloika xahutzen dituen mementoan euskara bizi-arazteko erri euskal edo erdi-euskaldun horietan, apez geyenek ez laguntzen; orain arte beintzat eta bere Elizetan, ez Aitagure bat ere euskaraz. Egiazki euskara zabaltzeko ari bada Diputazionea, kontraioke kaltegarri horiek xuritu beharko ditu lehenik; eta laster. Bestela alferrik dabila sosak botatzen.

Baina ahuenak eta intziriak utz ditzagun, eta ikusi, joan diran XVII-XVIII mendetan, zein azkarra eta bizia zagoen euskara Iruñean, *Geografía diacrónica* hortan dakuskezuen bezala. Bidenabar, aipa dezagun Bonaparten mapa ezagunean, 1863 urtean allegatzen zela euskara ego-aldeko *Burgui*, *Galoze* (Saraitzu) *Artajo* - *Indurain* -

Izco - Barasoain - Garesh - Artazu - eta Iturgoyen errietaraino. Zer aldaketa mende batez!!

Goazen orai Iruñera (franzestean) Napoleonen gudu denborara; 1811 urtean Erriko-etxean, atari aundian finka-arazi zuen Reille frantzes generalak, bi bando euskaraz, Iruñeko euskara berean, bere erdalkeri guzietan. Seiñale garbia, gure izkuntza Iruñean usatzen zela. Bando biak osorik, nere liburuan sartu ditut.

Eta urte horietan, Espoz y Mina general famatuak. bere gerlanetako zeukan morroi argi batez (Felix Sarasa, Cholin deitua) haladio bere *Memorias* liburuan. «*No sabía escribir, leer ni hablar castellano; comprendía sí la lengua castellana, más nunca pudo decir en ella una expresión enteramente ajustada. Era el vascongado más cerrado que había existido en Navarra.*»

Cholin hori (Felix Sarasa) Artikako etxalde aundi bateko nagusia zen, sineskaitza bada ere. Artika errixkara lau ixtapeitan joan daike Navarrerria karrikatik.

Aipa ditzagun orai, Iruñeko lekukotasun edo testimoniak bereziki, Iruñean baigaude, et iri hau euskara galtzalea izan bada, piztalea ere izan dadiela hemendik goiti.

Iruñeko kontseiluak (Ayuntamentuak) 1604 urtean erabaki sineskaitz bat artu zuen; huna zer dion funtsean:

«Sesión del sábado 15 de mayo de mil y seiscientos y cuatro AÑOS. Los Rexidores dixeron que considerando que el lenguaje primero y natural de la dicha ciudad y sus montañas, de donde por la mayor (parte) heran los moços y moças de serbicio, hera el bascuence, y que assí como otros muchos vecinos y habitantes no sabían ni entendían otra lengua que el dicho bascuence, y hera a su noticia por Relación de los señores vicarios de las parroquias como de otros religiosos y clérigos que en las confesiones que los tales habían (tenían) se echaba de ber la falta que abía en no aber predicador que en su propia lengua les predicasen... acordaban y acordaron que de aquí adelante *a perpetuo*, assi como al predicador ordinario en el lenguaje castellano para los sermones de la Quaresma, haya también en bascuence y se nombre en cada un año por el dicho Regto. un Religioso ó sacerdote qual conbenga para semejante ministerio, el qual todos los domingos y las demás (fiestas) que hubiere en la Quaresma, predique en la dicha lengua bascongada desde la una tarde asta las dos en la parroquia e iglesia de san cernin, o en otra... para este presente año nombraban por tal predicador al Reverendo fray Esteban de Beriain de la orden de predicadores...

Estellan ere euskara bizirik zagoen 1607 urtean, Lacarrak azaldu zuen bezala; huna berak San Juan Parroquiako Artxiboan arkitu zuen erabakia:

«...Articulado contra los procuradores y diputados y parroquianos de la Iglesia de San Juan de la ciudad de Estella, 1607, hecho por el Cabildo de dicha Iglesia, n.º 22; Ytten (Art. 3.º párrafo 2.º) entienden probar que el Vicario nombrado no tiene las cualidades que se requieren para ejercer el oficio de cura en la dicha parroquia por haber *más de la tercera parte* meramente Vascongados y *no saben romanz* y el dicho cura *no sabe Bascuenz* y así es causa lexitima y bastante para ser removido y que se provea quien sabe la lengua.

Es copia literal del documento que se guarda en el archivo parroquial de la parroquia de S. Juan, de Estella, número 513 del catálogo.

Beste parrokian ere, euskaldun asko zeudela Estellan garai hortan, ezta dudatzeko.

* * *

Uterga-ko erretore ospatsu eta euskerazale aundi harek (*Joan de Berlayn*) bere 1626 urteko *Dotrina en Romance y Bascuence*, liburu guttiz arraroaren Prologo luzean dio: «...Lo segundo escribo en Bascuence porque no ha habido nación en el mundo que no se ayapreciado de la lengua natural de su patria, y de enseñarla en las escuelas a leer y escribir.

Según esto razón es que nosotros estimemos nuestra lengua Bascongada porque cosa cierta es que quiso Dios...

Tubal hijo de Iaphet habló y enseñó en este Reyno la lengua de Bascuence, y después acá hasta el día de oy, se ha conservado en la muy noble Ciudad de Pamplona, y en toda la tierra Bascongada...» Itz arrigarriak eta gogoeta egiteko diranak.

Beste liburu bat ere izkiriatu zuen euskaraz Beriaynek —*Tratado de cómo se ha de oyr Missa*— 1621 urtean, eta —*Allector*— astapeneko lerrotan irakurtzen dugu: «...Yo escribo el que se habla (Bascuence) en Pamplona, cabeça deste Reyno y Obispado de Navarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas partes, y cuando a algu-

no le pareciere que en algunas cosas no se entiende, delo que escrivo en Romance puede sacar el bascuence que se usa en su tierra, porque no voy atado a las palabras del Romance...»

Gizon argia Ilzarbeko apeza; euskararatzean ez paita lotzen erdarako itzetara, sentidoari baizik; oraiko idazle askok itzez-itz itzulikatzen dute erdaratik eta hala ezinda xilatu, zerbitzen diguten ziri-riborroa.

Iruñeko Katedraleko Chantre Martin CRUZAT-ek, apezpiku-alkia utsik zegoelako, Cabildoren izenean eske hau zuzendu zion 1530 urtean Carlos V Emperadoreari.

Betidanik, Iruñeko Kalonyek apezpikua autatzeko eskua zuten, eta huna itzez itz Chantre-aren eskabidea:

Sacra Cesárea Católica Majestad: El Chantre de la Madre Iglesia de Pamplona, en nombre del Prior y del Cabildo della dice, que por quanto de tiempo inmemorial acá solían elegir obispo de aquella iglesia... importa mucho al servicio de V. M. que en aquel reino se mire mucho en esto, porque allí hay bandos y parcialidades tan notorias, esto se atajará o a lo menos se excusará... siendo el prelado cual debe ser y residiendo suplican muy humildemente proveyendo en persona de aquel Cabildo, pues las hay en él muchos y muy suficientes de letras y vida, y que sirvan muy bien a V. M. por que además que *saben la lengua* y conocen la cualidad y condiciones de cada uno de aquella tierra... será amado, obedecido y temido de los súbditos por ser natural, porque la gente Vascongada, que *es la mayor parte* y la que mayor necesidad padece de buen pastor, de todo aquel reino, ama sobre todas las naciones a su naturaleza y lengua y se dexa facilmente domar y sujetarse a ella, siendo indómita para otras naciones.

Nafarroan dokumentu gutti dira, euskaldungoaz horren garbiki mintzo denik, bai eta nafarren euskaraganako atxikimenduaz. Leku-kotasun balios hau Goñi Gaztambidek arkitu zuen Artxihoan. Bai eta beste bi euskal izkribu; Iruñeseme baten Olerki eder bat (1564 urtekoa), eta Kanziller-segretario baten gutun bat, 1415 urtekoa.

Dokumentu geyago ere bada oraiño, Iruñe-iriko euskaldungoa azaltzen dutenak, baiña hoiekin naiko da ikusteko izkuntza bizia zela urte horietan euskara, gure iriburuan.

Erribera aldean, deituren eta izengoitien egituraz, besteak beste, argi aski dago, euskara izan zela *Usue* (Ujú), *Zankoz*, *Arróniz*, eta beste errietako jendeen izkuntza, ez erdiaroan txoilik, ondoko mendebaldean (La población Navarra en

el S. XIV) irakurtzen dira Usué-ko presuna askoen izenordeak, euskeraren joskeran: *Xemén Gongalde-co*, *Domingo Sendoa*, *Yenego içurra* (*Crespo*, erdaraz), *Johan Mendi-co*, *Sebastian Basterre-co*, *Pascual bidaguille* (*abrecaminos*). Eta toki izenek, oraino ere irauten dute: *Aldabea de Anzandieta*, *Redondiaga*, *Zaldunaga*, *Estuciaga*, *Mugazuria*, *Santacoramura* (*Santacara-buru*), *Basandia*, *Urtiaga*, *Lerbez*, *Laquilazabal*, *Lacubeli*, *Andesoro*, eta abar.

Zankozan ikusten ditugu —Sancho erdara, García erdara izen deiturak; erderaz egiten zutelako paratu zioten Izenorde hori, gauza bitxia bezala; gainerateko erritarrak euskaldunak zirelako; -Sancho *Oillasco*, -García *Iturri-co*, eta abar.

Arronizen, oraiko toki-izenak euskaldunak dira: *Alanbelza* (*Aran-*) *Unculun* (*Unçulun-Unzu-ilun*), *Guiligorri* (*Eguiligor...*) *Bercendia* (*Baraceandía*), *Castiluzar-Andraneca* (*Andre-Oneca-Iñiga*), *Bus-tiza* (*Bustinza*), *Urguesa* (*agua salada*).

Carrasco-n liburuan atxematen, ditugu presuna —izen hauek *Arro-nizen*; *Martiniz Iturri-co*, *Periz Bicueta-co*, *García bazterre-co*, *Johan zamargrin* (*zamargin-pellejero*), *María Sarramunzceco*. Orain ere bi-zirik dago *Zarramunza* toki izena.

Euskeraren beharpen eta suntsimendi deitoragarri hau geldiaraz-teko zer egin dezakegu? Orai berriki J. Batixt Dirassar gure lagun kasetalariak, HERRIA astekarian dio: «...Oraino mende laurden bat eta ezta nehor kasik mintzatuko (euskara)...; bainan neurriak ar-tzen badira egun, ezta berantegi oraino... Eskuara, hein bat Esko-letan sartzen bada (dio *Dirassarrek*), radioan, telebixtan eta legezko harat-unatetan... bai; bestenaz ezta deus onik izanen. Eta eskuara maite dugun guziek doi bat elgar *aditzen badugu*...; maluruski (zo-ritzarrez) ezgira hortan: elgarren yorratzen aritzeko, gaitzak gara (euskalzaleak)... Halako kenka batean, ttipikeria horiek bazterrerat utzi beharginuzke. Baina elgar aditzearen aldeko dei hori, norbaitek egin behar luke...»

Badugu uste, diogu guk, agintea dutenak eta iardespina edo erres-ponsabilitatea dutenak noizpait atzarriko dirala, eta bakebide bat kausituko dutela, geienen gogoko ditakena, bai idazkeran eta bai ur-kolagunaren ikusmoldea errespetatuz sail huntan; borondate one-koa baldin bada, eta euskeraren onerako ari bada.

Bakotxaren gutizia baino lehenago da euskeraren osasuna eta on-gia; alderdikeria eta setakeria zinez kaltegarri dira. Eta hauek gure gia; alderdikeria eta setakeria zinez kaltegarri diya. Eta hauek gure baitan diraueno, eztugu euskara piztuko eta ez salbatuko.

A. IRIGARAY.

EUSKAL OPERA⁽¹⁾

Isidoro Fagoaga'k gaztelaniaz egiña
eta *Yon Etxaide*'k euskaratua.

Euskal-operaz egin-asmo dudan azalpentoak, oso-osorik bilduko du agertoki-musikari (2) dagokion bilduma, «euskal-frantsesak» eta «euskal-españolak» zatiketa artifizialik erabili gabe, zeren, bi-biek, enbor berberan dutelako sortze, paraleluki hazi izan dira, historian zehar bata-besteaganatuz eta alkar osatuz. Historia hau, musika jakintsuari eta beste arteei dagokienez, sortze berri xamarrekoa da Euskalerria'n (3).

Badago antz-irudi bitxi bat italiar operaren eta euskal-operaren jaiotzen artean, harentzako bi aldizko abantailarekin, hots, antzintatasun handiagoa eta batez ere irrada (4) ugariago eta zabalago bat.

Italiar opera —lehen aldikoz *musika aurkeztua* izendatua izan zena, gero, Monteverdi'ren etorrerarekin, *riforma melodrammatica*

(1) Lan hau, Paris'ko Sorbona'n, Baiona'ko Eusko-Erakustegian (Musée Basque) eta Maule'ko Ikastetxean emandako bi hitzaldiren bateratzea da, hots, "La musique folklorique basque" eta "La musique représentative basque". (Egillearen oharra).

(2) Testuan: escénico-musical.

(3) Beste herrialde askotan bezala, eusko-gizona, norbere herriko edergintza sortu baino lehen, beste herrien edergintza-mendeko izan da. Ederlari euskaldunek edo beren aurrekoek, larre-nausitasun giroan hazirik, beren mugaz kanpora billatu zuten goi-adimenaren hedadura eta adierazbidea, norbere nortasunaren ezaguera eduki zuten arte. Horrela, konprendigarri da euren lurraldetik kanpora aurki dezagula euskal-jatorri garbiko izenik ugari, bai musika gaietan eta bestelako edergintzetan: irudigintza, eskultura, pintura, arkitektura, etab. Aipa ditzagun batzuek: Zurbaran, Antxietarrak (eskulturalaria eta Errege-Kaperako musikalaria), Jauregi (Cervantes'en erretratararia), Goya, Joane Olabarrietako eta Domiku Ezeitzako (Herrera'ren jarraitzaile Escorial'en eraikintzan), Arizmendi, Araotz, Iriarte (Murillo'k: hain miretsia), Matxin Gaintzako eta Mikele Zumarrako (Miguel de Zumárraga), Sibilía'ko katekaleko obrak bururatu zituztenak, Etxabe (Mexico'ko pintura-eskolaren fundatzaile) eta milla gehiago euren kontakizuna eziiezkoa litzakena. (E. O.).

(4) Testuan: difusión (lit.: "lance en la siembra hecha a pulso". Azkue).

edo, soilki, *melodrama*, eta azkenik *opera in musica* eta, laburpenez *opera* bakarrik— Pizkundeko sorkari (5) aristokratiku bat izan zen. Ederlari eta gizaseme kulturadun batzuek, Florenzia'n, Giovanni Bardi'ren etxean egiten zuten bigiran (6) sortu zen. Hau (1567-1643), Vernio'ko kondea zen eta jakite handiko pertsonaia, olerkaria eta musikalaria. Bilkura honi *Camerata fiorentina* izena eman zitzaion. Jacopo Peri, Giulio Caccini, Gerolamo Mai eta beste batzuek ziren osatzaile, Vincenzo Galilei —fisiku famatuaren aita— gidari zutelarik. Helburua: musika *in stilo recitativo* edo *in armonia favellando* sortzea zuten. Asmakizun hau, muiñera jota, teatru zaharraren heztezari, helendarrari bereiziki, ekin nahi zion tankera jakintzadun bat besterik etzen.

EDERGINTZA SORTZEAREN ANTZA (7)

Mende t'erdi geroago eta tankera berberako aristokrata giro batean sortu zen euskal-opera. Gixa hontako teatru-musikaren lehen-dabiziko saioa Bergara'n egin zen, 1764'an, Xabier Maria Munibeko jaunaren, hots, Peñafiorida'ko Kondearen jauregian, *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* en fundazio hastapenetan. Beronen eragilleak, aipatutako Kondea eta beste zaldun batzuek izan ziren, alegia, «Azkoiti'ko Zalduntxo» sonatuak, Aita Isla'k deitu zien bezala zalantzagabeko ironeia batez.

Lagunarte honen arba izan zen Mintegia (8), Bergara'n sortua hau ere 1776'an. «Unibersidade izenik hartu gabe —Fausto Arotzena'k komentazen duenez—, hori baiño gehiago izan zen beharbada: hots, bere garaiari aintzineratu zitzaion Zientzia Azterketak egiteko Instituto benetako bat. Unibersidade klasikutan ikusi etziren gabinetek eta laborategiak (9) ezarri ziren; eta hoberik ere bada: atzerrian arrakasta (10) handiena zuten zientzialariak ekarri zituzten, hala nola, Proust, Tunborg, Chabaneau eta beste batzuek. Hemengoak kutsatu ziren zientzia berriaz eta Juan Jose eta Fausto Elhuyart (11)

(5) Errenazimentuko kreaizño.

(6) Testuan: tertulia.

(7) Testuan: Similitud de fundación artística.

(8) Testuan: el Seminario.

(9) Laboratorios.

(10) Fama, sona, entzute.

(11) Logroño'n sortuak izanarren, jatorriz Ipar-Euskalerrikoak ziren. Hemendik dator noski deitura honen nahastea, gaur nahiz Elhuyart, nahiz Elhuyar izkiriartzen baita. Segurki jatorriz Elhuyarte izanen zen; gero frantsez hizkuntzak "Elhuyart" bihurtu bide zuen eta azkenik gaztelarak "Elhuyar". Fausto'ri Logroño'ko hiriak eskeini zion karrikak "Elhuyar" forma laburtua darama. (Itzulzailearen oharra.)

anaiak wolframioa apartatzea lortu zuten, alegia, kimika-zientzietan horrelako galdia (12) eduki duen elementua. Elhuyartarrak izan ziren halaber, beste pertsona batzuen laguntzaz, Chabaneau eta Narro's'ko Markesa euren artean, «platina americana» delakoan bildutako platinua zabalkor (13) egiteko xistema arkitu zutenak» (14).

LEHENENGO MUSIKAGINTZA AGERTOKIRAKO

Goi-kulturaren giro hartan, jatorrizko hizkuntzaren estudio eratsu bat has zitekean, hiztegi baten bilguma egiteko lan-gaiak (15) darakusenez. Eta perspektiba aginkor honen betegarri, han aurkeztu zen ere 1764'ko Iraillaren 12'an, eta aipatutako Kondearen egitez, geroko euskal-antzegintzaren (16) lehenbiziko musikadun egintza agertokirako, hots, «El borracho burlado», bi hizkuntzakiko opera (17).

Lehenengo bolaran, Kondea bere burua gordetzen saiatu zen «Un caballero guipuzcoano»ren gaitz-izenpean, baiñan geroago, libretua argitaratzean, *Oharpen* bat erantxi zion aintzinetik. Beste gauzen artean honela ziona: «...beronen Egille naizela aitortzen dut eta bere akatsen erantzule egiten naiz. Aitortzen dut asko direla eurak; eztu harek (operak) Entzule-jendea eskuarki interesatu-azten duenik,

(12) Desarrollo.

(13) Maleakor (maleable).

(14) «Aipatutako Gizarteak —jarraitzen du Arotzena'k— erresumako eta erresumaz kanpoko lehendabizikoa izan zelarik, eragin ikaragarria izan zuen eta lehenengo momentutik goietsia izaten jakin zuen, zientzia gaiak muin-muifetik tratatzen ziren bilkurei eskerrak eta bilguma osoa eskuratzen oso zailla den bere «Extractos» delakoari eskerrak batez ere. Zuzen igorritako artikuluak onartzen zituen, baiñan bereizikiago Billeratan irakurritako jardungaiak. Beren izpirituagatik —aurrerakoa zienez, baiñan ifiola ere ez heterodoxua— kontra egillerik izan zuten. Julio Urkixokoak, Menéndez Pelayo'ri egindako erantzunean, gauzak bere tokian jarri zituen». (E. O.)

(15) Testuan : proyecto.

(16) Teatrugintza, teatrua.

(17) Gaur-egun oraindik etabaida dabil *El borracho burlado* euskal-antzegintzaren lehendabiziko saiaketa izan ote zen ala ez, zeren, obratxo bat aurkitu baita, 1762'an Azkoitia'n inprimatua, agertokiko lehenentasun hori azaldu behar zukeana. Artzain egloa bat da —hain ugariak aldi hartan, Frantzia'n baitipat— *laukotan* eta *sartziko erditan* (en *laukos* y *sartzikos medios*) osatua, Artzain koru batekin eta Tirsis'en eta Filis'en arteko alkar-hizketakin. Beronen egilletzat ere Peñaforida jotzen da. Obraren titulu osoa honela da: «Gabon-Sariac edo aurtengo gavonetan Azcoitico Eleiza Nagusian cantatuko diran GAVON-CANTAC EDO OTSALDIAC. Puernatus est nobis, venite adoremus. AZCOITIAN Misericordiam MD.CCLXII». Pedro Ignacio Barrutia'ren *Acto para la Nochebuena* deritzan euskal-auto laburraren aipamena ere egin dezagun, 1764 baiño lehenago izkiriatura eta zenbait bider editatua. Eztitugu ezagutzen, ordea, bere sortzearen eta aurkeztearen noiz-nolak (E. O.)

zeren amodioaren bixka falta baitzaio, hots, Teatru guzitan hain sarri darabilten eragingarria, denen begi-belarriak erakartzeko eta biltzeko» (18).

Halaxen da; kontagaia, kantuzkoak euskaraz izkiriaturik eta gaztelaniaz esanezkoak, Italia'ko *ópera buffa* delakoan usadiozkoa da —Pergolesi'rena baitipat bere *Serva padrona*'rekin—; gero, Frantzia'ra lurrez aldatu zen, eta hemen, Peñaforida gaztea Tolosa'n (Toulouse) baitzegoen aldi hartan humanidadeak estudiatzen, jeneru hontaz hezatu zen (19), Jean Jacobe Rousseau'ren *Le devin du village* (Hirixkako Aztia) aurkeztuz han. Jakiña den bezala, autore hau, Enziklopedia'ko bere lagunekin batean, eragin handikoa izan zen «Zalduntxo» baitan, kultura-eragiña soil-soilki, eta ez heterodokua, asmo txar nabarmenez batzuek aditzera eman zuten bezala. Eragin hau ere nabarmenago izan zen Manuel Inazio Altunako hirukidearen baitan, Ginebra'ko filosofaria beronekin bizi izan baitzen Venecia'n eta Paris'en eta *Aitortzak* bere liburu hotsandikoan gorapamen beroak egiten dizkio.

Etzen ezertxo ere jakin musikaz mende honen hastapenetaiño. Orduan, Gipuzkoa'ko Ahaldundegiak Bonaparte Printzearen alarguntseangandik eskuratutako paperei eskerrak, kanzoneta bat arkitu zen, Txanton Garrote'k —edariari emandako protagonista, tankera ahotan Cervantes'en Sancho Panza gogora dakarkiguna Barataria uhar-teko ibillera menturatsuan— hasiera ematen diolarik obrari. Baiñan, azterketak aintzina dihoaz eta uste izatekoa da, egunen batean, eta ez ahal da urrutikoa izanen, partitura oso-osoa ediren ahal izango dela (20).

(18) *Okarpen* honi *Nota* bat darraikio honela diona: “Ondotxo dakit badela komedia bat (edo, beharbada, opera komikua) frantsesez, ideiaz honen antzekoa; baiñan ozenki diot, eztudala ez ikusi, ez irakurri; areago, eztaikit segurantziaz titulua eta oraindik gutxiago haren egilea nor den”. Aitortzen digu ere gaztelaniara itzuli zuela beste opera komiku bat, *Le Maréchal Ferrant* izenekoa eta argi jartzen du beronetan: “Itzultzailearen partea besterik ez nuen, arikizum hontako trebetasun urriaren kritikapeko izatea bakarrik arriskatzen nuelarik”. Lerro hauek Peñaforida'ren kezka aditzera ematen dute, zeren, otezk plajio salaketa baten aintzinean, bere lan artedunarentzat zein iturritan edan duen jakin-erazten baitu. (E. O.)

(19) Testuan: se impregnó.

(20) Arestian beste aurkikuntza bat egin da. Persona batzuen esanez edo us-tez, *El borracho burlado*'ren partitura osoa da. Baiñan, bada xehetasun kezka-garriarik, alegia, lehenengo aldian, naturala den bezala, lehiatsu harrera egin zitzaion aurkikuntza ezteza konfirmatzen; aitzitik, haren jatortasunaren iritziak liferenteak dira eta baita alkarren kontrakoak ere. Denbora aintzina dihoa eta desakorduak zutik dirau: batzuentzat amarru bat da, nahaste zarpaíl bat; beste batzuentzat, berriz, idorotako paperok eta beroien baitako musika, *Kondeak* konposatu edo obrarentzat moldatu zituenak berberak dira. Guk, gure partez, derizkiogu ezteza inolako judiziorik egin behar eztabaidagarri diren dokumentuez, aurretikako az-

Aurkezpenak bi izan ziren eta Bergara'ko Udal-bilgoan (21) eman zituzten aipaturiko 1764'garren urtean, Iraillaren 12'an eta 14'an. Hara bildu zèn jendegiroa bereizia eta ugaria izan zen eta bai obrari eta bai antzegintzalariei abegi bero-beroa egin zitzaien. Bergara'ko Kontseilluko Errejistruan 94-121 v. Foliotan arkitzen dugun «leku-kotzak» (22) probatzen du. Beronetan, beste atestadu batzuen artean, ondorengo hau irakurtzen dugu: «Lehendabiziko antzegintza agerraldiaren aipuak, herri guzia astindu zuen ikusgarriaren sarrera eskabidea egitera, baiñan, ordenamendu onak eta jendetasunak (23) eskatzen zuen hobetsiak izan zitezela agerraldira etorri zirèn persona goituak. Bai ardietsi ere, bereiztasun-eskubidez sartuz bertan; eta piezaren edertasuna, Orkestaren hoskidetasun lilluragarria (24) eta hastapena eman zìon obertura bikaiña miretsita gero, agertokia zabaldu zen eta zapatari baten lantegia bixtaratu, bertan aurkeztua izan zedin *El borracho burlado* opera hau. Bere osotasun guzian Peñafiorida'ko Kondeak bakarrik antolatua eta musika jarria den obra orijinal hau, Hiriak publikuari ere eman dio zenbait aldiz. Honegatik, azalpen bat egin beharraren lantegi atsegiñaz libratzen naiz, baiñan enaiz ixilduko esan gabe jaun berberak txit egoki eta txit ongi aurkeztu zutela. Bere ideia jostagarriak, pentsamentuaren bitxitasunaren, gertakizunen jarraikeraren eta musikaren egokitasunaren ondoan, txit bereizia egiten du gogoia asebetarik uzten duen obra hau I...I Azken arrats hontan berriro jarri zuten *El borracho burlado* jaun antzegintzagille berberak, baiñan zazpi ahalak egin zituztelako edo gehiago ta gehiago gaillendu nahi izan zutelako ondar egun hontan, besteri azkenik disdiratsuen emanaz, ezin esan halako arimaren handitasuna eta egokitasuna erantxi zioten piezari, bai aurkez lanean eta bai kantu lanean. Hau dela-ta, aditzailleen gora-oihuak eta dehadarrak neurrigabeak izan ziren, jendeak itxutuki karraxi egiñaz».

Antzegintzalari nagusienak hoetxek izan ziren: Mari Joxepa Munibeko, Marianatxu Baltzolako, Peñafiorida'ko Kondea berbera, Felix Mari Samaniegoko, alegilari ospatsua, Peru Mugartegiko (Mairu Bizkaitarra —*Moro Vizcaino*— hotsandikoaren aurrekoa) eta beste bazkide eta lagun fundatzaille batzuek.

terpen xehe bat egiteke. Horretarako uste dugu aterabiderik onena izanen litzatekela, Kondeari berberari dagozkion paperetan bir-billatzea —parte handi bat Gipuzkoa'ko Ahaldungeko artxibutan dago eta korporaziño berberako "Fondo Julio de Urquijo" deritzanean— hauzi honi bukaera emanen dion erabaki zuzen bat hartu ahal izateko probak.

(21) Testuan: sala consistorial.

(22) Testuan: "testimonio".

(23) Testuan: el buen orden y la urbanidad.

(24) Testuan: la armonía maravillosa.

TARTE LUZE ETA ELKORRA (25)

Ehun eta hogeitabat urte lerratuko ziren *El borracho burlado*’ren sortzetik, jarraipenari sendotasun berria emanen zioten ekinaldi berriak sortu arte. Hiru zatitan bereiz daiteke kondaira honen garaldia (26): joan den mendeko azken hiru bostekoena (27); oraingoaren hamalau lehendabiziko urteak eta azkenik, bi Gerla handien (1918-1936) artekoa.

Saia gaitzen laburki azaltzen: *Pudente*, Serafin Baroja’ren —deitura berberako elaberrigille sonatuaren aita— letrarekin eta Josepe Antonio Santesteban’en musikarekin, sail honi hastapena eman zion lehendabiziko obra izan zen. 1885’ean estrenatu zen Gipuzkoa’ko hiriburuan eta —bolara hartan eta urrengoan eman ziren guziak bezala— kantuzaleak (28) interpretatua izan zen. *Iparraguirre*, Joane Gimón’ena, opera bat baiño gehiago da, rapsodia bat, musika-glosa bat lainoki (29) orkestatua, aipatutako koblariaren kantuz; hau ere Donostia’n aurkeztu zen 1889’garren urtean eta beronetaz —ezkara koblakariaz ari— ia ezta oroipenik gelditu. *La Navarraise*, Jules Massenet’ena (beste operen artean *Manon* ahomentsuaren egillea), Paris’ko Opera Komikuan aurkeztu zen lehendabiziko aldiz —eta uste dugu azkeneko aldiz ere— 1894’an. Azkeneko mendean gure lurraldea soildu zuten anaiarteko gudaldi-gertaeratan goi-argiturik, beronen musikari, ari den lurreko kutsua erantsi nahi eta eziñean, oroigarritxo español batzuek gelditzen zaizkio doi-doi (30). Ondoren, Paul Vidal’en *Guernica*; bestea baiño urtebete geroago eta Paris’ko agertoki berberan estrenatua izanik, Massenet bere lankidearen erresultadu berbera ardietsi zuen. Opera hontaz hiriko irizlari batek izkiri-riatzen zuen: «Le succès ou l’insuccès immédiat ne prove rien; mais il me faut reconnaître que *Guernica* n’a pas répondu, par sa valeur intrinsèque, à toutes l’espérances que maintes personnes avaient formées». Sailleko boskarrena *Txanton Piperrri* izan zen, Buenaventura Zapirain maixuarena, Toribio Alzaga’ren libretoan oinarriturik. Gipuzkoa’ko hiriburuko «Centro Católico»n aurkeztu zen 1896’an (31).

(25) Testuan: estéril. “Antzua” ere esan daiteke.

(26) Desarrollo.

(27) Testuan: lustro.

(28) Edo: kantatzaille afizionatuak.

(29) Testuan: sencillamente.

(30) Doi-doi, ozta-ozta, juxtu-juxtu.

(31) Mugaldi gogoangarria haxe 1896’koa euskal-musika edergintzaren urtekarian! Zeren, beronen Agorrillean (Abuztuan) ospatu baitzen Bilbao’n Erresumarteko Biltzar bat Erlejiñozko Musika eraberritzeko. Beronetan parte hartu zuten

Jokagaitzat, Oñaztarren eta Ganboatarren arteko zenbait anai-borroka higuin garri darabil. Ustekabeko gertaera bat egokitzen da adis-kidegarri: Arantzazu'ko Ama Birjiña'ren agerkundea Aloña'n. Naturaz goitiko gertakizun honek egillari abagunea eman zion, partiturari nolabaiteko bereiztasuna (32) ematen dion liturgia zaporezko motibu egoki eta dohatsu batzuek harrotzeko. Eta zikloari eta mendeari *Artzai-mutillak* ematen dio azken. Letra Pello Mari Otaño'rena dizu eta musika Félix Ortiz eta San Pelayo'rena. Herri-lurretik urruti ikusi zuen agerkizuna, alegia, Buenos Aires'ko Victoria antzokian (33).

Opera (?) hauen artean *Txanton Piperri*'k bakar-bakarrik lortu zuen itxurabateko arrakasta. Horietako batzuek teatru *pot-pourri* eran gaizki jositako herri kantuen musikagintza besterik etzirelako, beste batzuek (ez, ordea, aipatutako bi autore frantsesenak) eginkizun hortarako teknika egoki bat falta zutelako eta, azkenik, orduan hainbeste ahomen zuen italianismuaz kutsaturik zeudelako, batak eta besteak ezin zitezkean izan zirena baiño gehiago: oinatzik utzi gabe iragan ziren saio ahul batzuek. Aitortu behar dugu, halabaiña, aintzindari izan zituztèn musika-lankideen aldean —Gaztanbide, Eslaba, Zubiaurre, Arrieta eta bestetzuek—, jarraitzaileok ahalegin txalogarriak egin zituztela gure antzegintzari herritasun gehiagoko izaera emateko.

persona ziñez gailenak, hala nola Vicent d'Indy, orduan modernua zèn eskola frantseseko buruzagia; Charles Bordes, Paris'ko Schola Cantorum'go zuzendaria; Paul Vidal, musikagille ahomenezkoa eta lan hontan bere berri eman duguna, *Guernica* berak egindako operaren estrenua dela-ta Paris'en; Gailhard, Frantzia'ko hiriburuko *Grand Opera*'ren zuzendari; Planté, doai handiko pianu-jotzailea, aunitzez txalotua eusko-hiriburutako bilgoetan; Tebaldini, italiar ederlari goi-maillakoa, Padua'koa Antoniotarren Kaperako maixua eta geroago Parma'ko Musikategiko Zuzendaria; Peninsula'ko maixuak: Monasterio, Bretón, Zubiaurre, Santes-teban, Arin, Barrera, Tragó pianu-jotzailea eta, lehenengo tokian, nahiz-ta izen Jerrokadan azkena, Felipe Pedrell, Biltzarraren eratzaille, Eslaba'ren *Lyra Sacro-Hispana* lan txit handiaren jarraitzaile eta Madrilleko Isidorotiar Kaperaren fundatzaile. (E. O.)

(32) Testuan: variedad.

(33) Opera edo, hobeki esan, oso balio urriko zarzuela. Hala ere, beronen egilleak edo musika-biltzaileak etzuen naikoetsi Buenos Aires'ko euskalçun taldeak berari eta bere obrari, jakiña, familia giro batean, egin ziotèn harrera txeratsuz, eta kausa merezigarriago bati zegokion kemena irauliz, bere obra Colón Antzokian onartu eta aurkeztua izan arte borrokatu zuen, agertokirik ospatsuenetakoa baitzen mundu guzian. Aurkezpenaren biharamonean, iritzemaille batek, begi zorrotzeko burutapen batzuen ondoren, honela ematen zuen bere aburua: "Artzai-mutilla" ezta euskal-edergintzaren erakusle. Sinezkaitza da nola Colón Antzokiak tokia egin dion horrelako gauza tajugabe bati".

BIGARREN BOLARA

Obren kopurua zerbait handiagoa da eta baliatasunez, askoz, bai, askoz aberatsagoa. Esan daiteke, garai hau, euskal-lirikadun musika-gintza jatorra sortaraztera abiatua dela ezagupen osoz.

Lehenen tokian ezarri beharrekoak dira *Ramuntcho* Gabriel Pier-né'rena eta *Chiquito*, Jean Nogués'ena. Biak Paris'en estrenatu ziren, 1908'an lehenengoa eta 1909'an bigarrena. *Ramuntcho*, titulu berberako Pierre Loti'ren elaberrian goi-argiturik, Odéon antzokian eman zen, eta kritika-arrakasta on bat izan zuen melodrama-saio bat izan zen, baiñan publikuaren partez harrera hotza hobeto izan zuen (34). Nogués'en *Chiquito*'k, berriz, Opera Komikuan aurkeztu-rik, etzizun herriaren onezkorik iritxi.

Anboto edo *Anboto'ko dama* —hauxen izan baitzen bere jatorrian eraman zuen titulua Toribio Alzaga'ren poemak— elezahar trajiku baten eta historia franko folletin gixakoaren puska batzuek, lojika askorekin edo gutxirekin txandakatzen diren opera bat da. Erromantizismuaren drama negarkoi zorikabeenetan bezala, *Anboto*'ko agertokia torneu, hilketa, arrapakizun (35), sute eta akelarre gudaleku bihurtzen da, baiñan baita ere, kontraste gixa, *maitagarri* delakoan ballet irriabartu. Tankera batzutan, honek, Weber'en Oberon'go *elfoak* edo Wagner'en Parsifal'eko Klingsor'ko liliaratze aztipetutako (36) *neskatxa-loreak* gogoratzen ditu. Oro har, bilbe korapillotsu (37) bat, beharbada gehiegizkoa, Zapirain maixuaren esperientzia urriarentzat eta musika-tresneriarentzat (38). Halabaiña, eztira falta beronen partituran goi-argidun pasarteak eta eragingarri segurukoak: erromanzak, bikoak (39), serenatak, gerla-kantak eta koral batzuek —segalarienak bezala— melodia zaindunez jantziak eta egitura onekoak (40) eta *Txanton Piperrri* haren lehenagoko obra-

(34) Erresultadu honek ezkaitu harritu behar. Izan ere, Loti'ren elaberriak badizu, bidez leporatu zaizkion akats askoren artean, egia eta ederra paregabeki asmakizun darizkion zat: Gaxuxa'ren anaiak eta senargaiak egin zuten ahalegin alperrikakoan hau libratzeko, komentu batean barruratu zegoelarik. Kontakizunean *cre-scendo* ikaragarri batera irixten den asmamena, ezin zitekean agertokira eraman *diminuendo* akabagarri batean jausi gabe. Gertatu ere, halaxe gertatu zen. Honek probatzen du badirela zenbait obra, nahiz kontraerazkoak, nahiz agertokirakoak, be-ren jatorrizko forman errespetatuak izan behar dutenak. Birlandatzea, hots, lurrez aldatzea, akabatzea da, edo okerrago dena: lokaztea.

(35) Testuan: secuestros.

(36) Testuan: jardín encantado.

(37) Testuan: trama compleja.

(38) Testuan: bagaje musical.

(39) Testuan: dúos.

(40) Testuan: factura correcta.

ren aldean aurrera handi xamarra egiten duena. Euskal-operaren kondairan maiz gertatu izan den bezala, *Anboto* ezin izan zen estrenatu bere osotasunean. Lehendabiziko aurkezpena 1906'garren urtean egin zen ataletan emanik (41), Donostia'ko Teatro Circo zuelarik agertoki. Hiru urte geroago, 1909'an, Bilbao'ko Arriaga Antzokian eman ziren haren hiru egintza osoak eta publiko entelegetsu (42) harrek abegi beroa egin zion. 1955'garren urtean —eta oraingoan jardunlari ogibidezkoekin Erramun Usanditzaga maixua zuzendari zutelarik—, Donostia'ko Victoria Eugenia'n eman zen berriro eta hemen ere oso txalotua izan zen.

Urte hontan bertan, hots, 1909'an, estrenatu zen Bilbao'n *Maitena* pastoral lirikua, bi edelari hasi-berrirena: Estene (Etienne) Decept poeta eta Charles Colin musikagilea, biok Lapurdi'ko eskualdekoak jaiotzez. Egia esan, lehendabiziko asmoa zabalagoa zen: «eskualde hirukonde» (43) bat osa, gaiok atxemanen zituena: Lurralde, Herrialdea eta Kostaldea, beraien aurkezlarri beste hiru pertsonaia zirelarik: *Maitena*, *Amatchi* eta *Leyorian*. Hiru hoetan lehenengoak bakarrik eduki zuen egikunde zorionezkoa, zeren, bigarreneko prestaerak egiten hasi zirenean, 1914'ko gudatea heldu zen eta egin-asmoa baztertua gelditu (44). *Maitena*'ren estrenua —bere jardungai analojia batzuek dituelarik Mistral eta Goudnod'en *Mireille*'kin— fetxa gogoangarri baten markatzaille da euskal-antzegintzarren urtetan zehar. Artzain zaporeko bere libretuagatik, euskal-arrazako bere pertsonaien ezaugarri klaruagatik eta bereziki bere zain fresko eta garbiko musikagatik, esan daiteke *Maitena* osoki lortutako obra bat dela. Zalantzarik gabe, gaitasun hauekatik, Bidasoa'ko bi alderditan eta Madrillen bertan, teatrotan —nahiz itxitan, nahiz idekitan— aurkezpenik gehiena iritxi duen euskal-opera da.

Hau dela-ta, aldi hartako irizlari batek —Antxiko (Francisco) Gaskue— oso tajuzkoak deritzaizkigun oharpen batzuek egin zituen eta atsegin zaigu lerro hauetaratzeari: «Gero ta sinestuago nago, Bidasoa'z besteko gure anaien herri doinuen gehiagotasunaz, Españaldeko Euskalerrikoen aldean. Izan ere, han, orain aztertzea ez dago-kigun kausakatik, arraza askozaz garbiago gordetzen baita gurealdean baiño. Beharbada, musika dramatikurentzat ezta hain errez Lapurdi'n arkitzea, nola ohi den Gipuzkoa'n, esate baterako. Oстера,

(41) Testuan: en forma fragmentaria.

(42) Inteligente.

(43) Testuan: "trilogia regional".

(44) *Amatchi*'ren ordez, ber-autorek, konposiziño edo entretenigarri txipi bat *Semetchia* izenekoa (gerlako seme-pontekoa, besotakoa) prestatu zuten, Donibane Lohitzun'en zenbait aldiz aurkeztuz ongintza edo diru-biltze asmotan. (E. O.)

idilioarentzat, egiazko euskal-biziaren gaietarako, hango kantuak miresgarri dira. Buruan sarturik daukat, sormen txilbor nagusia (45) Bidasoa'ren ur-bazterrak direla, hots, ardatz bezala eusko-hibai atsegiña edukiz, beraren alde batera eta bestera 20 edo 35 kilometroko zabaleroa hartzen duen eskualdea, beronen itxas-ahotik Endarlata'raíño, edo hobeki Naparroat'ko Bera'raíño. Orkestaziñoa ados baldin ba'dator goi-argiarekin eta doiñu dibujuaren zentzu ederzalearekin, *Maitena*'k euskal-operaren teatruari hasiera emateko ohorea izanen du egiazki. *Maitena*'ren letra Lapurdi'ko euskalkian izkiriatua dago, zorionez, gure mintzairaren hots eztigarri, ezpaitu «j»ren zintzur-soiñu gogor eta garratzik, guretzat hain arrotz dena eta ene entzumenarentzat bereiziki txit desatsegin. Ezta munduan beste hizkuntzarik horrelako indarreko eta gogortasuneko eztarri-soiñurik daukanik. Halaber, ezta euskaran sartu z (1'), kanturako konsonante desegokia (46), zeren ahoa itxiz prolunziatzen baita presiski eta zorigaitzaren zorigaitzez, mihia (47) hortz-arteturik. Zergatik ez baztertu, bada, «j» euskal-kantuan eta «y» grekuaren hotsez aldatu? Oraintxen azaltzen zaigu abagune mugonezkoa *Maitena*'rekin; erakusgarri dakigula gure kantuaren eta gure bularreko hizkuntzaren onez».

Urrengo bi urtetan —1910-1911—, *Maitena*'k beste hiru obra izan zituen jarraitzaile: *Mirentxu*, Jesus Guridi'rena, *Lide ta Ixidor*, Santos Intxausti'rena eta *Mendi-Mendiyan*, Joxe Mari Usandizaga'rena.

Mirentxu, kanpañako idilio erromantikua, Alfredo Etxabe'rena letraz eta Jesus Guridi'rena musikaz, dei ozen (48) bat bezala da aldi hartako teatruaren musika panoraman. Protagonista, neskatxa euskaldunaren irudi garbia, xamur eta sentibera, amodioz hiltzen da, Pascoli'ren bertsoetako *Madonna* bezala, bizitzaren udaberrian. Partitura, asmakizunaren eta laburtasunaren eredu da eta euskal-kantategian goi-argiturik dago —hots, Birpizkunde M. Azkue'k (49) eta Aita Josantonio Donostiakoak beren billaketa zoriontsu eta haukeralanekin hainbeste aberastu zuten kantategi hortan—. Melankonia elejiatsu baten tratamendu ereskidetsuak (50), garazia egalari eta bare bat dizu, poemaren eztitasunarekin eta xamurtasunarekin txit ados datorrena.

(45) Testuan: principal centro de creación. (1') Badirudi gaztelarazko "z/c" hotsaz diharduela, alegia, *za, ce, ci, zo, zu*.

(46) Baldarra, traketsa, aldrebesa, moldakaitza. Testuan: inadecuada.

(47) Mihia, mingaiña.

(48) Testuan: hito sonoro.

(49) Resurrección María de Azkue.

(50) Testuan: tratamiento armónico.

Intxausti maixuaren *Lide ta Ixidor, féerie* (51) bat da, haur ipuin bat eta beronen jardungaiak Humperdinck'en musika-alegiak gogorazten dizkigu, Hänsel'ena eta Gretel'ena batez ere. Musika bakuna eta xaloa (52) da, agertokiko arikizunari dagokionez, doiñuz ezta baita eta txit herrigirokoa. Haurren dantzak eta koruak Belen'go estalpe aintzinean gantzadura bihotz-ukigarrizkoa (53) dute. *Lide ta Ixidor*'ek bere jardungaiagatik eta testu olerkitsuaren alegi-azalpenagatik (54) agertokiko arranditasun eta hedadura efekturik ameslarienak (55) onartzen ditu. Kabalgata txit disdiratsuaren desfilea, Errege-Aztiak (56) agertzen direlarik, beren jarraigo arranditsuarekin (57), ikusgarritasunez eta koloretasunez miresgarri da. Estrenuaren ondoren, obra hau bi egintzetara laburtua izan zen eta horrela ekintzak eta beronen ari-askatzeak (58) dotore irabazten dute doita-sunez eta laburtasunez (59).

Bilbao'ko bolaraldi gogoangarri hau osatzen du *Mendi-mendiyan* pastoral lirikuak, José Power'en liburu gaiñean Joxe Mari Usandizaga'k musika jarria. Herri-lirika oiñarri gaiñean ideiatua eta mamitua delarik eta teknika oso baten garaipenez zaindua eta bilbatua (60), egilleak —ogei urte doi-doi zituen gaztea— izakera zoritu (61) baten jabe zela erakutsi zuen, eta tankerako sortze-lanik bikaiñenak arrakastaz aintzina eramateko kapaz. Beragan, bere aurreko gehienetan ez bezala, orkesta ezta «laguntzaille» bat, baizik-eta, Beethoven'ek nahi zuen bezala, «pertonaiaria arikor bat». Lehendabiziko egin-tza, erakuspide panoramikazkoa eta soiñuzko pintzelkada handitan emana, kolorean eta ederrean miresgarri da; gero, arikizuna aurre-ratzen eta bilbatzen dihoan bezala, modulaziñoak orduan eta ugarriagoak dira, doiñu argi-illunari adierazpen dramatikua osatuaz. Musika-mintzaira hirurogei *leit-motiv* baiño gehiagoz ornitua dago eta zoragarriri islatzen (62) ditu pertsonaien izaerak eta barruan darabilzkiten griñak (63). Milla asmakizunen artean bat aditzera emate-

(51) Majia komedia.

(52) Testuan: sencilla y candorosa.

(53) Testuan: unción conmovedora.

(54) Testuan: afabulación.

(55) Testuan: los más ensoñados efectos de aparato y despliegue escénicos.

(56) Testuan: los Reyes Magos.

(57) Testuan: con su fastuoso séquito.

(58) Testuan: desarrollo.

(59) Testuan: ajuste y concisión.

(60) Testuan: tratada y desarrollada.

(61) Umatu, heldu.

(62) Testuan: refleja.

(63) Antxiko (Francisco) Gaskue'k, *Mendi-mendiyan*'en partiturari buruz, "liburuarentzat gehiegizkoa zela" zion, eta gaiñerutzen zuen: "Musika, jardungaiak

ko, horra otsoaren mutibu aztikerizkoa (ingeles «adar» bidez), gero, orobat goibel eta mehatxukor, Gaizto'ren gertagaia osagarri dator-kiolarik; baiñan, honek, arbuiatua izan dela ikusirik, Joxe Mari bere lehiakidea haizkorakada batez hiltzen du, orrua izugarri bat bezela orkestak aditzera emanik. Obra hau, txit deskriptibu diren elemen-tugatik, bere doiñu zabal eta soñukorragatik, bere orkestaziño bo-teretsuagatik, berealdiko lirika erpin bat dugu, bai eskualde barruan, bai kanpoan. Entzunaz, edo hobekiago oraindik, emeki-emeki azta-rrikatuz partitura, harriturik galdetu beharra dago noraiño helduko zen beronen egillea, Norakoak (64) beste hilkor askori haiñako bi-tizta luzea opa izan ba'lio.

Aldiune (65) hau ixtera datorkigu euskal-intelektualtasunaren irudi gidatzaille bat, hots, Birpizkunde Mari Azkueko, izkiriatzaille disdiratsua. *Ortzuri* bere opera, euskal-teatruaren mundu babesik ga-bean hain sarritakoak diren gora-beheragatik, etzen aurkeztu ekital-di bat baizik. Obra hau eta *Urlo* bere bizkia, autore berberarena, hala nola *Leidor*, Eduardo Mokoroa musikagille ahomentsuarena —honek ere ezpaitzuen aurkezturik ikusi ahal izan, agerraldi batzuek izan

behar eta eskatzen zuen baiño askoz mailla goragokoa da; irakurgai dramatikua-
rentzat musika egokiago da, artzain apal batzuen drama batentzako baiño". Oharpen
honi iritzi-gai derizkiot. Zalantzarik gabe, Usanditzaga'ren musika-komentariak,
puntu bat baiño gehiagotan, aberastasun disdiragarrikoak dira, baiñan arrazoitara
atera daiteke ere, Gaskue'ren tesisaren kontra, garai guzitako opera-baratzean maiz
arkitzen direla jende apalak ez-zezik, billauak (plebeyos) ere beren baitaratzen di-
tuztenak eta hala guziz ere, musikagillearen partetik orkestaren ardura koloretsu
bat eta instrumentaziño kementsu bat izan dute. Gogora dezagun eredutzat *Nu-
remberg'ko Maixu Kantariak*, parte hartzaille guziak Hans Sachs zapatariagandik
hasita, artesauak baitira. Gaskue'k azpimarkatzen duen oreka galtzearen arrazoi-
bidea kausa sakonagotan datza eta opera deritzan edergintza honen jatorrian dizu
sorterroa. Horra zerk dakarren tratadistek diotenez: oso zailla omen da eta sal-
buespen bat bezala, bi autorek —olerkaria eta musikaria— senti eta aditzera eman
ahal izatea gai bat modu berberaz, bai haren xehetasunetan eta bai haren hazkun-
tzan edo garaldian. Hortik, bien artean sortzen ziren istillu gorriak. Gluck'ek bere
txandako lankidearekin sortarazten zituen haiek bezala, ia elezahar kutsuko. *Or-
feo*'ren egilleak, nota bat bakarra iratzi baiño lehen, irakurtzen eta bir-irakurtzen
zuen libretua, ahots ozenez deklamatzan zuen, kantatzen zuen, oihukatzen zuen eta
gero, libretogillearen etsigarri, hitzak eta agerraldiak aldatzeari ekiten zion, poeta-
rentzat obra ez-ezagun bat bihurtu arte, baiñan txalotua eta agurtua ordundan'k
alkarren ondoren etorri diren belaualdi guziez. Nondora berriagotan, istilluok
ebitatu ahal izan dituzte autore batzuek beren sorkariei (a sus creaciones) kalte-
rik egiteke, zoriotsuki batzen jakin baitute libretogillearen eta musikagillearen
eginkizuna, obra hilleziñak konposatuz, hala nola, adibidez, Errikardo Wagner'enak.
Gure garaikoetan, Ildebrando Pizzatti, Italf'a'n, Felipe Pedrell, Españ'a'n, eta
"etxean" zillegi bekigu aipatzen Josepe Olaizola, guztiok bide berberaren jarrai-
tzaille izan baitira. (Egillearen oharra.)

(64) Destino. *Norako* = *para donde*'tik (Hau norako da?).

(65) Testuan: ciclo.

ezik konzierto eran, esaterako opera berberaren *Sorgin-ots* atal sinfonikua (66)—, zain daude, bidegabeki argitaratzeko dauden beste zenbait autoren sortze-lanak bezala, egunen batean egiazko zaletasunak eta agintariek —hauek berezikiberen laguntza guziaz eskein diezaien, euren osotasunean aditu ahal ditzagun.

HIRUGARREN ALDIA

Itxurakontra (67) bitxi bat dela-ta, lehenengo Mundu-Gerlaren bukaera, kultura alorretako aldi loretsu baten hastapenarekin bateratsu egokitu zen, zeren-eta 1918'ko urte horretantxe ospatu baitzen Oñiati'n (Oñate'n) Eusko-Ikaskuntza'ren lehenen biltzarra. Gertakari aginkor honi aupamena (68) eman zioten egintza askoren artean, aipa dezagun *Oleskari-zarra* operaren estrenua, letraz eta musikaz Josepe Olaizola'rena (69), gizon eta ederlari bezala irudi ahomentsu (70), eta bere azken-egunetan Euskalerrri'ko organu-jotzailleen eta musikagilleen arbaso. Luzea izan zen obra honen mamitzealdia, zeren, beronen egilleak, gehiagotasun lehia txalogarri batek eragiñik, ikuitze lanari behin eta berriz ekiten baitzion. Era honetan «musika azalpenekiko euskal-idilioa» —hauxe izan baitzen Oñiati'n estrenatu zenean egilleak eman zion lehenen adierazpidea— dramatismo zorrotzeko agerraldidun opera bihurtu da gure egunetan, horrengatik galtzen eztuelarik hain berea eta jatorra duen lirismoa. Hauxen baita *Oleskari-zarra*'ren ezaugarri berezia: arrazak argi ta garbi darion lirismoa. Egillearenak berberak, bere barru-barruko egunerokotik

(66) Opera honek bere mamitzealdian beste bi izenburu izan zituen: *Zera eta Sudun*. 1922'an zeharo eta erabat bukaturik gelditu zen. Harrezkeroz, haren zati askotsu, nahiz konzierto eran, nahiz aldakera sinfonikotan, eman izan dira zenbait lekutan: Tolosa'n 1935'ean, Bilbao'n 1942'an, Donostia'n 1950'ean eta, azkenik, Xabier Bello Portu maixuaren zuzendaritzapean eta *Escolania Felipe Gorriti*'ren eta bakar-kantari entzutetsuen lankidetzarekin, Iruñea'n, Bilbao'n eta Donostia'n. Zatikako entzunaldiok, behar den prestaerarik gabe aintzina eramanak askotan eta ekintzategi bereziak (entidades privadas) eskuzabalki emandako laguntzabidez baliaturik ia beti, erakuspide ederrik ematen dute zein bide neketsutatik ibilli behar duten euskal-musikagilleak, beren obrak —oiñazaren oiñazez landuakoak— publikuaren ezagumenera irixtera ardiesteko. Hogeitamar urtetan jardun zen jo ta ke "Don Eduardo" gizajoa, bere *Leidor*'en zati batzuek emanak izan zitezela irixteko —zati batzuek bakarrik— eta bere egunak bukatu behar izan zituen behin ere ikusi gabe egia bihurturik kreatzaille orenen nahikunde berezkoa: bere lotarau luzean eta lanen frutua aurkezturik ikustea. (E. O.)

(67) Testuan: paradoja.

(68) Testuan: realce.

(69) José de Olaizola edo Olaizola'tar Josefa izenez ezagutua. Badirudi "Olaizola" behar lukela izan.

(70) Testuan: egregia figura.

atereak dira, gai honi gagozkiola, ondorengo hitz argitzailleok: «Aman magalean (71) erne zen ene musika sentipena. Hor billatu behar da nere sortze-lan guziaren erroa (72). Ene ama, bertsolari familia-koa, hauen eragiñaz oso kutsatua, asko jarduten zen herri-kantutan, sentimentuzkotan batez ere. Horrela erne zen enebaitan etorriaren garra eta berorren frutu dira ene sortzen-lan aunitz, hala nola kantuenak, sinfonikuak eta dramatikuak». Guztihau sendoturik ikusiko dugu *Oleskari-zarra*'ren jardun-gaian, letran eta musikan, hiru joga-gaiok (73) alkartzean, espresio indar handiko batasun organiku bat osatzen baitute. Jardun-gaiak edo, hobeki esan, bere izenburuak (74) aditzera ematen duenagatik, badirudi Joxe Mari Iparraguirre'z diharduela, alegia, antonomasiar izen horrekin ezagutua izan zena aldi-berriko bertsolaritzaren munduan; baiñan, ezta horrela. Olaizola maixuaren koblakari zahar hau, *Gernika'ko Arbola*'ren egille izan zèn damu gabeko mundu-korritzailea ez bezala, nekazari ethezulo bat da, bere arbasoen egoitzan bizi dena, ondorenez jasotako tradizioari kultura eskeiñiz sorteri barrutian. Libretua goitasun etorria darion poema bat da, Donostia'ko Udaletxeak saritua, urtero beronen laguntzapean egiten zirèn lehiaketetan. Eta musikaz, berriz, esan dezakegu euskaltasunez jatorrenetakoa dela. Egilleak, kantusortako doiñuak direnetik armonizatu eta molderatu (75) beharrean, nahiago izan du irazan (76), norbere goi-argiari ateak zabaldurik, baiñan herriak mendez-mende sortzea eman dien doiñu-ezaugarri bereziak gogoan hartuz. Hizkuntza sinfonikua, bestalde, *leitmotivutako* sisteman oiñarriturik dago: ideia laburrak, «sentipen baten espresabide plastikuak», Wagner'ek esaten zuen bezala, eta musika-ekintza berbera osatzen dutelarik noiz-nahiko agerpenetan, metamorfosisetan eta gonbinaziñotan, txit burutsu eta adierazkor (77). Honela sorta-

(71) Alzoan.

(72) Sustraiia, jatorria, iturria, iturburua.

(73) Testuan: elementos.

(74) Titulo.

(75) Testuan: en lugar de armonizar o adaptar trasuntivamente melodias del cancionero.

(76) Crear.

(77) "Leitmotivuen" edo motibu gidatzaileen gai hau dela-ta, autorea berbera honela mintzatzen da: "Los temas musicales no tanto van sujetos a los "personales", es decir a la persona física que representa, sino a la persona moral, la que crea la acción misma, el asunto que se va desarrollando. Porque si cada obra requiere unidad, ha de entenderse lo que de pensamiento e intención lleva cada escena y por lo tanto la música debe amoldarse a ese pensamiento que les une a las escenas que se van sucediendo. De tal manera que yo puedo utilizar, no ya el tema propio del personaje, cuya acción no sólo está en conexión con el de otro, sino que es el resultado de esa misma acción que da pie a la otra escena. Así por medio del tema, uno las dos escenas que tienen el mismo fondo. Ejemplo: la es-

razitako eta lortutako obra batek, nahita-nahiez piztarazi behar, bai publiko ez-jakiñean eta bai eskolatuan edo landuan, interes izugarri bat eta, izan ere, halaxe izan zen. Iritzemaille batek, «obra baten balioa ederresten behin ere etzuela horrelako aburu-batasunik eza-gutu» deklaratu ondoren, honela laburtzen zuen bere juzgoa gai hon-tan: «Eztut esango egillea musikagille onena denik euskaldun musi-kagilletan, baiñan bai danen artean euskaldunena dela».

Milla bederatzirehun eta hogeia beste urtemuga señalatu bat da euskal-antzeztintza (78) lirikuaren kondairan, zeren, aipatutako urte-ko Maiatzaren 22'an, Bilbao'ko Coliseo Albia'n estrenatu baitzen Jesus Guridi'k egindako hiru ekitaldidun eta epilododun *Amaya* euskal-opera. Obra honen poema, titulu berberako Navarro-Villos-lada'ren elaberri ospatsutik aterea dizu Josepe Mari Arroitauregi'k eta Aita Arrue'k euskal-bertsotan emana. Gaia: Naparroa'ko Errege-tzaren eraikintza (79) aurretikako historia eta elezahar kutsuko jes-tak. Epikotasuna lirismorik sutsuenarekin nahasten den kontakizun honek, musikagilleari abagune ederrik eskeintzen zion bere iaotasu-na eta goi-argia harrotzeko eta, halafede, ongi jakin zuen baliatzen. Lehendabiziko ekitaldian, benetan azalpengarri (80), ikusgarritasun handiko eta pilpira (81) biziko gertaldiak somatzen ditugu. Señala ditzagun beroien artean Hilbeteko jaikizuna (82) eta protagonistak kantatzen duen kontakizun miresgarria, liraz lagundurik. Bigarren ekitaldian, Mikele zaharraren zati guzia, lirismu bihotz-ukigarri ba-tekoa da, hala nola Amaya'ren kantu xalooa (83) eta beronen eztei-bihotsekoa (84) Teodosio'rekin. Ezpata-dantza famatuak ixten du aurkezuntza (85). Hauxen bai dela ritmoa eta kolorea darion nota disdiratsua! Epiloguak, drama guzia trinkotzen eta gardentzen (86) duelarik, Teodosio Goñiko aurkezten digu, belaunikaturik, zurezko gurutze baten aintzinean, Aralar'ko sastraka artean. Bakartasun izu-

cena que más destaca en este aspecto, es la escena última del *Oleskari* en el primer acto, que es el mismo que utilizo para Oniatza en el "cuento". Y esto acontece con los temas de los tres más importantes personajes que son: Oleskari za-
 tra, Onintza e Ixidór". (E. O.) Olaizola jaunaren pasarte korapillotsu hau eztut ongi ulertzen, eta itzulpenean egiazko zentzuaren kontrako hutsegiterik egin baiño lehen, nahiago izan dut dagoenean utzi, gaztelaniaz. Irakurleak barkatuko ahal dit, baiñan uste dut hobe dela ez itzuli gaizki itzuli baiño. (I. O.)

(78) Teatro vasco (antz-egintza).

(79) Eraik(i)-gintza. Testuan: instauración.

(80) Testuan: ampliamente expositivo.

(81) Emoción.

(82) Testuan: rito del Plenilunio.

(83) Testuan: candorosa.

(84) Testuan: epitalámico dúo. "Bihotsekoa" = bi hotsekoa edo hots bikoa.

(85) Testuan: cuadro.

(86) Testuan: condensa y purifica.

gari hartan, penitentzigillearen irudiak goien-goieneko handitasun itxura hartzen du. «Fede-gaia»k, orkestak ekintsuki (87) eta zenbait doiñu-neurritan kantatuz behin eta berriz, azkenerako miraria leher-tarazten du; penitentzigillearen kateak, Jaundone Mikele'ren ezpata su-jariozkoaren bitartez, puskaturik erortzen dira haren oiñetan. Deskorapillatze (88) bat da, izpiritu eta gizatasun balioz aurkikunde ezin gehiagozkoa. Hirugarren ekitaldiko pasadizu gudakoien eta gu-raso hilketa bikoitzaren ondoren, horri maixukoi hau kristau itxaro-penaren erraiñu (89) argitsu bat bezala da. Orkestaziñoak, gai-formu-laz Wagnertiar tipikotasunari lotzen zaiolarik, espresiño handiko koloretasun bat ematen dio kuadruari. Deklamaziño lirikuari edo *sprech-mé-lodie* eta *cantabile*'ren arteko batasunak, pilpira sarkorre-naren gaillurra jotzen du Epilogo hontan. Leiñu goitiko ederlari zel-arik (90), Guridi, autore sagaratuen Olimpoan sartu zen obra hone-kin. *Amaya*'ren aurkezpenek, Peninsula'n mende hontan oraindaiño ezagutu diren teatru-arrakastarik handienetako bat lortu zuten eta hontaz gaiñera bilbotarrei abagune bikain bat eskeintzeko doaia izan zuten, beren eskuzabaltasun ezaguna erakus zezaten. Asmo honekin «*Amaya*'ren aldeko batzorde» bat osatu zuten, obra honen antola-menduak eskatzen zuen presupostu guziaren kargu egin zena: deko-raziñoak, jaztegia, *attrezzo* derizatena, partitura kopiak, bakar-kan-tarien eta Barzelona'ko «Orquesta Sinfónica»ren kontratapena, La-mothe de Grignon beronen zuzendaria buru zuelarik. Bestalde, Pro-bintzi-Ahaldundegiak (91) lan bikain honi buru eman zion, bi hiz-kuntzatan egindako *Amaya*'ren partitura osoaren ediziño zoragarri bat beregain hartuz. Publikuak, ikuskizunera multzoka (92) joanik eta bere txaloak eskeiñiz, operaren meritua onetsita gero, aipatutako Batzordeak, Gernika'n ospatu zèn Eusko-Ikaskuntzen eratzailleekin, *Amaya*'ren bi aurkezpen gehiago prestatu zituen kanpogiroan (93), hiri historikuaren aintzinean dagoen Uarka'ko zelaian. Iñoiz gutxi-tan, ikusgarri batek, nahi den erakoa izan dadiela, lortu du Eus-kalerrian halako jendearen emanik (94).

(87) Testuan : insistentemente.

(88) Deslokarritze. Testuan : desenlace.

(89) Izpi = rayo.

(90) Artista de alto linaje.

(91) Diputación Provincial.

(92) En masa.

(93) Testuan : al aire libre.

(94) Geroago, *Amaya*, Madrilleko "Real"en aurkeztua izan zen eta ondoren Iruñea'n, Gastehiz'en, Donostia'n eta Praga'n ez-ezik, Buenos Aires'ko Colón antzokian. Argentina'ko hiriburuan gogo-sutsuzko eta esku-zabaltasunezko herri-iritzi berbera berritu zen hango euskaldun jendeen artean eta, Bilbao'n bezala, Batzorde bat osatu zen; beronetan, jaiotzez edo jatorriz Euskalerrri'koak zirén

Perkain, Jean Poueigh'en drama lirikua, Bordele'n aurkeztua izan zen 1931'garren urtean eta geroago, zenbait pasartetan zuzendurik eta berriturik, Paris'ko Opera Handiko bilgumari erantxirik gelditu zen. Jardungaiak, B. P. Gheusi'k aterea Piarres Harizpe'ren izen bereko elezaharretik, pilotari bat dauka protagonistatzat behin bat gehiago: *Perkain le Basque*. Poueigh'en partitura, arkeologari baten, eskolatu baten (95) eta ederlari baten obra da. Eusko-motibuak nagusitzen zaizkiolarik ere, baditu, halabaiña, beste batzuek, gutxiago noski, katalan errokoak eta Pirineo-Garaikoak, eta baita ere espainiar dantza sail bat. Hitz batean, Aita Donostia'k dion bezala, «eztago ezer bertan euskaradunik, baiñan bai euskodunik». Hau dela-ta, bigarrena izanen litzateke Pirineo kutsuko opera-ballet bat bezala sailkatzea (96). Pasadizu egiati batzuek, Itsasu'ko sakristauaren tormentua, esate baterako —jardungai Frantzia'ko Iraultzari jarraitu zion Ikaraldian gertatzen baita—, kolore ospel (97) eta gordiñez jabetzen dute agerraldia. Beste batzuetan berriz, haren agerraldiak liris-moz kutsatutako polifonia zoragarri batez komentaturik daude. Gaxuxa'ren eta Perkain arteko amodiozko duo-horrialdea, egitura orbangabekoa (98) da eta poesia xamurra eta guria dariona. Aurkezpenen arrakasta handiari, beste lankide gailen batek lagundu zion, alegia, Ramiro Arrue pintatzaile Bilbotarrak, bere figurin eta dekoratu bikaiñekin. Iritzemaille Paristar batek honela zion berioez: «On ne saurait imaginer présentation scénique plus charmante et plus heureuse. Le deuxième acte, en particulier, où la nuit de Saint Jean est fêtée par un déploiement de costumes d'une originalité et d'une magnificence admirables, compta parmi les meilleurs réussites décoratives de ces dernières années» (99).

Yuana, drama lirikua hiru ekitalditan emanik, euskal-antzegetzaren aldiune edo ziklo hontako azkeneko obra da. E. Pouydebat'en *Une fille d'Euskadi* elaberrian goi-argiturik dago eta Jean Lemarque olerkariak izkiriaturako libretoaren gaiñean, Laurent Bossières'ek,

↳ pertsona garaien artean, Hipólito Hirigoien erresuma-lehendakaria eta Horazio Oihanarte Atzerri Har-eman ministroa agertzen ziren. *Espata-dantza* ospatsua, txaloaren txaloaz, errepetitu egin behar izan zuten dantzari gudariek, araubidea —erregelamentua— autsiz. Txalogillerik beroenetako bat, Errepublikako lehendakari zaharra izan zen. (E. O.)

(95) Testuan: de un erudito.

(96) Testuan: clasificarla.

(97) Goibel. Testuan: sombría.

(98) Testuan: de factura impecable.

(99) Euskaraz: "Gaitz litzateke bururatzen agerraldi aurkezkunde xarmantagorik eta urusagorik. Bigarren egintza, bereiziki, Doniane arratsa, alegia, orijinaltasun eta bikaintasun miragarritzko soñeko ugaritasun batez ospatua delarik, azken urte hauetako dekoraziño gainjotzerik onenen artean sar daiteke".

lehenengo horrialdetik ondarreraíño arrazaren arimak dardara, kantua eta negarra darion partitura bat egin zuen. Baiona'ko Udal-Antzokian estrenatu zen 1938'an eta gero eskualdeko zenbait agertokitan aurkeztu zen. Protagonistak, emazteki batek bezala maitatuz eta saildu bat bezala hiltzen delarik, giza-gríñak eta erlejiño-gorakundea (100) bilgo eztitsu batean urtzen diren musika bat bururatu dio Baiona'ko konpositoreari. Beronetan amodio berberaz xaretzen da folklore musikarekiko joera eta forma liturjiku zaharraren erabilkizun neurritsua. Bossières'ek, Baiona'ko Schola Cantorum'en fundatzaileak, agertoki-musikari eman zitzaioarik, badirudi bere egiten duela Glinka bere musikakide errusitarren esakizuna: «Konposatu, herriak egiten du; gure egikizuna babeskotzat hartzea eta moldertzea (101) da». Eta horixe da, hain zuzen ere, *Yuana*: emazteki bat, ederlari handi batek molderatutako eta babeskotzat hartutako musika herrikoi batenbitartez, bere aldi joanari eta bizitza hobe baten itxaropenezko giristino-fedeari amodiozko kantutan ari zaiona.

GARAI BERRI BATEN ARGU-URRATZEA

Bigarren Mundu-Gudateak beste antzutasun tarte luze bat sortarazi zuen euskal-musikaren edergintza alorrean (102). Tarte hau, gure intelektuaren arteko bi pertsonaia disdiratsuen talentuari eta iraukortasunari eskerrak —Manuel Lekuona apaiz jauna, Euskalzaingoren buruzagi (103) eta Antxiko (Francisco) Escudero maixua, Donostia'ko Musika-Ereintzategiko (104) zuzendari—, itxia gelditu da, zorionez, egintza berri eta meritutsu baten kreaziño bidez. Lau ekitaldiko *Zigor* operaz ari gara, lehenengo konzierto eran eta gero agertokiko pentsa-moldez zeharo, Madrillen aurkeztu baitzen 1967'ko Urriaren 4'an eta 8'an (105). Jardungai Arturo Campión'en *Nabarra en su vida histórica* obra erraldoiaren pasadizu batean oiñarritzen

(100) Testuan: elevación religiosa.

(101) Egokitzea, apaillatzea, antolatzea, aiutzea. Testuan: adoptar y adaptar.

(102) Testuan: en el campo del arte musical vasco.

(103) Testuan: presidente de la Academia de la Lengua. Ordutik ona Euskalzaingoa buruzagiz aldatu du, orain Villasante baita. Irakurleak igarriko zionez, "Euskaltzaindia" izen ofiziala ezut onartzen. (I. O.)

(104) Edo: "Musika-Mintegiko". Testuan: Conservatorio de Música.

(105) Behin bat gehiago Bilbotar zaldun-talde baten eskuzabaltasuna bixtan gelditu da beren diru-parteia ezarriz, Peninsulako zenbait hiriburutan *Zigor*'en entzunaldi soil (escuetas) batzuek ematea ardiesteko eta gero, goian seíñalatutako fetxan, aurkezpe oso-osoa Madrillen. Itxoin dezagun, tradiziño on hori jarraituz, zaldun horiek beren Mecenaz-lan noblean jarrai dezatela eta ez *Zigor*'i dagokionean bakarrik; baita artxibu illunetan atera zain dauden beste guzien alde ere, han baitatzate teatruko aintzinargi bizikor eta lilluratzailleak noiz ikusiko. (E. O.)

da. Pasadizu hau Josepe Zinkunegi'k (106) aldatu zuen libretoa eta aipatutako bi autorek birlandu gero euskaraz eta gaztelaniaz. Tankera guzitako gora-beheretan aberatsa den jardungai bat darabil, pertsonaia historikoak eta irudimenezkoak nahasiz eta Naparroa'ko lehendabiziko errege bezala agertzen zaigun Antso Garzeitz'en korozte-egintza omentsuan baillurra jotzen du. Eskudero maixuak gogoe-ta eta ekintza batasuna tajutzen jakin du, hauxen baita obraren gidari ari den jarduera. Haren partitura, musikagilleak berak jakin ezazten duenez, jatorrizko folklorea osatzen duten jokagailluen (107) muiña da. baiñan forma abstraktu batean aplikatuz, ritmuak, hotsezti jira-birak (108) eta bere egitura hoskideak (109) adierazpen ahalmen handiagoa atxeman dezaten. Egitura hontan, soñu-jokoen erabilkizunearn maixu iaio baten eskua nabari da, zer egiten duen dakien ederlari batena eta orkesta-paletak harentzat ixilpekorik eztena; hitz batean, orkestaziño sendo bat baiñan astuntasunik gabe, ongi lokarritua baiñan illuntasunik gabe. Jakintza honen jabe delarik, egilleak berrikizunik ausartenak onartzen ditu. Berrikizunok, ordea, entzuleari nahasmenik gabe (110) irixten zaizkio, tradiziñoz jasotako akorderik onguztidunena (111) izango bailitzan. «Tonutasun edo tonugabetasun libertadea —ohar-erazten digu J. L. Urreta'k musikagintza zehar huts-gabeki ari da eta iaioki estrukturatua dagoen beronen hots tira-birak (112), obra guztia, aintzinetik ondarrera, arnasaldi batean iragan-azten du». Koruak, grekoen trajedian bezalako eginkizun testigatzaillea eta aholkatzaillea duelarik hemen, zenbait aldiz parte hartzen du, pertsonaien jarduera komentatuz edo argibidetuz. Berriz diogu: Hedadura handiko (113) obra hauxe, eder-gaitasunduna zalantzarik gabe eta beharreko baldintza guziak dituen zuzenez eta ohorez agertzeko —*Amaya, Mendi-Mendiyan, Perkain, Mirentxu, Oleskari zarra, Leidor, Yuana* eta beste gutxi batzuekin— opera unibersalaren bilgoan (114).

OBRA BUKATU GABEAK ETA ARGITARA GABEAK

Azaldutakoarekin, ene antzegintza lirikoaren kontatera laburtua

-
- (106) Firmaz: Zinkunegi'tar Joseba.
 - (107) Testuan: de los elementos.
 - (108) Testuan: giros melódicos.
 - (109) Testuan: construcción armónica.
 - (110) Testuan: sin complicaciones.
 - (111) El acorde más perfecto.
 - (112) Testuan: tensión sonora.
 - (113) Testuan: vastas proporciones.
 - (114) Soroan, alorrear.

bukatutzat jo beharra nuke. Baiñan, badago alboan beste obrarik, beren tituluakatik edo bigarren maillako elementu batzuketatik, erre-suma-bilgoan sartuak izatea pretendi lezaketenik. Esate baterako, *Ledia*, Balentin Zubiaurreko'rena, Madrilleko «Real»en estrenatua 1897'an; beronen jardungaiak, musikak baiño gehiago, sorterri origarri batzuek ditu. *Arrantzalearen alaba* (*La hija del pescador*) eta *Marcia*, biak Kleto Zabalako'renak, Meyerbeer'en eragin nabarmena ezagun duena musikan; *Isasondo*, Santos Intxaustiko'rena; *Die Bas-kische Venus* (*Venus Euskalduna*), Hermann Hans Wetzler'ena, Próspero Merimée'n elaberri batean goi-argitutako opera eta tituluz aparte, euskalduntasunaz egintza-tokia besterik eztuena, Frantzialdeko eusko-kosta, eta herri-zapore nahitasunezko ritmoren bat.

Obra argitaragabeak edo erdi argitara gabeak berriz, ugari xamar dira. *Maitena*, *Mirentxu* eta *Mendi-Mendiyan* delakoen estreñoek piztarazi zuten lorealdiaz geroztik, sortze-lan sukarra eskualdeko organista eta banda-zuzendari gehienez jabetu zen, eta horietarik askok operak izkiriatzeari ekin zioten ausarki. Nik horietako zenbait ezagutu nuen eta udaratako arkitzealdi bakoitzean, ernetzen ari ziren beren sortze-lanen entzunaldirik eskeintzen zidaten. Ernealdian zegoen *Lorea*, Josepe Mari Ajesta'rena («Luxemendi»); beronen tenore *particella*'rik gehiena gordetzen dut, beste zati batzuekin batean. *Udala*, Saintz Basabeko'rena; *Les Trois Vagues* (*Hiru Olatuak*), Charles Bordes'ena, bere heriotzak bukatzeke utzi zuena, eta halaber beste opera batzuek aipuko autoreenak, Santos Laspiur, Bernat Gabiola eta abar bezala.

Esan beharrik ezta, laburpen honek —idorra ezinbestean— ez-tuela irristsik (115) zehatza eta osoa izateko. Fetxa hutsegiterik asko eta ez-aipatze franko leporatu ahal izanen zaizkit, noski. Hutsune hauek ez daitezela interpreta ahazte bezala. Denbora berriek perme-ti diezagutenean gudu-zelaira bihurtzera eta antzegintza lirikuarien berrikizunari eta sormenari (116) gure ahalegin partea eskeintzea, orduan izanen da une egokia musika emankizun sailla osatzeko Eus-kalerrian. Gure guraria (117) ba belaualdi gazteak presta daitezela egikizun zoriontsu hau burutu ahal izateko.

AZKEN GOGOANKIZUNAK (118)

Orain artean izkiriaturakoa bir-irakurritz, bildur bat. zalantza bat

(115) Ambición, pretensión.

(106) Creación.

(107) Nahikundea (deseo).

(118) Consideraciones. "Gogoangarri" bezala osatua.

pizten zait, alegia, gorespenari ixurpide handiegia eman diodala agian. Horretxegatik gerta daiteke, irakurleak optimista bihurri eta zuzenezin bat naizen ustea har dezala, euskal-operaz hitz egitean, Cándido (119) berri bat bailitzan, edergintzaren mundurik ederrenean bizi dela derizkiona. Zorigaitzez ezta horrela. Aixa ikusten baitut, komentatutako sortze-lanen urtearen artean metal kaxkarraren zaiñak arkitzen direla. Baiñan, galde daiteke: epaikari urrikalgaitzen (120) postura zorrotza hartuta, gure gaurko eta geroko obrak hobeak izatea ardietsiko ahal dugu? Eztut uste. Kritikak, ene sentipenaren arabera, justiziak bezala, onberatasun neurritsu bateruntz ixuri behar du. Egia eta hutsegite ukaeziñak ezkutatu gabe, kritika horrek beti saiatu behar du asmakizunak gorapatzen, ederlariaren lan kreatzaileari arnas emateko eran. Maixurik handienak eta adimen-erraldoiak (121), urte luzeak erabilli izan dituzte batzutan beren obrak ikuitzen eta hobetzen. Beethoven'ek hiru aldiz bir-egin zuen bere *Fidelio* eta Verdi'k bost aldiz bir-galdu (122) zuen bere *Don Carlos*. Zer harrigarririk du, bada, gure musikagilleak —gehienok opera bat besterik iratzi ez tutelarik— hutsetan eta akatsetan erori baldin ba'dira? Inporta dena, diot berriz ere, beren asmakizunak aditzera ematea da, beren egiñahalak nabaituarazi eta suspertuazi, sagarakizunera (123) eta ospera daraman bide-txigor gogorretik aurreratzen etsi ez dezaten. Jainkotasun honek hain urri eta batzuetan hain bidegabe zabaltzen baititu bere dohaiak! Goza gaitzen, bai, beste jatorritako edergintzez, baiñan eztezagun gurea arbuia, gure egiazko nortasunaren erakuspena baita. Gure ekintzategi ederzaleen (124) programetan —bitez koroak, orkestak edo antzegintzak— ez daitezela inoiz falta, hain sarri babesik gabe gelditu diren gure ederlarien adierazpideak (125). Kultura-aurrerapenaren aintzinean dihoazen erresumen erakuspidea jarrai dezagun —Alemania, Frantzia, Italia eta beste— eta dakusagun nolako lehiaz adoretzen eta babesen duten beren adimen-jarioaren adierazpide den oro eta beren sorterri mugetatik kanpora arguillutsu zabaltzen izpiritu-mandatutzat

(119) "Diccionario Hispánico Universal"ek (II Tom.), honela dio "Cándido" hitzaz: "Lit. Personaje principal de la novela de Voltaire *Cándido o el optimismo*, en la cual se hace mofa de la máxima de Leibniz *Todo es inmejorable en el mejor de los mundos posibles*. Euskaraz: *Kandido edo optimismua*, Voltaire'n elaberriko pertsonaia nagusia. Beronetan burla egiten da Leibniz'en zuhur-hitz hontaz: *Dena da ezin hobetugarri izan daitezken mandutatik onenean*. (I. O.)

(120) Kupigaitza. Testuan: jueces inexorables.

(121) Testuan: genios.

(122) Testuan: refundió.

(123) Testuan: a la consagración.

(124) Testuan: entidades artísticas.

(125) Mintzabide, espresabide. Testuan: expresiones.

dutena. Aipatutako herrialdetan, edergintza-adierazpenak, elementu laguntzailleak bezala konsideraturik daude, hazkuntza herrikoia ren urgazle (126), alegia. Adibide bat besterik ez aipatzeko, hor dugu Paris, sei antzoki laguntzapedu (127) bere baitan dituelarik, arte-kultura tankerako beste zenbait ekintzategi gogoan hartu gabe. Eta Suiza'n, eta Belgika'n, eta Austria'n eta, baitipat, Alemania'n, Eskandinabia'ko herrialdeak aparte utzirik, hirixka txipiak ere badituzte beren erakundeak (128), udalarenak eta bereziak (129) ere bai, fin-tasunezko eta gogo-altxakundezko (130) hazkuntza egikizun berberan dihardutenak. Beroien estudioa suspergarri izan dakiguke, eta baita ere arnas-emaille eta erakuspide osasuntsu.

Donostia'n, Uztaillak 30, 1974.

(126) Testuan: coadyuvantes de la educación popular.

(127) Teatros subvencionados.

(128) Testuan: organismos.

(129) Testuan: municipales y particulares.

(130) Testuan: de elevación espiritual.

ITZULTZAILLEAREN OHARRA: "EGAN" aldizkari hontan, 1973'ko 1-6 zenbakian, 24'garren horrialdean, Isidoro Fagoaga jaunaren "Psikolojia alorrean pizkunde aintzindari: Huarte Donibane"ko" deritzan irazlanean, hutsegite larri bat eta txipi bat bederen lerratu zaizkigula konturatu gara. 28'gn. horrialdean, azpi-markaturik edo bastardillan dihoan hitz-zerrenda hau gelditu zen jarri gabe: "Pizkundearen eta Eraberritzearen mendea —eraxten dugu guk—, gizon handietan oparoena *isan sen*, gure Huarte bezalaxe, usterik *gutxieneko girotan sortu baitzi-ren*: *Tomas Moro*, *Eneko Loiolako*, Erasmo Rotterdango...".

29'gn. horrialdean: (Cervantes'en argiturri handi bat: Huarte Donibaneko dok-torea eta haren Adimenen *Asterketa*), behar du izan eta inprimaturik *Asterketan* agertzen da. Beste hutsegiterik itzuli baldin ba'zaigu, irakurleak barkatuko ahal digu hauekin batean.

HAURREN ETA GAZTETXOEN PSYKOLOGIAZ

Haur hezitzeak ez du esan nahi haur bat, halako edo holako klasifikazio edo kathegoria batetan, itxura berdintsuenerat hel eraztea denik. Haur hezitzaile izan behar dugu, noski, bainan haur bakoitza gure heztaile dela ahaztu gabe, ordea. Haur bakoitzak nortasun berezia duela gogoan hartuz.

Egun, 11, 12, 13, 14 eta 15 urteko gaztetzoen gorabehera batzuetaz mintza nahi nuke.

Haurrek adinka izaiten dituzten bereztasun batzuez, baina gaitetik 3 edo 4 bereztasunaz.

1. Adinka, 11, 12, 13, 14, 15. Haur hoiek izaten dituzten aktibitate edo *ekintzez*.

2. 'Centros de interes' edo berei gustatzen zaizkien gauzez.

3. Afektibitate, emozioak edo bihotz-zarraskadak.

4. Gizarte batetan bizi denez, haurra edo gaztea, *besteei* edo *taldeari* begira.

Honela, begiraleentzat konkretoago, zehatzago izanen dela iduritzen zaigu.

11 URTEKO HAURRA

—Beren ekintza

✓ —'centros de interes' delakoak

—azkenengoz, besteekin izaiten dituen harremanak.

10 urteko haur xarmangarria, maitagarria aldatzen hasten da. Indar berriak etortzen zaizkio, kezka berriak ere bai sortzen. Aldaketa hauek bere jokabidea aldatu egiten dute, berritzen. Norki edo pertsona handiei begira jartzen da. Batek lehenago, besteak geroxeago, haur gauzak edo haurkeriak burruka gogor baten bidez baztatu nahi ditu. Gaztetasunaren atarrira, atarrira, heltzen ari da.

Ezin egona bihurzen da, berriz, 6 urtekoa bezala. Aspergarria, bihurria, nahasia, humorez aldakorra. Soinez ere berritzen ari da.

Errezago nekatzen da. Udalekuetan etxean baino hobekiago portatzen da. Mutilak neskekin harreman gutti du oraindik. Neska gehienek ez dute mutilekin ezertxo ere nahi. Astotxo edo zerritxo batzuk direla diote neskek. Jolasteko, neskekin neskek eta mutilekin mutilek nahiago dute. Soin aldetik, mutila (batzuek behintzat) mutil gaztearen itxura hartzen hasia da; sexualitate aldetik, abereen eta animalien bizimoduak eta relazioek asko interesatzen du 11 urteko mutila eta neska. Baina ezin dute onhartu gizon eta emakumeen artean holako harremanik. Zinkinkeria edo txarkeria iduritzen zaizkio.

Neska batzuek odogaltzea ezagutzen dute edo entzun behintzat. Batzuek beldurtu egiten dira eta gauza hauetan begiraleak erne egon behar du, gauzak argitze arren gaztetxoaren sentimenduak behartu gabe eta zauritu gabe.

Mutilak, batzuek, mihi zikin (mihingain zikin) eta «taktoz» edo edukazioz motzak. Txiste gordinak erraz botatzen ditu. Soinez atzeratuagoak eta gordinenak berdin. Haur zail samarrak, ikusten dizuen bezala.

EKINTZAK (M = mutilak; N = neskak)

—Kokkzio edo bildumak egitea laket zaio. Margoak, harri, nahas-mahas (rompecabezas); jokuak ere bai. Besteekin bere gauzak trukitzea ere gustatzen zaio.

Txabola egitea ere bai, bere xoko berezi bezala, baina lastersko aspertzen da. Gertakari eta abenturak oso maite ditu, gainera hobekiago arrazoitzen ditu. Isilkari edo «misiones secretas» eta zelatari edo espion gorabeherak oso ditu maite (M).

Bere araudi (reglamento) berezia talde barruan sortzea ere bai. Zaldiz ibiltzea (N) Kirolak:

—futbola (M)

—olympia jokuak (M-N) aldaketa batzuekin neskeentzako. Adibidez, botoi-joste, margotze...

—igari egitea (M-N)

—izadia, oihanak (M)

—zuhaitza gora, txabola, goian ibiltzea (M) (arretaz)

—abereak (M-N)

—txingoak (N)

—soka saltoak (N)

—dantza folk (N-M?)

—camping (M-N?)

Joku eta jolasetan neskek neskekin nahiago du eta mutilak mu-

tilekin. Adin hontan, batzuek asko irakurtzen dute, beste batzuek, aldiz, gutti edo ezer ez.

—ipuin samurrak edo sentimentalak (N)

—oesteko abenturak edo poliziajokuak (M)

—zinea; marrazki mugikorak, Oeste (behizainak) (M)

—eskulanak, nahas-mahas, bildumak, joste, trentza, margotze, marrazki; trentzak erabiltzea (haizkorak, haizturak —gurai-zak—, labana, makil...)

EMOZIOEAK - BIHOTZ ZARRASKADAK

11 urteko haurra erantzunkorra, bihurria, gogorra, berekoa, dela diote. Maitagarria, ernea, jatorra, irekia, zentzunduna eta funtsezkoa, ganoraduna.

Aldakor samarra dela esan dugu arestian eta etxetik urrun hobeto jokatzen edo portatzen dela ere bai.

Hitz larriak ere beti mihi puntan ditu eta gainera mendekatzen (bengatzen) da eta kopeta zimurtuta, nondik nola ordaina itzul asmatzen.

Bestalde, beldurti samar bihurtzen da. Suge, euli beltz, zomorro, behi eta apo beltz handiek beldurtu egiten dute. Bai eta gauak ere, ilunak alegia. Eta bakarrik baldin bada, gehiago oraindik (N) batezere. Beldur horiek garaitzean, pozik agertzen du bere ausardia.

Humore aldakorra du. Laket zaio besteei ilea hartze edo adarra jotzea eta besteaz trufatzea, baina berari farre egitea batere ez. Txiste larri samarrak esaten ditu (M).

Afektibitate aldetik, 11 urteko haurra pozik bizi da gehienetan. Joku eta jolasak ongi antolatzen baldin bazaizkio, pozik iharduten du. (Udalekuko begiraleekiko duen maitasuna jakin nahi baduzue, argazkia atera eta tomate ustelak bota erazi, laster jakinen duzute, bakoitzarentzat duten atxikimenduaren berri.) Negar erraz samar egiten du (10tik 16 ra bitartean negar egiten den urtea) haserritzen denean.

Bere buruaren maitakeria (amor propio) handiagoa du eta inbiri edo bekaitza handiagoa ohi du (ondasunak eduki nahia).

Oso handinahiak eta handiputzak dira. Harroa. Aiherkorra edo mengatiboa da.

HARREMANAK

Adin hontan bere burua, kanpotik eta barrundik, ezagutzen eta azterkatzen oso lanpetua dago, baina besteekin nehurtuaz, batezere

persona nagusiekin: aita edo amarekin, maisuarekin, begiralearekin. Udaldia ongi etorriko zaio, ez etxeokoak maite ez dituelako, baina bide berriak urratuko dituelako.

Etxean gogorra, bihurria, kritikalaria, gelarioa azaltzen da erraz... amarekin aitarekin baino gehiago (mutikoarentzat begiralea gizonetzkoa hobe, emakumezkoa baino eta alderantziz) Anai'arrebekin ere ez da ongi konpontzen. Lagun berriak egitea laket du, egun baten barru aldatu arren. Neskek izugarrizko istiluak izaten dituzte. Lagun bat edo bi aski du. Talde bizia zail egiten zaio (jolasetarako ez) Neskaren batek ukan dezake lagun bat mutilen artean, baina gehienetan mutilak oso traketsak eta gaizki ikasiak iduritzen zaizkio.

Hona, azalez azal, 11 urteko haur baten bereztasunik larrienak.

12 URTEKO HAURRA

11 urteko bezain bihurria ez da.

Experientzia berrien bidez, pixka bat lehunduz eta buruz jantziz doa.

Besteekin harremanak ere errezago egiten ditu.

Bere burua ere ez du hain haunditzat hartzen.

Besteak ere ba direla ohartzen da geroz eta gehiago. Eboluzio edo aldaketa hori uniforme denik ez uste izan. Gora behera asko ikus genezake artean.

Taldeak 11 urtekoentzat baino garrantzi handiagoa duke 12 urtekoentzat. Taldea bere Kontzientzia bihurtzen dela esan daiteke. Bakarrik egin ez lezazken gauza batzuk, taldean egin dezazke (adar jotze, eztul, zarata...).

11 urtekoa baino irekiagoa da gehienetan eta besteek nola pentsatzen duten jakitea gustatzen zaio.

Artean ez da ekilibrio edo heldutasun oso batenjabe; bainan horrera doa. Hori bai baserriko bai herri txiki-txiki baiden hiri handietako haurrekin ikus dezakegu, kultura eta giroak azalpen ezberdinez josi arren. Sexualitate aldetik aurrerapena berezi batzuk ikus genezake.

Neskatan, bat edo bestek odol-galtzea ezagutzen du, gero eta gehiago ilabeteak pasa alan. Batzuei lotsa ematen die. Ezagutzen ez duenak; horren berri zerbait entzun oi du; lagundu egin behar zaio gauza berezko eta normal hori onhartzen. Mutillak baino hobekiago ezagutzen ditu bere sexualitatearen gorabeherak, bainan gehiegi sakondu gabe dauzka.

Mutilla, neska bezala, oso desberdin aurreratzen ari da, soin zati bat lehenago bestea beranduago berari aldaketa berriak sortzen

zaizkiolako. 11 urtekoak baino kaso gehiago egiten die neskei eta neskek mutilari ere noski, baina denbora motzez. Zakila zutik jar-tzen zaio edozein estimulorekin, edozein ezdeuskeriarekin, eta berak nahi izan gabe berdin. Aitari edo amari baino errozaga eskatzen dio argitasuna pixka bat maisu edo begirale bati, kofiantza handi bat baldin badauka behintzat.

EKINTZAK eta «CENTROS DE INTERES»

Udalekuetan 12 urteko haurra pozik aurkitzen da. Talde bizi-tza sakon bat egiteko adinik hoberenetako bat dela uste dut.

Ibiltzea gustatzen zaio. Bai oinez bai txirrinduz (N-M) bai zal-diz (N). Igari egitea ere bai (N-M).

Kirolak ongi antolatuak baldin badira eta bazterretik ikusteko badira hobe. Neska batzuei kiroletako gogoak galtzen hasten zaie.

Ehizea, arrantza, txapelketak (M) torneoak eta olympia joku *ospetsuak* ere gogokoak ditu (N-M).

Abere, harri, eta lore bildumaz aspertzen hasten da. Nahas-mahas jokuak (rompecabezas) laket zaizkio oraindik. Margotzen ere bai (N-M). Dantza (N-M) soinu jotzen ikastea.

Jantziak, jostea andrakila (muñeca) handi batentzako (N), edo beretzako. Asmatutako antzerkiak antolatea (N).

Txirrindua edo tresnaren bat desmontatzea eta berriro konpon-tzea.

Argindarrak gauzak sortzea, egur eta burdin lanak (M).

Txaboletan lan egitea, taldeka lan egitea (hortarako txabolak oso ondo egina behar du eta handi samarra).

Camping egitea (N-M).

Irakurgaietan abenturaz mintzatzen diren idaztiak (M). Idazti sentimentalak batere ez (M). Neskek ere guti. Batzuk bai.

Abereen idaztiak indar pixka bat galtzen dute, oso oso onak ez badira behintzat.

Zine kontutan, abentura eta zapartingarrizko gauzak edo eman-kizunak ikustea maite du eta asko gustatu baldin bazaio, bost edo sei aldiz gauza bera ikus dezake.

AFEKTIBITATEA ETA BIHOTZ ZARRASTADAK

11 urteko haurra baino irekiagoa dela esan dut. Baina gauzak barnean atxikitzen eta gordetzen ere badaki. Lagun edo adizki hobea da lagunagoa-gauza batzuek asko maite ditu ala bat ere ez —ez du

erdibirik—. Oraindik hitz larriak erraz botatzen ditu, gordin samar-
rak berdin.

Bainan 11 urtekoak baino gutiago.

Errez samar haserre liteke oraindik eta joka edo *harrika* has.
Baina gehienetan hitz larri, purrustada bat botaz gero konforme
gelditzen da. Batzuetan bere buruarekin mar mar hasten da eta jo-
lasetik alde eginen du, agian.

Abere gaiztoen, baso handien, suge, apo beltz eta beste zamorro
batzuen beldurra iaz nohi du, bakarrik dagoenean bereziki, bere bai-
tan xorakeriak direla aitortzen badu ere. Garaitzen dituenean, guz-
tatzen zaio esatea. Adar-jotzen ere ohitzen hasten da, bera gehiegi
mindu gabe.

12 uterko haurra gehienetan pozik eta alai bizi da. Noizean behin
gogo-ilundura handiak izaten ditu, berri txarrak hartzen baditu edo
maite duen abere bat hiltzen bazaio, edo bihotz barnetik maite duen
gauza bat galtzen badu, edo pelikula hunkigarri edo biotz-erdiraga-
rri bat ikusten badu negar guti egiten du, bere sendimendu berezie-
nak gordetzen hobeki dakiela esan daiteke bukatzeko.

HARREMANAK

Aita-amarekin 11 urtekoa baino hobeto konpontzen da.

Aitarekin oso ongi. (N).

Kritika objektiboa egiten hasten da (M). 16-17 urteko anai-arre-
bekin hobekiago (N-M).

Lagun berriekin ere ongi (N-M) Adiskidetasuna sakonagoa da,
baina motz samarra agian. Hotza behin ere ez. Neska mutilak erraz
samar nahasten dira baina interes motza dute elkarrentzako gehie-
netan Neskak neskekin, taldeak oso pozik ibiltzen dira. Mutilekin
harremanak izatea gustatzen zaie batzuei (aurreretuagoa N) Batzuk
xoratzen dira holako eta halako mutilarekin.

Bakar batzuk badira oraindik mutilak zeri eta astotzat hartzen
dituztenak. Mutila ere mutilarekin pozik dabil. Denekin neurri be-
rean ez noski. Gustatzen zaie taldean ongi ikusiak izatea. Neskekin
harreman gehixeago du. Baina ez du galdu irabazi handirik ikusten.
Batzuek lehen «andregai» bazuten, orain ez; eta beste baten beha-
rrik ikusi ere ez. Bakarren batzuek interes gehiago ikusten dute.
Atzeratuena astaputz edo tontotzat dituzte.

13 URTEKO HAURRA

Oso zail da bereiztasun batzuk ematea, jokabide berezi batzuk

baditu baina oso nahastuak. Etxean jokabide bat eta kanpoan beste bat izan dezake.

Batzuetan irekia eta beste batzuetan barnerakoi biurtzen da. Ait'amen babesetik alde egiten du; geroz eta gehiago gizarteko gora beherak interesatzen zaizkio. Ez zaio buru hauste ez eta eztabaidarik falta; baina askotan ixiltasun ta bakardadean aurkitzen du bere erantzuna. Hamabi urtekoa baino sakonagoa da, gogoeta gehiago eta mamitsuagoak egiten ditu, kritika zorrotz eta objetivo bat egin dezake.

Batzuek talde txikian (bi edo hiru) nahiago dute handian baino ($N \pm$). Bainan kirolei esker (N) taldean ongi sartzen da, eta udalekuetan etxean baino obeto.

Neska-Mutilek elkarrekin harreman guti dute. Hamabi urtekoak baino grina edo axola gabekoagoak dira gehienetan.

Beratzaz bestek zer dioten jakitea gustatzen zaio Oso zail iduritzen zaigu askori adin hortako haurra (adin zoroa). Bere nortasuna alderdi guztietatik arriskuan jarria ikusten du erraz eta ahal bezela zabaltzean saiatzen eta arranguratzen da. Jasaipen handi batekin launtza asko eskaini behar zaio adin hortako haurrari.

Soin aldetik, neskak mutilak baino mantxoago hazitzen ari dira. Ahulago eta meheago ematen du. Geienek ixurkin edo odolgeltzearen berri badakite edo laister izatekotan dira. Dakartzan buruko min, sabeleko min eta beste temple txar guziekin.

Mutilak laisterago hazitzen dire adin hontan Adina ere aldatzen zaie batzueri, gainentzegotan hamabi urtekoa bezalasu da edozein estimuloekin.

Hamairu urteko neskak mutilekin hartueman guti izaten du normalean; mutilak trakets xamarrek edo gaizki ikasiak azal daitezke.

ADIN HONTAKO EKINTZA ETA INTERES BEREZIENAK

Kirol klase askotan pozik dabil, bere barneko emozio korapiloez eta gorabeherez pixka bat ahazteko (M).

Neska, aldiz, kiroletan gutiago ibiltzen da. Igari, ur bazterrako jolasak (M-N).

Ibiltzea, oinez edo txirrinduaz (N-M).

Irakurtzea. Aldizkari sentimentalak (N-M).

Ping-pong (N-M). Nahas jokuak (N-M). Musika entzutea (N). Pintatzea.

Jostea eta trenzak egitea (N). Berebil eta hegazkin egitea eta margotzea; argi indarra, irrata edo tresnak erabiltzea (M).

Begirale argia eta irudimen handikoa behar da adin hortako hau-

rra erne erazteko, interesatzeko. Oso ongi antolatutako txapelketeak gustatzen zaizkio (N-M).

Bakardadea betetzen hobeto daki barnekoi bihurtzen da errez.

Pelikuletan ballet musikal delakoak. Abenturak baina Oestekoak gutiago. Sentimentalak guti, bakar batzuei (N+).

AFEKTIBITATE ETA BIHOTZ ZARRASTADAK

Emozioak asko aldatzen dira adinetik adinera. Orain obeto sakontzen eta aztertzen ditu, barnekoi bihurtzen da askotan; ikasiaren eta entzunarenbidez, bere gorabeherei erantzun personal bat eman nahi die.

Oso errez zauritu liteke bere sentimendutan eta orduan ixil-ixilik edozein eztenkada gogorra bota dezake. Ez da hamabi urtekoak bezala haserretzen, oso odol berokoa ez bada behintzat. Kezkatsu bihurtzen da. Besteek nola onartzen duten jakin nahi du, polita den ala ez den, beste kuntza edo sexokoek beretzat zer dioten.

Sugeak eta gau illunak beldurtzen du. Baliteke beste bildur batzuk ere sortzea.

Klase handiko personen bildurra, jende pilla baten aurrean agertzeari ere.

Txiste finak, sakonak gustatzen zaizkio. Batzuek txiste gordinak botatzen dituzte artean, bainan geienek ez.

Askotan triste edo motel xamarrek egoten dira, beren barneko arrangurak edo kezka ahusnartuz. Hamaika urteko haurraren itxuran, hambikoak baino berekoitasun gehiago du. Aiherkor eta bekaizti bihurtzen da erraz instant batetan.

HARTUEMANAK

Bere nortasuna hazitzen ari da, jakintza eta inguruak aldaketa berriak bere baitan sortaraziaz. Harreman gutiago beraz.

Kirolak eta gauza batzuek besteekin egiten direlako, bestela bakarrik edo lagun batekin egotea gustatzen zaio.

Zazpi, zortzi, bederatz, hamar, hamaika urteko haurrekin ez du ezertxo nahi. Bere adinekoekin ondo xamar, hamasei urtekoekin obeto. Adiskide bat edo bikin ibiltzea gustatzen zaio (N+), hizketa eta kritikan.

Bere gurasoekin ez da oso ondo etortzen; begiraleekin ere ez, agintzen besterik baldin ez badaki.

Erantzun motzak izaten ditu. Beldurrez egingo ditu askotan gauzak, baina persona handien aginpide ta laguntza asko txikitzen ari da, ahultzen. Epaitzea maite dute, gogor xamar gainera.

Gurasoekin harreman sakon guti, askotan, begirale argi batek. Kiroletan eta organizatzen ona bada hobea (M), haur honen konfiantza irabaz dezake.

Neska bere adineko lagunekin ongi dabil, talde txikian, gauza ixilka kontatuz. Kirolak aparte, mutila ere bai.

Neskak mutilek asko hitz egiten du, baina harreman gehienak hamabost edo hamasei urtetako mutilekin nahiago ditu.

Mutilek, berdintsu, neskekin hitz egiten dute baina harreman guti: gonak altxa, uretara bota, ostikada bat edo eztenkada bat eman, horra neskarekilako dituen atentzio galantak.

14 URTEKO NESKA MUTILA

14 urteko gaztetxoa maitagarriago dela esan nezake. Baina ez da ongi esana, 13 urteko gehienetan zailagoa bada ere, berdin maitagarria. Fase edo kinka (haro) hortatik iragan behar du, mail berri hontara heltzeko.

Beraz, 14 urtekin haurra irekiago dela esan daiteke. «Ekilibrio» edo heldutasun berri batera iristen ari da. Besteen itzalak eta hutsuneak ikus ohi ditu, baina bai eta bereak ere, lehen baino hobeto, BERE NORTASUNAZ kezkatzen da eta falta zaiona aztertuko du. Humorea ontzen zaiolako, lagunzale da.

Hitz berriak baino hitz egiteko molde berriak sortzen ditu. Zehatz eta konkreto moldetatik, abstrakto eta aburuen moldeak hartzen ditu.

Gauza askotaz kezkatzen da. Arrazoitzea gustatzen zaio.

Hala ere, adin hau ez da errazenetakoa. Heldutasunaren loratze eta berritze hau bakoitzak bere du eta nortasun berri hortan finkatzeko, haur bakoitzaren gorabeherak ikus behar dira, ezagutu eta ulertu.

—Sexualitate edo kuntza aldetik, 11, 12, 13 urtekoak, bere al-daketa guzietan, gizon itxura eta emakume itxura baino haur itxura handiago zuten.

15 urtekoak ba du, ukan, pertsona hazi eta nagusiaren itxura; 14 urtekoa, beraz, hor dago erdi bidean bezala. Mutila gizon itxura hartzen ari da, soinez azkar hazitzen da, izterterteko, galtzarze edo besazpiko eta zangoetako ileak ugaritzen ari zaizkio. Hazi-galtzea ere ezagutzen dute gehienetan, karrikako mutilak baserrikoek baino lehenago.

—Gauza asko jakin nahi du; baina idatziz aisago egiten ditu galderak ahoz eta hitzez baino bakoitzak bere arazo bereziak dituela ohartzen delako. Garbiki hitzegin behar zaio.

Gaizki argitutako 14-15 urteko haurren artean gauza okerrak gerta daitezke kampingto mixtoetan gutziz ere. Argitu eta ondorioak garbi aztertu, ausartuen batzuekin.

Neska ere asko hazi da. Gehienek, ba dakite jadanik, bere soinaren gorabeheren berri. Batzuek, odolgaltzeagatik, bi hiru edo lau egun oso gaizki pasatzen dute. Neska batzuek, bere izakera eta egitura halakoa delako hain zuzen, 15-16 urteko mutilekin ibiltzea laket dute, eta emozioz zorabiatu daitezke, arriskuan jarri arte, agian.

Baina bihotz zarrastada, soin kilika eta emozio-bultzada horiek ongi aztertu gabeak ditu artean. 15 urteko mutilak gutiago oraindik.

EKINTZAK ETA INTERESAK

Irekiagoa dela esan dugu, indar berriak erabili behar ditu. Besteekin harreman handiagoa du. Batzuetan ez da isiltzen, bere jostokera eta hizkera logiko berria agertu nahi duelako. Mutilak hala nola neskak.

Izadiaren eta pertsona nagusien goraberak hobekiago aztertzen ditu.

Udalekuetara ere gogoz etortzen baldin bada, gustatuko zaio gehienetan. Alderantziz ez, edo nekez.

Kirolak maite ditu (N-M+). Balio-joku batzuk (N), txapelketa, norgehiagoka batzuk, lehen baino gutiago, ordea.

Kartetan jokatzeko, musika entzutea, pintatzea (N-M), pirograbadua, soldadura, montajea (egazkin, urontzi, irrata...).

Mutuez mintzatzea, joste, trenza egite eta sukaldarritza (N). Kamping (N-M+). Urontzi bat ikuste (M)...

Batzuek asko irakurtzen dute, beste batzuek oso guti edo batere ez. Idazti sentimentalak (N). Abentura, misterio eta kiroleko idaztiak (M). Abestiak (N-M). Neska batzuek beren idolo kuttuna izan ohi dute. Pelikula samurrak (N+M) eta bihotz erdiragarriak. Parregarriak eta kirolpelikulak (M+).

AFEKTIBITATE ETA BIHOTZ ZARRASTADA

Kultura eta inguruak garrantzi handia du beti, baina afektibitate eta emozio aldaketa gehienak pertsonaren barnetik datoz eta barruan gordeak dauzkanak kanpora agertzen ditu, adin hontan.

—14 urteko gaztea alaitu da eta gizarte bizian indarrez sartzen da.

—Iaioago da.

—Baina bere baitan, askatu gabeko korapilo asko du artean.

—Haserretzen denean, joka has daiteke, batzuk behintzat. Gehienetan hitz larriak eta mingarriak botatzen ditu.

—Batuetan txoko batera aldegiten du edo adiskideren bati esanaz konformatzen da.

—Bere nortasunaren goiebeherek kezkatzen dute gehienik. Besteek beretzaz zer dioten eta nola onhartzen duten.

—Jende askoren aurrean agertzea maite du.

Eztenkada eta humore larri, hots handikoa, azal dezake taldean batezere. Gordinkeria gutiago esaten du, neskeen aurrean behintzat.

Berekoitasun handia du, kirol eta txapelketa batuetan behintzat. Neskak inbiria edo bekaitza handia izan ohi du, mutilekin ongi etortzen ez bada, batzuek erremindu ere egiten dira. Besteek dituzten ondasunen bekaitza ukan dezake.

HARREMANAK

13 urtekoak baino errezago egiten ditu. Adin hortan, begirale batetik gurasoekin baino hobeki konpon daiteke (guraso askok haurraren evoluzioaren berri ez dakitelako; edo berez nahi edo uste zuten bezalako ez delako, hotz iduritzen zaie).

Taldean aski ongi aurkitzen du bere burua eta beste edonorekin ere bai

Besten erruak eta itzalak hobeto aztertzen dituzte. Neska mutila baino irekiagoa da, lagunak gehiago berezten ditu.

Neskak mutilari, mutilak neskari baino jaramon edo kaso gehiago egin ohi dio. 10, 11 urtekoarekin harreman guti. Mutilak kaso egitea gustatzen zaio neskari eta batuetan zorabiatu ere daiteke. Gehienetan mutilakin ongi konpontzen da. Mutilak neskekin harreman sakon guti, adar jotzea, hori bai. Lagun bazteruari lagun diezaioke, kezka daiteke horretaz.

15 URTEKO GAZTEA

Kezkatsu eta geldu samarra bihurtzen da. Gorabehera asko ukan dezake egun batetik bestera, eta egun berean ere.

Bakartiar edo lagunzale, baina 14 urtekoa baino barnekoiago.

Bere nortasunaren kontzientzia handiagoa du.

Sentimentu, jakintza hauzi eta prolema asko du, aztertzeko, bai bere buruari begira, bai besteei begira, bai gaurkoari begira bai eta geroari begira ere.

Bere sentimentuak gehiago gorde eta isiltzen ditu. Hitz batez, bere buruarekin lanpetua dago. Aspertuta bizi dela usteko dugu, baina ez

da egia, askotan. Gogoeta asko du egiteko... eta galdera sakon eta mamitsuak egin diezazkioke konfiantza handiko pertsona bati.

Adin hontako batekin ibiltzeko, gutienez 22-23 urteko begiralen behar dela uste dugu, edo oso heldua behintzat.

EKINTZAK ETA INTERESAK

Geldirik egon ezina. Ekintza edo ibiltzea bakarrik gauza motza iduritzen zaio. Ekintza bai bainan bai eta atsedean luzeak ere tartean.

Kirol-norgegiagoka eta torneoak eta txapelketak maite ditu, eta aldamenetan ikusleak baldin badira hobe.

Kalez kale, karrikaz karrika ibiltzea oso maite du (N).

Dantza egitea (M). Musika edo soinua entzutea. Antzerki bat antola dezake «ttikientzako» (irakasle batek lagundurik): «ttikientzako» hau aitzakia da, baina. Antzerkia ez baitu ttikiei bolada goxo bat igarotzen laguntzeko bakarrik egiten, baizik gehien bat bere barneko tensio batzuk azaltzeko.

Zaldi, musika, mendi, Motor, Montaje, Etxe egite.

Argazki, bibliotheka, zurgintza.

Hitz egitea (N). Ametsetan egotea.

Batzuek erotiko idaztiak (maite-gaia, sexo-gaiak...) asko irakurzen dute (M+).

Emakumenetzat egin idaztiak, aldizkariak (N).

Soinua: Jazz, modernoa, eta klasikoa ere.

Pelikuletan kuntza edo sexo bereko artista bat dezake maitagarriena, idoloa.

Pelikula batetan, zer artista azaltzen den gehiago begiratzen du, mamia baino.

EMOZIO ETA BIHOTZ ZARRASTADAK

Kezkatsu eta geldi samarra, ezerk axola ez balio.

Mintzatzeko modua ere aldatu zaio, eztixeago mintzaten baita.

Ez bere ez eta besteen ekintza askorekin ez da konforme.

Joka edo burruka partida bat antola dezake noizean behin (tensioa jaisteko) (galtzen duenak, galdezake bere buruaren aurrean eta besteen aurrean. Lau purrustada bota dezake, haserretzen denean edo denak utzi eta alde egin.

Bainan lehen baino hobeto kontrolatzen da eta berekoitasun handiagoa erakusten du.

Taldean ongi ikusia izan nai du.

Irri-mirrizko edo xixtakari (irónico) onak dira batzuk.

Batak besteari hitz larriak botatzen entzutea, laket zaio. Bi adierako (sentido) hitzak erabiltzea ere bai.

Noizean behin bolada ilun bat iragan dezake, bai eta isilean nigar egin ere: bere buruari frakasatua deritzaiolako, pot-egina dagoelako, ez dela onhartua iduritzen zaiolako...).

Soin hazitakoak kirol eta ekintza gehiago egiten du gehienetan, mehe eta kankail luzeak baino.

Eztabaidatan amor ematea ez zaio atsegin.

HARREMANAK

Guraso batzuek adin hortako gazteekin harreman sakonak ohi dituzte; beste batzuek berriz izurrite edo urrinari (peste) edo min biziari baino beldur handiagoa diote. Gurasoekin guti hitzegiten du gehienetan, aurretik zer erantzun jasoko duen bai baitaki, gurasoak, zeinbaitetan, ez baitira ohartu adin hortako bere seme-alaben nortasun eta zaletasun berriaz.

Gurasoen kontrola ez zaio laket, amarena batik bat.

Askatasun handiagoa nahi luke. Aitarekin hobekixeago konpontzen da, baina ez nahi bezala («guerra fría edo paz armada»). Tikiak defenditzen ditu gurasoen aurrean.

Neska neskekin ongi konpontzen da taldean, batzuetan denekin, bestetan bizpahiru lagunekin, elkar ezagutzen ahaleginak eta bakoi-tzaren nortasuna aztertuz. Geroaz mintzatzea ere geroz eta gehiago gustatzen zaio. Bat edo beste mutilen batekin ibil daiteke, gehienak beste neskekin.

Ez da 14 urtekoa bezala xoratzen mutilekin eta xoratzen bada, 18, 19, 20 urteko mutilek xoratzen dute. Mutilen artean egoteak ez du lehen bezala lotsatzen.

Mutila ere ongi ibili ohi da taldean (bere geldi bolarekin). Elkar ezagutzen dute. Azkarrak azkarrekin biltzen dira, senaz, baina besterik gabe (elkarrekin mintza, zinera elkarrekin joan). Nabaitzen du, 15 urteko neskek bera baino zaharragoekin ibiltzea nahiago duela.

MATTIN ETXEBERRIK ETA LAGUNTZAILE
ZENBAITEK BILDU ETA EUSKARATUA.



Eztakigu emendik urte batzuetara jan-edan-arazo auek nola erabakiko diran.

Dana dala, esan genezake, oker aundirik gabe, gai auetan gaur dan egunean, aurrera baño atzera geiago egiten degula. Entzun bestela.

Oraindik orain, ¡Viven! *La tragedia de los Andes* deritzaion Paul Read ingeles idazlearen liburua argitaratu da. Ta bai-aldakizute liburu ortako orrialde batean zer esaten dan? Alegia, giza-korputz ildakoen aragia, aragia baizik ez dala. Beren arimak beste mundua joan zirala, ta, beragatik, aragi ori jan dezakegula; aragi ori abereen berdiña dala-ta.

Bestalde, ezagutuko dezute bear bada *Soylent-Green* izenburuko pelikula. Ongi. Pelikula ortan, ikusi dezutenok dakizuten bezala, emendik urte batzuetara giza-korputz ildakoen aragi-iriñez egindako opiltxoekin gizakumeok biziko ote geran, diote. New York-en bai beintzat...

Azkenik, lengo egun batez eskuratu degu Parisen argitaratutako *La Cuisine Canibale* izeneko liburutxo bat. Txantxetan idatzia dago, ta berak dakarren kanibal-jaki-errezeta batek *Basques basquaise* deritza. Jakiña, esan bezala, umoredun lanegintxo da, baña, dana dala, alaere bere irakurpenak alako urdaill-naigabetxo bat utzi zigun.

Madrideko *Cofradía de la Buena Mesa*-koak zabaldu dute *Madrid Gastronómico*-ren bigarren argitaldia.

Aurtengo argitaldi berri ontan badatozte, lengo urtekoan bezalaxe, Madrideko euskal-jatetxe batzuen izenak. Baita lengoan azalzen etzan batena ere. Ain zuzen ere, *Zalacain*-ena.

Jatetxe *Zalacain* au Altsatsu-ko sukaldari napar ezagun batzuek idiki zuten, eta iñolaz ere, gaur dan egunean, Madrideko jatetxe nagusienetako bat da.

Beste jatetxe-gida bat ere aurten Madrident argitaratu da. *Guía Gastronómica de Madrid 1974* deritza, ta G. A. Sol de Liaño da bere egillea.

Gida ontan ere badatozte euskal-izeneko ta usaieko jatetxe batzuek. Egia esan, batzuek baño geiago. Entzun: *Alcalde, Basarri, Blanca de Navarra, Casa Vasca, Danok, El Bodegón Navarro, El Parador, Gure-etxea, Guria, Jai-alai, José Luis, La Trainera, Mesón El Caserío, Ondarreta, Príncipe de Viana, Señorío de Bértiz, Trabuco, Txistu, Zarauz* eta *Zalacain*.

Berri-samarrak diralako-edo, ez dira agertzen ez *Cofradía de la Buena Mesa*-ko liburutxoan ez *Guía Gastronómica*-n Madrideko gaurko bi euskal-jatetxe ezagunak. Ezagunak eta onak gañera. Ta biak donostiarrak idikiak: *Nicolasa* ta *Asador Orio*.

* * *

Parisko *Le Nouveau Guide Gault-Millau* deritzaion aldizkariaren azkeneko zenbakian, Euskalerriko sukalkintza ta jan-edan-gaiaz idatzitako orrialde bi datoz.

Egia esan, ez gatoz bat orrialde oietan ezartzen diran iritzi guziekin, baña bai geienakin. Gañera, gipuzkoarrok, moko-fiñak bezala, goieneko mallan ipintzen gaituzte. Onela, ta adibidez, orrialde oietako batean, Gipuzkoako sukalkintza Euskalerriko beste guziak baño aberatsagoa dala adierazi ondoren, Donostiako jatetxei buruz itzez-itz esaten da: «*Nous connaissons au moins une douzaine de restaurants et deux fois plus de bistrotts qui surpassent ce que l'on fait de l'autre côté de la frontière.*»

* * *

Aurten betetzen dira eun urte Chesterton ingeles eskribatzalle ospetsua jaio zala.

Chesterton moko-fin txit ona izan zan, eta jan-edan-gaiei buruz bein baño geiagotan egoki asko idatzi zuan.

Beragatik, errenkada auen bidez eskeintzen diogu gaur guk *Ostegun izan zan gizona*-ren egille umorezale ta begikoari oroimentxo apal au.

* * *

EGAN-en lengo zenbakian argitaratu genduan gure lantxoari buruz idatzitako Ipar-Americako eskutitz bat jaso degu.

Arritzekoa da baña, emen bakarrik ez, baita American ere irakurtzen da nonbait, gutxi edo geiago, gure aldizkari maite au.

Beraz, oraindik ere Euskalerriko izkuntza zarrak zertxobait baliotu noski.

* * *

Beñiola, Gipuzkoako erri txiki bateko taberna nagusian, bazkaldar batzuen artean berealdiko iskanbilla sortu zan. Azkenean, guziak Guardiazibillen Etxera eraman zituzten. Ta an bati galdegin zioten:

—Iskanbilla noiz asi da?

—Bazkalondoan.

—Bai, bazkalondoan. Baña ze ordutan?

—Eztakit.

—Eztakizula?

—Ez, jauna.

—Gutxi-gora-beera ere ez?

—Gutxi-gora-beera? Bai, jauna: Boga-boga kantatzeko orduan.

* * *

Usurbilko Uri-batzarrak 1888garren urtean erri-arau batzuek onartu zituan.

Arau aiek erderaz eta euskeraz erasoak izan ziran, eta euskerazkoen izenburua, itzez-itz, auxe zan: *Usurbill-ko Erriaren Ordenantzak*.

Ona emen euskerazko arau aietako batzuek:

«40garrena.—Debekatzen da, tabernak ichi ezkeru, leyo eta atetatik, ardo, likoreak eta beste edozein edari saltzen, non ta premia aundiren bat ez dan.»

«41garrena.—Ezta sartzen utziko edaria saltzen dan tokietan, ez ta ere egoten, moskortuta dagoenik.»

«43garrena.—Debekatzen da osoro edari nastu, char eta osasunaren kontrakorik saltzea.»

«58garrena.—Ezin salduko da ezer, usteltzen asitakorik, edo bear bezela ez dagoenik. Ala aragi, bakallau, urdai gazi, nola ardo, olio ta edariak edo beste edozein, ikusi litzake autoridadeak onak dau-den, eta galeragin osasunaren kontrakoak saltzea.»

«62garrena.—Saleran bear diran neurri ta pisuak, bear dute izan *Sistema métrico* deritzaion berrietakoak, eta ondo dauden autoridadeak ikusiak ta ontzat emanak.»

* * *

Jakinzale.—Zenbat personak oraindik munduan beatzakin jaten duten? Gutxigora-beera, ta «ONU»-koak diotenez, 740 milloiek...

* * *

Moko-fin bati.—Txit gogoko izan zenituela guk lengo zenbakian *urta* deritzaion arraiaz argitaratu genituan lerroak, diozu. Ongi. Ta eskarrikasko.

Egia esan, badegu gaur *urtari* buruzko beste berri ernagarri bat ere. Jose Maria Iribarren zanaren *Batiburrillo navarro* liburutxoatik artua.

Gure adiskide miñ izan zan idazle arek dio bere lanegin ortan, alegia, amalaugarren mendean, Naparroako Errege Karlos II-garrenaren denboran, Iruñeako Kalonjeak jai-egun nagusietan *corriedo* izeneko otordu bikain bat egiten zutela, ta jaiia bijilia-egunean erortzen bazan, arrai bi jaten zituztela. Ain zuzen ere, auetxek: «*Congrio o hurta, o salmón o pitual.*»

Jakiña, baditeke emen aipatzen dan *hurta* arraiak gaur Andalucian izen onezaz ezagutzen danarekin zer-ikusirik ez izatea.

* * *

J. B. A.—Arrazoi dezu. Persona bat ezagutzeko, ona da zer jan eta zer edan egiten duan jakitea. Are geiago: *nola* jan eta edan egiten duan jakitea ere ezta txarra izaten persona bat ondo ezagutzeko. Eskritura Santuak dionez, Apostoluak ere, Jesukristo jaten eda edaten ikusi zutenean, antzeman omen zioten Berari nor zan.

* * *

Gaztak ogiarekin eta ardoarekin batasun sakratu bat osatzen du.—*Chesterton.*

* * *

Adiskide maite bati ezin lezaioke bazkari on bat baño doai egokiagorik eskeñi.—*W. Fernández Flórez.*

A. A.

FANTASIA BAT

Zuria da, kolorerik gabeko kolorea. Zuriak, kolore guztiak bere baitan harturik, zuriaren pean estaltzen ditu.

Guri gehien gustatzen zitzaigun kolorea urdina izaten zen.

Nik badakit, betidanik jakin dut, sorgin guztiak urdinak izan direla; bainan historiaren iragaiteak, sorginaren urdina, zuri bihurtu du.

SORGIN ZURIA

Ez dakigu sorginak lurpeko ala lurgaineko izan diren, ezin esan bada sorgin urdin hura, lurpean sartu edo betidanik lurpean bizitu zen. Gertatzen dena da, sorgina, aspaldidanik lurpean zegoela, geldirik, geldi-geldi, urdin, lurpean estalia, amets eztieta babestua, itzalpearen iluntasunean.

Sorginak ez daki mogitzearen berri; urdin dago gorri den lurraren pean. Gorputza zuen sendo, sendotasuna xamur, xamurtasuna ezti, eztitasuna maitagarri; hala zen ezagutzen ez genuen sorgina. Ez genuen inoiz ikusi eta bagenekigun zela.

Gu, lur azalean bizi garenok, maiz, lur-azal honen giro aldaketak ezagutu ditugu; eguzkiak berotu, hotzak hoztu, euriak busti eta mila eratako haizeak astindu dute. Haize beroak eta besteeak.

Denboraren iragaiteak ez du joan etorririk. Denbora doa; joatea balitz bezala bere eginkizun bakarra.

Gure lur-azaleko eginkizun, gertakizunak dira, denboraren iragaitea unetan zulatzen dutenak.

Denboraren une hoietako batean, eta egia esateko ez dakigu sorginarentzat zorionsua izan zen ala ez, gure lur-azal hau haize izugarri batek eraginda, lau zatitan zartatu zen, lurpeko sorginaren iluntasuna argituz.

Sorginaren itzal iluna argitu da.

Zer egingo ote sorginak?

Erantzuna xamurra da; geldirik, geldi-geldi egon.

Argira ekarri zuen haizea, hegoa izan zen.

Ez da geldirik egotea hegoaren asmoa. Hegoaren indarra nahikoa zen sorginaren gorputz arin hura mogitzeko; haize hark eraginda sorgin urdina eten gabeko joan etorrian ibili zen, bere gorputzaren zatitxo bat bera ere mogitu gabe.

Hego haizeak bere berotasunez inguratzen gaitu; neguko hotzak kontuan harturik, kolorez betetako bero garbi hartan egotea gustatzen zaigu. Herriko haizeak biluz zegoen lur-azala irentsirik estali zuen. Zurrunbilo bat egin zuen, goian zabal eta behean hestu zena; beheruntz zijoan haizea, behealdera joatea baita hegoak agintzen duena.

Sorgiña, zurrunbilo hartan sartuta, gure lur-azaleko punta borobilera heldu zen.

Hego aldeko begirakada guztiak sorginarengan so jarri ziren. Ia erre zuten gauza bitxi hura suzko begirakada haiekin; haiek uste baitzuten gorputz txiki urdin hura zerbait berri zela. Sorgin txikia zerbait berri zen, baina hori ez zekien sorginak eta ezin eman bere berritasunaren berririk.

Sorgina, oin, esku, beso, begi, behatz, belarriduna da, baina ez ditu inoiz erabili begi, beso, oin, esku hoiek.

Hego haizearen indarra ahulduz doa. Badoa hegoa.

Iparralderuntz?

Haize berri bat dator. Iparra da.

Iparra hegoa baino hotzagoa da; geldirik egoten den sorgina kizkurtu egin da, hotzik balego bezala.

Kexu ote da?

Iparrak, sorgina, bere haizetan jaso zuenean, berotasuna somatu zuen. Iparra epeldu egin zela zirudin; egun hartan iparrak zokoak goxatu zituen. Sorgina haizeak eraginda munduan zehar ibili zen. Hala zebilerarik gauza harrigarri bat gertatzen ari zitzaion sorginari. Bere jantzi urdinak zuritu egin zitzaizkion, lur-azal honek mindu egin balu bezala bere urdina.

Iparrak sorgina eraman du. Herriz herri. Lekuz leku. Herriz herri. Zokoz zoko. Itsasoetan. Hibiaetan. Zuhaitzetan. Eta gauza hauek denak guk ezagutzen ditugun bezala ezagutu ez baditu ere, hasi da bere begiekin, belarriekin, eskuekin, ikusten, entzuten, ikutzen.

Jakin du zokoak noiz diren latzak, noiz goxoak eta noiz ederrak. Hasi da lur-azalaren zentzua ezagutzen; latza izanagatik ez gutxiago desiratua.

Gorputz txiki bero hura iparrak darama bere baitan, eta haizeak

ez ditu gehiago gure herriko harriak zulatuko; behin eta berriro laztanduz, borobilduko ditu.

Bat batean ipar haizea gelditu egin da. Sorginak lurra jo du; lur gainean geldirik, geldi-geldi, gelditu da berriro.

Denbora ez da inoiz gelditzen, ez eta makaltzen; gure lur-azaleko giroa bai ordea.

Haizeak baretu ziren; euria, aspaldi, ageri ez zela; eguzkia ere ez zen esnatzen. Lur gaina giro hits batean murgildu zen. Egunak duen argi izpi hura ere lanbroak erabat estali zuen.

Sorginak lurpean dela uste ote?

Lurpea desio ahal du?

Ez du zalantza erabakitzeke astirik izango; uholde izugarri batek busti ditu gure mendi, itsaso, herri eta jendeak; sorgina bera ere blai geratu da.

Ipar haize hark, nolaz malda baten gainean utzi zuen, euriak sortutako errekatxo batek hartu zuen, malda behera eramanez, behe-
ra, beheruntz, beheraino, ez dakigu nungo itsas ertz batekin topo egin arazi arte.

Eta han itsasoa, ilargiarekin elkartzen den unean, sorginak bere gorputzaren berri jakin du.

Sorgina, lehen urdin orain zuri dena, itsas ertzean dago.

Bukaerarik gabeko ur zabal, lasai harek liluratu du sorgina. Itsas hura bai izan zela, lur azpiko lozorroak ukatu ziona.

Ez du keinurik egin. Geldirik, begiratzen ari da.

Uhinak behin eta berriro, gudubaten antzo, harkaitzak uzten ez zien lekua hartzen. Uhin borrokatzaileen zipriztinek busti zuten sorgina, borroka haren zertxobait dastatuz.

Sorgina ikasten ari da; itsasoa du irakasle. Itsasoak esan dio, ezpainak direla uhinaren gazitasuna dastatuz mogitzen zaizkion bi zatitxo biguin hoiek. Besoak direla itsasoa ikutu nahian luzatzen eta lurra besarkaturik biribiltzen zaizkionak. Oinak, lur latz horixka horrekin bustitzen direnak. Badaki. Gauza asko dakizki. Geldirik, geldi-geldi dago. Itsasoko mugimenduak zerbait esan dio, ordea.

Gure sorginak badu mugitzearen zentzua; lurpeko ametsak ahaztu ez baditu ere, bizi nahi du ezagutu berria duen bizitza ausarta hori.

Bere jantzi urdinak betiko zuritu dira. Zuria da orain sorgina. Tristeia da bere zuria. Lur gaineko argiak zuritu du bere urdina.

Itsasoak ez du inoiz ikusi gorputz txiki, zuri hura. Uhin baten bidez bereganatzen du, ur sakonetara eramanez.

Itsas barruan igeri dabil.

Itotakoaren aurpegiak nolaz ez duen inoiz ikusi, ez du pentsatu ur haundi, zabal, geldi hoiek bera ito lezaketenik. Lurpean bezain ziur dabil itsas gainean. Badabil gora, behera, alde batera, bestera, aurrera eta atzera; gorputz guztia balantzan duelarik, dabil, itsasoaren indarrak eraginda.

Itsasoa baretu zaio, ez du ekaitzik nahi; urak ez zaizkio haserretuko, gutxienez, gorputz ttiki, bero, biguin hura berarekin den artio. Itsasoko urak, sorgina, uhin borobiletan laztanduz biltzen du.

Sorgina itsasoko urez inguratua, itsasoagatik besarkatua, amodiozko jolas isil batean murgildua dabil.

Sorginak ez zuen inoiz itsasoa ikusi; betiko gordeko du bere goan itsasoaren imajina. Horregatik, itsasoa haserre ikusi zuen egun batean, ezin ulerturik geratu zen. Halere ezin zuen ukatu itsas haserretuaren edertasun izugarria.

Uhin bat urrutitik dator; haren bultzadak sorgina, lehorrean utzi du poliki, goxo-goxo.

Sorginak lo hartu du. Amets bat egin du. Oinez mugitzen zela amets egin du. Ikusi du nolaz bere besoak luzatzen zituen itsasoa ikutzeko; behatzak hestutu, zabaltzen zituen, labaindurik ihesten zitzaizkion itsas tantolak jaso nahirik.

Oinez ibili eta ibili, itxura gabeko ibilaldiari, ibiltzarekin arrazoiz beterik.

Esnatzerakoan, sorgin zuriak, oinez ibiltzen jarraitu zuen.

AMAIA LASA.



ZENBAIT IPUIN

M.^a J. Lasa

Munduan beste asko bezala, baserri baten morroia hartu zuten eta nagusiak etxeko lanen berri eman ondoren, horrela galdatu zion morroiak:

—Zer ordutan jaiki behar dut bihar goizean?

Eta nagusiak erantzun zion:

—Gure etxeko despertadorea astoaren arrantza izaten da eta ez duzu lo egir besterik haren arrantza entzun arte.

Lehendabiziko egunean oso berandu egin zuen arrantza astoak eta morroia poz-pezik zegoen.

Baina, hurrengo egunean ordu t'erdi lehenago egin zuen arrantza.

—Arraina!... atzo baino lehenago deitu dit gaur asto zikin horrek —esan zuen morroiak.

Hirugarren egunean goizeko lauretarako ez zuen ba arrantza egin astoak!

Morroia odolak buruan hartuta jaiki zen ta ikuilura joanda ateko atalaz «dinbi ta danba» astoa jotzen hasi zen.

Hango zalaparta entzunda ba doa ikuilura nagusia ea zer gertatzen ote zen jakitera, eta morroia ikusirik galdetzen dio:

—Zertan ari haiz, txotxo?

—Zertan ari naizen? Ba... despertadorea konpontzen.

OTSOA TA HIRU EHIZTARI

Behin batean hiru ehiztari otsotara joan ziran. Bat edo beste arrapatzeko asmoa bazuten itxura denez.

Eta hartzen zuten otsoa norentzat izan behar ote zen eztabaidetan hasi ziren. Batek, lehenbizi ikusten zuenarentzat izan behar zuela esaten zuen. Bigarrenak berriz, lehenbizi tiroz jotzen zuenarentzat. Ta hirugarrenak ordea, hiltzen zuenarentzat.

Horrela zihoaztela, sasioe batetik atera eta parean agertu zitzaien otso handi bat.

Haein orduko ikara!

Beren buruak ezin gorderik batera eta bestera laister hasi ziren. Bi, izkutatu ere egin ziren baina, hirugarrenak nora joan ezin asmaturik, hantxe bertan bere burua lurrera bota eta hil itxura eginaz gelditu zen. Etorri zitzaion otsoa baina usaindu eta bira emanaz alde egin zuen.

Otsoa izkutatu zenean, atera ziren beren gordelekuetatik beste bi eiztariak eta han gelditu zenari galdetu zioten:

—Zer esan dizu otsoak?

—Zer esan didan? Harrapatu baino lehenago konturik ez ateratzeko.

LAU AGURE JAKINTSUAK

Benaresko herria oso txiki eta pobrea zen eta horrez gainera errege maltzur eta lotsagabe bat zuten. Inpuestoa handiegiak ziren eta jendea aspertuta zegoen. Horrela esan zioten herriko jakintsuek erregeari baina honek haserre bizian lurralde haietatik jakintsuek bidalzea erabaki zuen.

—Jakintsu hauek kalte besterik ez didate egiten, beti nere kontra ateratzen dira.

Hauetarik lau elkarrekin jarraitzea pentsatu zuten eta bidetik zihoaztela mando batek eginikako arrastoa somatu zuten eta mandoari buruz hitz egiten ari zirela, gizontto bat inguratu zitzaien.

—Ikusi ahal duzute mando bat? esanaz.

—«Mando horrek ez du eskuineko begitik ikusten» esan zuen batek.

—«Buztana oso motza du» besteak.

—«Errenka dabil» esan zuen hirugarrenak.

—«Gaixoak sabeleko-mina izan behar du» laugarrenak.

—Bada... ni baino hobeki ezagutzen duzue. Non ikusi duzue? Norantz abiatu da?

—Ez dugu inoiz ikusi baina bide hontatik igaro da, erantzun zuten jakintsuek.

—Gezurra, gezurra ta gezurra! Nere mandoa saldu egin duzue nonbait baina erregerengana joko dut justizia bila.

Handik egun batzuetara auzia izan zuten eta erregea jueztzat jarririk honela esan zien:

—«Egia ez ba duzue esaten presondegira bidaliko zaituztet. Inoiz ikusi gabe nola dakizue itsu, erren, buztan-motz eta gaixoa denik?»

—«Bidean hiru hanken arrastoa ikusi nuen bakarrik eta pentsatu nuen hortaz, errena zela» esan zuen batek.

—Bada... ezker aldeko zuhaitzek hostorik ez zuten baina eskuin aldekoek bai ostera eta horregatik pentsatu nuen itsua zela begi batetik.

—Tarteka-tarteka odol tantoak ikusi nituen; heltxoek egindakoak zirela ematen zuen eta buztan-motza izan behar heltxoak ez bidaltzeko.

—Nik ikusi nuen —esan zuen laugarrenak— aurreko bi hankak indar handiz sartzen zituela lurrean eta atzeko hanka bakarra guttiz. Horregatik barruko minen bat izango zuela atzeko hanka tatarrazka eramateko.

Harrituta paratu zen Benaresko herria gauza hauek entzunda eta beren jakituriaz oharturik gidaritzat jarri zituzten eta errege maltzurra atzerrira bidali.

APAIZEN OIHUAK

Behin batean apaiz batek leihoa konpontzen ziharduen, mailuaz kaska ta kaska. Hala ari zela mutiko bat azpitik igaro omen zen ta apaiza halako lanetan sekula ikusi ez ta berari begira gelditu zen.

Mutikoa han zegoen geldi, joateko itxurarik gabe eta apaizak esaten dio:

—Zer egiten duk hik hemen, lan hau ikasi behar duk ala?

—Ez.

—Zer egiten duk bada hortaz?

—Apaizak mailuaz bere eskua jotzen duanean, nolako oihuak egiten dituen entzutea nahi nuke.

GAZTA ERDIBANATU

Behin bi katuk gazta lapurtu zuten, eta erdibana egitea erabaki. Baina zuzen egingo ez zuten beldur ziren, elkar ongi ezagutzen bai zuten eta ximu bati deitu zioten lan zail hura ahalik eta ongien egin ziezaieten.

Ximua, agindua zehatz beteko zuen itxuraz hasi zen. Gazta bi zatitan ebaki zuen eta zati bakoitza pixuaren alderdi banatan jarri zuen Baina ez da harritzekoa ta, alde batekoa apur bat handixea goa zen.

Hori ikusirik, gure tximu zuzenak handiagoa zen zatiari hortzada batez zatitxo bat kendu zion. Baina orain beste aldekoa handiagoa! Beraz, beste ikututxo bat egin behar. Eta berdintzen ez zirenez, honi hortzada ta hari kraskada, gazta zati biak ia ezerezean utzi zituen.

Gazta gabe gelditu behar zutela ikusi zutenean, larritu ziren eta gelditzen ziren zatiak emateko esan zioten ximuari.

—Horixe da, bai, erabakirik hoberena —erantzun zien honek— baina nik ere egin dudan lanaren sari gabe ezin nindeke geldi.

Eta hori esanaz, gelditzen ziren bi zatitxoak irentsi zituen katuen ahoa hortzez beteta utzirik.

MOZKOR BAT OINETAKOAK KENTZEN

Txomin mozkor hutsa zen; noiznahi zihoan etxera mozkor-mozkor eginda. Eta ez mozkortuta bakarrik, baita zalaparta franko atereaz ere. Besteak beste, ohean sartzeraoan zuen ohitura ere, polita zen. Lehenbizi, oinetako bat eta gero bestea bota eta egundoko zaratak ateratzen zituen.

Aspertuta, beheko gizonak, esnatu egiten zuela eta mesedez oinetakoak polikiago kentzeko esan zion.

Hurrengo egunean ere beti bezala etxera etorri zen bete-bete eginda eta ohean sartzeko, oinetako bat bota zuen eta bai zarata galanta atera ere. Orduan, beheko gizonakin gogoratu zen eta beste oinetakoa poliki-poliki erantzi eta ohe ondoan utzi zuen eta ixilixilik oheratu.

Biharamonean etxe-aurrean beheko gizonarekin topo egin zuen eta esan zion:

—Atzo nahiko lo egingo zenuen bada!

—Ez, sekula baino guttiago.

—Zer, ba?

—Beste oinetakoa noiz botako ote zenuen zai hainbat denbora egon nintzen esna.

HASERRETUTA

Egun hartan Mikel haserre joan zen etxera ikastolatik. Ez mai-xuak jo zuelako, ezta ere beste mutikoren batekin haserretu zelako. Ez, ez zitzaion holako ezer gertatu. Amak ere, zerbait gertatu zitzaiola uste zuen.

—Ez, ama. Jainkoa toki guzietan dagola esan digu maixuak, eta nik gezurra dela esan diot.

- Baina... nola esan diozu gezurra dela?
- Horrela delako.
- Baina ez ahal dakizu Jainkoa toki guzietan dagoenik?
- Bai, baina Xabiartxoren oilategian ez.
- Ezetz?
- Ez, oilategirik ez du ta.

HIRE GOGAMENA NERETZAT, NERE DIRUA HIRETZAT

Munduan beste asko bezala, bi anaiak hasi omen zituzten abadetarako ikasketak. Baina txiroak zirenez ikasketak utzi behar izan zituzten.

Egun batetan mendira joan ziren eta gizon bat ikusi zuten. Ingu-ratu zitzaien gizona eta galdetu zien ea zer egiten zuten.

—Apaiz izateko asmoakin ikasten hasi ginen baina, dirurik gabe gaude eta utzi beharra izan dugu —erantzun zioten.

Esan zien orduan gizonak:

—Nik emango dizuet zaku bat urrez beterik eta ontzi bat eta datorren urterako asmatzen baduzue zerez egina den ontzia, urrea zuentzat izango da eta asmatzen ez baduzue zuen gogamenak neretzat izango dira.

Joan ziren biak etxera eta Jainkoari galdatzen zioten ea zerez zegoen egina, baina egunak joan eta ezin asmatu.

Urtea betetzeko egun bat falta zelarrik, anaia haietarik bat mendira joan zen eta leize baten atean jarri zen.

Han zelatan zegoela ontzia eta urrea eman zion gizona ikusi zuen sorgin batekin dantzan eta halako batetan esan zion sorginari gizonak:

Bihar garai hontarako bi gazte izango ditugu hemen.

—Zertarako? Galdetu zion sorginak.

—«Ontzi bat eman nien: asmatzen baldin bazuten zerez zen egina urrezaku bat agindu nien eta bestela haien arimak neretzat izango zirela.»

—Zerez egina da bada... ontzia?

—Ostiral eta Larunbatetan ebakitako hatzazalez.

Leize atean zegoen mutilak, elkar hizketa entzun ondoren, etxera joan zen.

Hurrengo egunean joan ziren bi anaiak mendira eta agertu zitzaien gizona zaldi gorri baten gainean eta galdetu zien:

—Ba ahal dakizue zerez egina den ontzia?

—Ostiral eta larunbatetan ebakitako hatzazalez —erantzun zioten. Eta urre zakua hartu eta ikasketetarako beste izan omen zuten. Hau egia baldin bada, sakelean sar, gezurra baldin bada atera ez dedila.

GIZON ITXURAKO AHUNTZA

Bestetan bezala, eibartar agure batzuk egurastera joan ziren. Bata, Asti Moskatela zen, abeslari ona izandakoa, inoiz Milango antzokian ere opera abestutakoa. Beste lagunetako bat Irusta zen, okotzean ahuntzen antzeko bizarra zuena. Baina arratsalde hartan ez zen lagun artean. Joan da joan agure taldea, nahiko urrutira heldu ziren eta ahuntz bat ikusi zuten sasi gainean.

—Ene, ahuntz horrek du Irustaren antza! Moskatelak esan zuen. Baina inork ez zion erantzun eta ustez han bukatu zen kontu hau.

Ustez bai, horixe, baina gizonek ere askotan piku luzea izan ohi dute ta, behintzat Irustaren belarrietara zerbañt heldu zen.

Biharamonean, Irustak Moskatela aurkitu zuen kalean eta esan zion:

—Zu, Asti, zer esaten ari zara hor, kale bazterretan? Nik ahuntzan antza dudala?

—Ah —dino Astik— ipuilariren bat joan zaizu, ezta?

Bada, ez da egia, nik ez dut holakorik esan, beste hau baino: Zera... ahuntzak zure antza duela, ta inor kexatzekotan ahuntza kexatu beharko litzateke eta ez zu.

MAKILAKIXKI

Munduan beste asko bezala, etxe baten bizi omen ziren aita eta hiru seme. Egun baten semerik zaharrenak aitari morroi joateko bai-mena eskatu zion eta joan zen urruti lan bila.

Urtebete egin zuenean baserri baten asto bat eman zioten soldatatzat «egin ezazu urrea» esanaz, urrea barra-barra egiten zuena.

Mutila asko poztu zen eta ongi bizitzeko gehiagorik ez zuela behar eta etxerantz abiatu zen. Gau hartan ostatu baten gelditu zen eta oheratzean «egin ezazu urrea» astoari ez esateko ostalariari esan zion.

Baina mutila lotara joan zenean, hitz haiek esanda beretzat egingo zuela urrea, ostalariak pentsatu zuen eta astoari igurtzi batzuk egin-da esan zion:

—«Egin ezazu urrea» eta urre moltzoa egin zuen.

Hori ikusirik, asto harek aberastuko zuela pentsatu zuen eta hura ezkutatu eta bere ordeaz beste bat imini zuen.

Biharamonean, nahi beste lo eginda, mutila jeiki zenean berea zelakoan hartu zuen astoa eta ahalik eta azkarren etxera heltzeko gogo biziakin irten zuen.

Etxera heldu zenean, nolako astoa zekarren aita eta anaiei esan zien, eta adi jarri ziren zer ikusiko ote zuten baina urrea egiteko esaten zionean, gorotzez bete zuen azpian jarri zion maindirea.

Handik egun batzuetara bigarren semea joan zen morroi eta urtebete eman zuenean mahai bat eman zion nagusiak lansari bezala, «jarri bazkaria edo afaria» esanaz, bazkari edo afari ederra jartzen zuena.

Baina hari ere ostatuan, berak ez zekiela, aldatu egin zioten eta etxera heldu zenean mahaiak ez zuen ezer jartzen.

Azkenez, semerik gazteena joan zen morroi. Honeri urtebete eman zuenean makila bat eman zioten, bere aurrean esanaz «makilakixki» bere jabea ez beste inguruko denei ikaragarritzko zartakoak ematen zizkiona.

Ostatuan sartu zenean, makila hari «makilakixki» ez esateko esan zion ostalariari. Baina mutila oheratu orduko, makila harek ere zerbait ona izango zuelakoan ostalariak «makilakixki» esan zuen.

Eta esana bai ondo damutu ere! Makila hasi zen zirt eta zart, jo bata eta jo bestea eta han ziren beste morroiak garbitu beharrean.

Larrituta ostalaria, makilan jabearengana joan zen makila geldi arazteko esanaz. Mutilak ezetz erantzun zion, hortarako bere anaiei lapurtutako asto eta mahaia emateko lehenbizi. Eta nahi eta nahi ez, eman egin behar izan zituen, bestela makilak txikitu egingo zuen eta.

Anaietarik gazteena makila, asto eta mahaia harturik etxera joan zen. Eta handik aurrera eta bi semeak ongi bizi izan ziren.

Eta haiek ondo bizi izan baziren, gu ere ondo bizi gaitezela.

BAKOITZAK BERA

Behin batean mutil batek bere gurasoei senipartea eskatu zien, eta kontuak atera ondoren behi eder bat tokatu zitzaion. Ba zihoan pozik feriarra behia saltzeko asmoakin.

Baina bidean zihoala lapur-etxe baten ondotik igaro behar zuen

eta hauek mutikoa ikusi zutenean bidean irten eta behia kendu zioten.

Mutikoa, penaz beterik joan zen berriz herrira eta emakumez jantzita, bizarra kendu eta berriz lapur-etxera bihurtu zenean lapurrak ez zuten ezagutu.

Lapur-nagusiak ikusi zuenean, berekin lo egin behar zuela esan zion, baina emakumeak ezetz eta ezetz.

Nagusiak berriz, baietz eta ez izateko beldurrik esaten zion, beste lapurrak gela baten sartu eta atea giltzez itxiko zuela. Eta gauean beste lapur guziak giltzaperatuta, nagusia eta biak gelara joan ziren.

Emakumeak, bera sartzeko lehenago ohean eta alkandora kentzeko eskatu zion nagusiarri eta hau egin ondoren gona-pean zuen makila bat aterá eta dinbi-danba hasi zitzaion lapurrari esanaz:

—Neu naiz behiduna, neu naiz behiduna.

Eta bizkarrean ederrak eman zizkion, bizkar guzia beltzituta utzi arte. Lapurraren zaratak ez ziren ere nolana hikoak izan! Baina lapurrak giltzapean zeudelarik ezin zuten ezer egin, eta emakumez jantzitakoak kutxa bete diruz hartu eta ihes egin zuen handik.

Handik ordu batzuetara osagilez jantzirik joan zen lapur-etxera eta nagusiaren gelara sartu zen. Saietsak hausita zituela eta inguruko eskualde batetik ekartzeko belar batzuk, horrela laister sendatuko zela.

Bidali zituen lapur guziak belar bila urrutiratu orduko berriz hasi zitzaion:

—Neu naiz behiduna, neu naiz behiduna!

Eta berriz bero-bero eginda utzi zuenean beste kutxa bat hartu diruz beterik eta joan zen.

Hirugarrenez, joan zen beste lagun batzuekin eta etxe ondora heldu zirenean:

—Hemen behiduna, hemen behiduna! hasi ziren denak batera dehadarka.

Lapurrek hori entzun zutenean denak etxetik ihes egin zuten. Joan zen mutilla berriz nagusiaren gelara eta.

—Neu naiz behiduna —esanaz lehen baino handiagoak eman zizkion oraingoan, bere behia harturik etxera abiatu zen.

Eta hau horrela ez ba zen, sar dedila kalabazan eta irten Gasteko plazan erdi-erdian dantzan.

ABERATSAREN XIMUA

Gernikako etxe eder baten aberats zeken bat bizi zen. Berak ere ez zekien zenbat diruren jabe zen. Baina hari txakur-txikirik aterako zionik ez zen. Ez dakigu zertarako baina behintzat ximu baten jabe zen.

Behin, nagusia kalean zela, hauzoko gizon bat eskale bateri leihotik dirua botatzen ikusi zuen ximuak eta berak ere beste hainbeste egitea bururatu zitzaion. Hartu zuen nagusi aberatsaren diru-kutxa eta urre ta zilarrezko diruak eskukada kalera jaurtitzen hasi zen. Hori ikusirik, jende pila bildu zen leiho azpian ta zeinek baino zeinek diru gehiago hartu nahian elkarri bultzaka ta borrokan ekin zuten.

Diru-kutxa ia bukatu zenean nagusia agertu zen eta gertatzen zenaz oharturik bere burua bi eskuekin heldurik esan zion:

—Aberere kirten madarikatua, nik garbituko haut!

Eta esan zion hauzoko batek:

—Lasaitu zaitez, erokeria da benetan ximuarena baina ez da txikiagoa izan zuk egin duzuna ere, dirua aurreratu ta aurreratu, ez zuretzat eta ez beste inorentzat onik gabe.

ABERE SALTSA

Behin ezertarako gauza ez zen asto zahar bat zuten baserri baten eta esan zuen ugazabak:

—Jateko baino ezertarako balio ez duen asto zahar hau hil egin beharko genuke.

Astoak hori entzun zuenean etxetik ihes egin zuen. Eta joan-dajoan zihoala zakur batekin topo egin zuen eta horrela esan zion:

—Zertan zaude zaunka egin gabe?

—Bihar hil egin behar naute zaharra naizelako eta ezertarako gogorik gabe nago.

—Zatoz nerekin hortaz —esan zion astoak zakurrari—.

Eta kontu-kontari bidean katu bat ikusi zuten leiohan karraxika eta esan zioten:

—Zer da, katu, horren larri egoteko?

—Txitxi bat arrapatu dudalako, hil egin nahi nau nagusiak.

—Gu ere zu bezalako kontuekin gabiltza eta zatoz gurekin, hiltzea baino hobea da gaizki bizi izatea.

Eta haiekin joan zen. Eguerdi inguruan oilar bat ikusi zuten burdi baten azpian, gordeta bezala, eta dinote:

—Zer duzu, oilar, ordu hontan kukurruku egin gabe?

—Bihar ordu hontan eltzean egongo naizela gogoratzen zaidanean, ezertarako gogorik gabe nago.

—Ez zaitetz beldurtu eta gurekin etorri, patatak jango ditu bihar nagusiak. Eta han joan ziren. Geroxeago ahari bat arkitu zuten, ez bee eta jan ere egiten ez zuela.

—Zer da bada, halako belar goxoa izan eta jan gabe egoteko?

—Bihar zortzi nagusiaren alaba ezkontzen da eta nahi beste aragi izan dezaten gizontzera ekarri naute.


—Zatoz gurekin —eta horrela egin zuen.

Eta joan-da-joan gaueko hamaikak inguruan leihotik argia ikusten zen etxe baten ondora heldu ziren. Lapur-etxea zen eta gaua han igarotzeko gogoa etorri zitzaien. Inguratu zirenean zakurra zaunka hasi zen eta aharia ateari topetakoak ematen.

Lapurrak ikaratu egin ziren, heurak baino lapur gaiztoago batzuk zirelakoan. Ahariak atea hautsi zuen eta denak barreneratu ziren. Astoak argia itzali zuen eta bakoitzak tokirik onena hartu zuen: su ondoan katua, ximini gainean oilarra, ate ertzean zakurra, ikuiluko atean astoa eta ate ondoan aharia.

Guzik ixilik zeuden baina lapurrak hango izkanbilen berri jakin nahian zozketaz erabaki zuten sukaldera nor joan. Handik ordubetera lapur bat joan zen sukaldera eta katuarekin topo egin zuenean honek hatzekin min eman zion eta honi iheska, oilarrak erpea begian sartu zion.

Beldurtuta ihes egin zuen eta besteak itzultzen ez zela ikusirik alde egin zuten eta abereak lapurren afaria lasai asko jan zuten.



BIOTZ - BELTZ

Gizon arek izenaren izana izan. Ain maltzurrik eta gororrik ia iñork ez zuan ikusi. Gizona bai zekena! Arek bizi izan zan egunetan morroi eta iopu bat baño geiago bizirik lurrean sartu zituan. Astotzar aundigorik!!

Ala ere, zorioneko zedin, aukera guztiak ba-zituan: etxe zabala eta apaña. Ua eraiki zuanean bere menpekoak bizkarketari urrutiko arrobotik puska ederrik ekarri zioten: atxurdiñezko ekai bikañak. Atari-antzera, etxearen biran estalpe arrigarria eta beste zernai zertxo, begi-betegarri eta soñarentzat atsegingarri. Zelai aundiak eta baso itzalak eta aietatik aberastasunik aski biltzen zizkioten.

Arek, bere gogoko ez zuana, auxe: langille alperrei makilka ekitea... ezpañez beintzat orrela esaten... bañan, lan orixe ere pozik egiten zuala zirudian, eta egunen betiko asperra arintzeko aña bazuala arek uste.

Urteak ioan egiten dira. Iñori eta ezeri itxoin gabe.

Zenbait urte zituan galdetzen ziotenean, erantzun garbirik bein ere ez. Eta, ber-berak, giza-amaiarenik iñondik ez zuan aipatzerik ere nai izaten. Zertarako?

Bañan, marmarlari maxiatzallek eta iñoren isillekoa asmatzen oituek larogei urtetik gora zala esaten. Eta... zergatik ukatu? Egi utsa izan: agure gaiztoak ia larogeitamar urte zituan. Oso-osorik bere sorbaldan atzera utziak.

Olakoxe gau ittoan, gure agure maltzurri irudipen txarra etorri zitzaion. Alegia: neskazar sorgin baten antza artuta Balbe atarian zai zegokiola. Goizean ieiki zanean, urduri eta geraka onela asi zan:

—Zaldi zuria ekarri azkar, egurastera irten nadin.

Eta berekiko onela ziarduan: «Balbe sorgintzarrak ni, emen nere »etxean alpertzar aundi bai'nintzan kali bear nauala? Gogaikarri-»gogaikarri orrek, nere billa etorri baldin ba'da, lenbizi eguzkitan »bere burua ederki kiskali bearko dik.»

Bere etxe eta estalpe artan eta auzoan ere Biotz-Beltz'ek ume-sail aundia zuan, eta errukarri aiek zerbaiti igarri zioten, eta agureari ez utzi nai etxetik irtetzen. Arek, begietatik sua zeriola:

—Zer dezute? Nai dedanik bein ere ez dedala egin bear, ala?

Eta, bere zaldi zurian zalko, uxturik aundienean an abittu zan!

Orrilean zan. Ordurako txoriek lanean asiak ziran eta aiek kabigintzan gogoz ari. Eta, txiolari aiek zaldi baten agertzeak ez zituan batetxo ikaratu. Palmondoak aizetxoaren eragiñera kulunka ederrean begientzat pozgarri. Goizaren eze biguñean, agureari gazteago-tzen ari zala zirudion. Alakoxeak dira izan ere Ipar-Amerika'ko Florida'tik Venezuela bitarteko ugarte-sail aiek!! Gure zaldunari nork esan bear zion, oraindik ere urte askuan antxe ibili bear ez zuanik?

Ibili eta ibili bazkaltzeko gogorik ez. Ioan eta ioan zaldia aspertzen ez! Eguzkia bein ere baño epelagoa. Goiko ortze urdiña gutxitan bezin garbia. Eta izarrak agertzeaz ziralarik, zaldi eta zalduna irixka batera iritxi ziran, itxasoaren ertzera... Uaxe bai baztar politta... Etxeak, ordea erdi-erorian eta atea oro zabal-zabal. Gaiztorik billauenak berak angoei ezer ezin ostu! Txiroaren-txiroz ma-xangoek baño landerrago izan ango biztanleak.

Agurea arrandiro auzotxoarren erdi-alderaño'edo sartu zalarik, turuta-ots zorrotzari norbaitek ekin. Liparrean giza-sailla bildu zan. Illargitan alako giza-multzoak bioztunik aundienari ere beldurra sartu zezaiokean. Gizon aiek guztiak, beren sorbaldetan norbaitek ebaki-ebaki egin zituaneko xakiak zituzten. Illuntze artan zekusaten zalduna nor zan geiegi zekiten eta guztiak antxe ekin zioten:

—Arako Eguerri-gau artan zure etxe-atarian bizirik sartu nai izan ninduzun lurrean.

Besteak:

—Aaztu zaizu, noski! Bañan, neri ez: zuloan leporaño lurrez eta zakarrez estali zuk ni, eta zai antxe egon ziñan: txingurri gorriek nere begiei ozka asi ziranean, biak iango zizkidatela iduritu zuri. Eta pozik ziñan!

Urrengoak:

—Ni Domingo naiz. Arratsaldero nere sorbalda ederki larrutzen zenidan, zigorka nekatzen ez ziñala. Nere soin osoa ezkuzatarra aña ere ez zan: guztia aunditsuz betea eta odola besterik ez zeridala, nere errukirik zuk ez! Emen baserriko agure antzetsuak berak zekian sendagaia bializidan... eta, oñez ibiltzeko aña bixkortu nintzalarik, zure bazterretatik ies egin nuan. Bai! Al nuen urrutien! Itsas-ertzean izkutatu giñan, umeak emaztea eta neroni, eta alako batean zere

gorrotoan aurkittu ginduzun eta an bildu zenituan orbel eta zakarrez txabolatxoari su eman zenion, antxe kearen-keaz itto gindezen eta betiko ondatu.

Oraindik, berendiak:

—Gogoratzen al aiz? Akollo nauk. Nere atzetik ire zakurrak axatu ittuken. Iesean geiago ezin nuala zerraldo erori ni, eta eskuak eta oñak lotuta labearen aora iausti ik ni, arkume-nitzan erre nendin. Ikusten? Oraindik ere erre-uneak ementxe zetiat.

Gau guztian olaxe.

Bakoitzak berrein-berri zekarrenak lénagokoek esandakoen antzik ez. Gezurra zirudian, gizon batek ainbeste gaiztakeri asmatu izatea.

Kukurruku-otsa, Biotz Beltz'ek nai baño beranduago asi. Ua entzu zuaneko agure gangarrak zaldiari eragin zion, batzarrean bildu ziran gizon aien artetik aurrera egin zuan, eta oxertzeko argi xirrintatara arin bezin arin zioala antxe ezkutatu zan. Bakoitzak bereak esan zizkiotelarik, gizon aiek oraindik ere beren ikara iabaltzeke, so eta so zeuden agurea bere gorrotoan itzulio ote-zitzaian. Bañan ez! Aldaparen barrenean aurrera eta aurrera geiago ez zuten ikusi.

Ez zalduna, ez zaldia lengo etxera eta astalpera ez ziran itzuli.

Oraindik ere, gau artan batzarrera bildutakoek, beren buruei galde ta galde dituzu:

—Non amildu ziran? Iratxoren batek eraman al zituan? Sulezean al ditugu?

IRU GAZTE

Iñon izan dan miraberik ederrena, garai aietan, Birmania'n bizi zan, mendirik goienen bestaldeko sakoste alaian. Nexkaren aitak bere poza iñondik ezin estali. Esaten:

—Nere alaba?

Ez det ez salduko!!

Eta delako alaba ederra bere aitaz gañera iñor maitatzeko biziko al zan?

Aitak igarri zion.

Ua bere kautan antxe asi zan, alabarentzat ongi zitekeana auke-ratu bearrez, eta ere berean aginterriko ondarea artzeko egokiena nor izango ote-zan asmaka.

Iri artan iru gazte ziran. Nor baño nor! Elkarrekin adiskide. Beren artu- emanetan lagunarentzat izkutukorik gabe. Aginterriko aundizki-etxe-lanetara ere agertzen ziran: alakoxe ikuskizun eta ospakizun aundiak ziranean, noski! Eta iruko orrek bai edertzen ango iaikizuna!! Orrela, alaba ezkongaiarentzat iru aietako bat aukerako zitekeala iruditu gure aita orri. Beraz, aitak alabari:

—Eder! Zertan zaitut?

Umetxo ere ez zera... eta, bai al dakizu? Gure etxeari eusteko abe iaio litzakena emenditxek urruti ez dezu. Ondoren, berriz, ni ez naizenean errian lëndakari ere izan liteke.

Ezezka asiko al zazkit?

Ongi dakizu: gurera maiz agertzen diran iru orietako bati itzein bear diot. Ez al didazu ezertxo ere iardesten?

Gazte oriek azkarrak dituzu. Asko ikasiak. Antzetsuak. Bularatsuak. Ezergatik ikaraten ez diranak.

Ero-eroan aukeratu ez ditudala iñork esan ez dezan, zorrotz aztertuko ditut. Bazterrik-bazter ere bialiko, urrutietan arkittuko luketen aberastasunik ederrena zuri ekartzeko eta ezkontza-sari izan dezaten.

Txarki al deritzaizu?

Bañan...

Nexka gazteek buruan zer darabiltzen nork igarri?

Aita altsu-aberatsaren alabari iru gazte aietakorik ez begiko. Nexka Assam'go seme-lêna naiko zukean. Izan ere mutil orren gaitasunak andik etorri oi zan salketariari entzun zizkion. Ua bai giza-seme lerdena. Mazala. Maitagarria. Alderdi artako alabak sallean atzetik zerraizkion. Ezik, mutil arek iakin urrutietan mirabe bikañak ba-ziralakoa. Bitartean aitarren nagusikeriak biotz gaztêtan oi dan maitasun-irrikaren xarma oztu eta ozpindu egiten!!... Geroan, erria zuzendu bearrak bi biotzek lezaketen aldi xoragarrien argi ederrari itzal egiten...

Gaxoa!! Aitari ezetz esateko lotsa! Eta, bai esateko mugonik iñola arkittu ezin. Illuntzetan, eguzkia borobil-borobil ikustea aizu izaten zuan une aietan, baratzara irtetzen zan eta aritzondo gazteari sorbalda emanik, urrutira so eta so egoten, ziolarik:

—Antxe, mendi-atzean, neretzat erdi-itzali eta gorri dan eguzki orrek dizdiz ederrena edaten duan sakoste aietan... antxe, nere mai-tea! Nere izate osoaren iaun eta iabea!!

* * *

Eta, iru gazte aiek lur arrotzak ikerri-bearrez arin irten ziran. Nexka errukariaren aitak esan zienez, al zuten emai eta bezuzarik beñena ekarri bear zuten.

Bakoitza bere aldetik zebillen. Ordurarte adiskide izan ziran arren, orain lan berrietan ziralarik, bakoitzak berea bakarrik nai. Zergatik esango inork besteri non zer arki zezakean? Batak besteari aurrea artzen ba'zion, aietako bi ez al ziran ezer gabe gelditu bearrean izango? Eta, orduan nori egotziko errua?

Ioan eta ioan. Ibili eta ibili. Ikerri eta ikerri. Ikusi eta ikusi. Aztertu eta aztertu. Bein baño geiagotan gauetan lorik ez. Euriak eta ekaitzak iasan bear. Zingira eta ibi loitsuak zapaldu. Iri giza-tsuetan alderrai. Baso itzaltsuetan mamuen beldurrez barnea ittotzear eta biotza urduri...

Arratsalde batez Assam'go atêtan arrotza deika. Barrandariak galdeka itto eta zoratu bear zutela:

—Agintari lénari itz-egin nai nioke.

—Ik? Zer esan bear diok ari? Kuzkuzean ez al ator?

Eraman zuten.

Ain zuzen, orduantxe bertan agintari nagusia, beste arrotz batekin izketan ari. Arazoa garbittu'edo zutelarik, irugarren arrotza agertu zitzaien.

Gôrago aipatu ditugun zaldun aiek, beren kuttunarentzat altxorbilla zebiltzalarik Assam'go iaunarekin aurkittu ziran. Elkarrentzat benetan arrotz bai'liran Assam'goari esaten:

—Nik? Orixe! Ikustekoak ikusi ditut. Oñez eta ler-egin bearrez zazpi oñetako-aldi urratu ditut. Amatxok berariz neretzat iositako oñetako eder eta apañak, gañera!

—Nik? Esaten ere ez nuke asmatuko! Mendirik garaienak gôra eta bêra ibili naiz. Enda endari aserrerik garratzenean erasoaz eta aien artetik arin baño ariñago ies-egin nuan.

—Ni, azkeneko nere burua zuritzen. Mamu eta iize beldurgarriek ni ez ikaratzen. Aietako amar buru uzkaillita ona emen nere besoan xaki mingarriak.

Ezik, olako ipuien azpian beste zerbait izan zitekeala eta delako agintari nagusiak ederkitxo atera zien irurai beren gogoetan zerabilkitena. Etoi eta izkutu-iaikintzalle zirala iruditu zitzaion eta irurak giltzapetzeko itzalera iaurti zituan.

Iru gazte aiek olakorik ez zuten uste. Inôri gaitzik egin ez eta ala ere gaizkin galduak liran ez artu!

Elkarrekin espetxean aurkittu ziralarik garbaikizunik ote-zuten ikusteko aukera ederra izan zuten. Beren buruak aztertu eta barne illun artan zergatik arkitzen ziran beren buruei galdetu. Eguzkiaren argirik sartzen ez zan barrunbe artan, bakoitzari bere adimenak argi-egiten eta elkarrekin onezkoak eratu bear zituztela bakoitzari iruditu. Eta, zârrenak:

—Errukarri ez al gera? Bakarka eta zikoizkeriz geron ona non zitekean billa eta billa ibili gaittuk! Ez diagu asmatu! Baizik eta ementxe gataxudek ezertxo ere aurreratu eziñik. Oraindik apurtxo elkartuko ba'giña, geron buruak gaizkatu eziñik ez genikek. Nik geiegi ere ba-zekiat gure erriko alaba lēnak iñor ere ez gaituala maite. Ez ote-genikek obe, ari bere biotzeko asmoak bete ditzan aukera uztea? Au guregana erakarri dezakegunik ez diagu uste izan bear? Lan alperra oso!!

Eta, besteak:

—Nik zerbait geixeago ere ba-zekiat. Lenbizi: ik esan dekana, gu ez gaituala iñondik onartzen. Gure berri ondotoxoz zekik! Alderantziz, ua ez zekiat nongo gizaseme bikaiñaz maite-mindurik diagu. Eta, maite duanaz biltzen ez dan bitartean arek bere onik ez dik izango.

Irugarrenak:

—Geron mintzoan darabilgun nexka orrek maite duana *Dungas* izeneko dek. Are: *Dungas* ori, ementxe itzalean eman gaituan Assam'go nagusi iaunaren semea diagu. Eta zer gabiltzan iakiten duaneko, delako iauna gu irurok garbitzeko beldurrez ez dek ibiliko.

—Gizon orrek ba'ote-zekik gure erritar degun nexkak bere semea maite duanik? Ez ote-ukek zûrtasun aundigokoa izango, gu irurok nexka orrekiko amets utsalak alde batera uzten ditugula aitortzea? Garbi eta gezurrik gabe egia esan. Agian, illunpe ontatik aterako gatziztik.

Eta, biaramuncan nagusiari itz-egin bear ziotela, eta zaitzallék arengagana eraman zituzten. Erderaz ari bear izan zuten. Ala ere, oso poliki asmatu zuten eta nagusia oso poztu zitzairen. Nagusi algutzizunak aiek azke utziz irabazi zezakeana baño zerbait geixeago nai, eta irurei zerbait emango ziela adirazi zien. Urrengo egunen batean beren aberrira itzuliko zirala eta ez esku-utsik. Nagusi-ak berekiko esaten:

Nexka orren aita oraindik bein ere ikusi ez dituan esku-erakutsien iabe egin nai nuke, bein betiko nere semearen zale gerta dakidan. Zer aukeratu ez dezala asmatu... ez, bein-beingoan, beintzat. Are gutxiago onera etorri diran oietako bakarrik.

Arratsalde artan azti, iakintsu, asmale eta salketari aundienak bere etxera deitu zituan. Bakoitzak bere ogasunetatik al zuan obeena ekarri zezaiola. Orrela, aietako batek betaurrekoak ekarri zizkion; bañan, azkeneko urrutienetako zertxoak ikusi al izateko, bezin onak. Urrengoak besaulki apaña: an eseri zitekeana, liparrean, aizerik aundienak baño ariñago zeramakean gôra txit gôra. Irugarrenak gurin

arrigarria ekarri zion: miñik gaiztoena bat-batean sendatzen zuana, alegia.

Oraingoan gure gazteak pozik ziran. Betaurrekoen iabeak berealaxe iakin nai zer iadetsi zuan eta begira asi zan. Arritturik eta otsaundiz zion:

—Au dek au! Itsaso zabala zekusat. Mendiak. Erpin-erpiñeko lañoak. Gure sorterrria. Bakaldunaren etxea. Ene! Ene!! Ene!!!... Gure ametsetako alaba antxe: zurbil. Gaitzak io-ta. Il-zorian!!!!...

Aulki-iabeak:

—Goazen bereala. Eseri emen! Izar guztiak baño gôrago abittu ziralarik, atzera begiratzeko astirik gabe, alabatxo errukarriaren oñetan ziran.

Irujarrenak:

—Toki! Toki!! Toki neri!!! Eta zeraman gurin arrigarria sudurrera aurreratu zion. Guriñaren lurriña edoski zualarik nexka, begiak zabaldu zitualarik irri-parrez asi zan. Iaiki eta aldameneko zizalluan eseri... eta oso bixkorturik itz-egiten asi.

Nagusiak galdetu:

—Zer asmakizun atera dizkidazute? Zuek bai gizon argiak!! Eskarikasko! Guztiak ittun geunden. Goibelik. Etsi-etsita. Bazterrak ikusten ibili zeratenez gero maitagarriago zaitzudet.

Eta, nexkaren aitari buruauste berriak sortu zitzaizkion. Bere alaba aietako nori eman? Zozketan asiko al zan?

Besteren lanak eta eziñak eta kezak eta goganbearrak zer diran asmatzea bezelako iakintzarik ez! Eta zaldun gazte aiek, gure gizona zer-egin asmatu eziñik zebillela, berialaxe igarri. Irurak ioan zitzaizkion eta garbi itz-egin:

—Nagusi! Zure alabarentzat aukeratu bear dezuna ez gera gu. Ederra bezin ederrak maiterik eta aspalditik aukeratua duenik badizu. Ongitxo igarrita gaituzu. Assam'go nagusilênaren seme maza la zure alabak nai duana. Gu an izan gera, eta gazte iaioa ikusi degu. Oso egoki osasutako gizasemea. Larrantz ederrekoa. Bikaña. Ekin-tza on guztietarako gai. Buru argiko. Eta, batez ere biotz-oneko. Eta arek, guzti ori, aitarengandik dizu. Bai ta, ongi dakigu, biak aita eta semea pozik lirakeala mutilla eta nexka ezkontza zuzenez elkartuko ba'lira. Ez dakigu noiz... Bañan, zure alabak ortzean izar argi zoragarria ikusi zuan: utzi akiozu izar orren istara ibiltzen. Biok irabaziko dezute. Uste baño geiago ere bai!

Guk ezeak eta igarrak ikusi ditugu, geron gurasoen babesetik urruti ibili geran ortan. Bai ta: bearrak beste zerbait erakutsi digu: izan ere bakoitzak gerona besterik maite ez genduala oker genbiltzanean eta amildegira uxturik bizienean gindoazenean, elkar-arte-

ko erak ekarri zizkigun. Zure onerako eta zure alabaren alde lan egiteko elkartu giñan. Egin diguzunez ederki ikusi degu.

Nagusiak besterik ez nai, eta zaldunengandik ikasi zuana alabari esan zion. Ari, eguzkirik argienaren eguna zabaldu zitzaion. Assam' era geznariak biali zituzten. An, berriz, iñongo berririk alaiena izan zutela uste zuten.

Olakoetan oi danez aruntza-onuntzako luze gabe itundu ziran eta eztaiak izan zituzten. Bazkari eta orrits aundiak. Abestiak eta eresaldi zaratatsuak. Kirolik aipagarrienak. Illuntzetan margodun argiak eta su-ziriak.

Guztiak zoriontsu ziran!!

Irurogeitamazazpitan Zazpi Aldiz!!

Apirka'ko baso itzaltsuetan euskaldun bat baño geiago ibili izan zaizkigu. Lavigerie bulartsua ere bai, eta arek eraikitako Anaidi'ko asko.

Eta, alderdi aietako *Kamerun* deitu lurraldean Belgundariak ango gizon zintzoa kistartasun urez ukuzi. Ua bai gizonaren poza! Kepa!!... Erroma'n bertan lënbizi izandako Aita Deuna. Ain zaindari ospetsua eman ziolako gure Kepa au bere ongillearentzat esker-onez genduan.

Gizona oso zintzoa zan. Bai bere erabakietan atzera egingo ez zuana ere; eta, gutxi-asko bere buruari eutsiko ziona. Beraz, bere biotzeko aitak alakoxe atarralditxoaz eraso oi zion:

—Kepa! Kepa!! Arri konkorezko erantzunak ematen zale ote-zaitudan irudituta nauzu. Iñori zuk ez amor eman bear. Ez ote-da geitxo? Zure izeneko Kepa deunak besterik egingo zukeala ez al zaizu iduritzen?

Olakoak entzunez gure Kepa berri onek ezpañaaik estutzen zituan.

Goiz batez etzangutik iauzi aundiz irten eta estalpeko atean, uste gabe, auzoko kankallu baten aurrean gertatu. Eta Kepa'k aurrean zuana nolabaiteko gizona izan. Eta auzoko guztien ustez okerra geitxo maite zuana ere bai. Okerzaleak Kepa'ri, ikusi zuaneko:

—O!! Bere burua maitetxo duan kistarra!

Ori entzunaz Kepa'k atzamarka begiak ere aterako zizkion... bañan, Eroslearen aolkuaz gogoratu zan: gaizki egin digutenei oldez asketsi bear diegula. Eta, kankalluari ezer erantzun gabe, Kepa bere lanetara ioan.

Zuzenean bananak bildurik zituan saskia etxe-barrura eraman nai izan zuan. Aterpera sartu... eta, auntzak ian zizkiotela!

Kepa'k:

—Errukarria izango ez nai, ba!! Orain ere gosari gabe ni!

Bertantxe auntzen iabeagana abittu zan, eta entzutekoak entzun bearko zizkion. Etxadi artakoek ere beste bein ikusiko zuten Kepa'k izketan ba-zekiala. Bañan, berriro arako iraiñak âztu bear dituguna gogora zetorkion:

—Adizu, Kinbonbo adiskide: zure auntzek gaiztakeria egin di-date. Ez naiz, ordea, deadarka eta oñonka asiko. Ala ere, ordañez gosaritarako zerbait nai nuke.

Arek:

—Izkirimirika al atorkit? Ez dek berriketarako gogo txarra eka-rrri! Auntzek dabiltzala ortik! Eta, ongi dakik: ni auntzekin ardallan eta erasian ez nauk ibiltzen. Ua! Etorritako tokitik ua!!

Bañan, Kepa'k berekiko:

—Auntzak ergelak eta auntzen iabea ez gutxiago! Egia auxe: zelai eta muñoen Egille eta lankoak igaliak elduaraziko dizkigu.

Agian, ezer ulertuko ez didanez gero, zergatik gizontxo oni eki-ñean eta erausian ariko natzaio? Banana-leka poxitxo dala-ta nere odola mindu egingo aldet?

Kinbonbo'netik itzulian bere etxe atararira eldu zaneko, salketan ibiltzen zitzaion bizkarketaria zai. Amar baratxuri-sortatxo Kepa'k ari eman saldu zezazkion eta orain bederatzi izan zirala esanez zetorkion:

—Sortatxo bakoitza bost txanpon: aruntza-onuntzakoarena sortatxo bakoitza txanpon laurden. Guztia zenbait dan ba-dakizu. Ona, zillarkiak!

Aurpegian iñork igarriko ez ba'zion ere, Kepa'k odola irakin bizian! Gezurti maltzurri antxe bertan eraso naiko zion. Ebasle eta lardaskari! Ontan, kistar berriari Erode ta Pilat'enean Iesu Iaunak egari zituanak gogoratu zitazkion. Gure Iauna'k guztiei asketsi zien eta kistar berri Kepa'k, oraingoan beintzat, aurrean zuan ao-zuriari ez zion gaitzik egin nai.

Sukaldera sartu zan, eta sua piztu nai. Eta, sorta-egurra ez zioten bada ostu eta eraman!! Aurreko arratsaldean eguzki galdatan bildu zituan adartxoak izerdia mara-mara zeriola etxera ekarri, eta orain laurdena baño geiago besterentzat!... Aste osorako aña zukeana, eta... Olakoak neri bakarrik gertatzen zaizkit!!

Egurra ebatsi ziona nor zan asmatzeko ez zuan bere burua ausi bearrik. An auzoan beste ertzean bizi zan atso sorgiña... Eguzkipe guztian sorgin onik bai al da? Iñon ikusten ba'det ebaki-ebakiko

aunat nik, pattarzale zikin ori! Obe unake zerbelduta ibili baño, guztientzat maitagarri izango ba'intzanake! Auzoko eskudunari esango zionat, bai!! Beste bein ez dedilla nere etxera etorri berea ez duana eramatera. Ontan, belgundariaren etxeko txiliña entzun zuan: kistarrak otoitzera deitzen zituan.

Kepa'k:

—Bai-ta! Bai-ta!! Otoitzetara noan! An, beintzat, iñori gaizki egitekorik ez digute erakutsiko eta gure zorrak asketsi diazazkigula gure Aita'ri guk eskatzen, gerok ere askesten dizkiegula-ta geron zordunei... Bestalde, basoan egurra besterik ez. Eta, ni, oraindik ere delako amona sorgiña baño indartsuago iñongo sortarik audiena nere etxera ekarri dezadan.

Otoitzalditik bere estalpetxora itzulirik, aizkoratzako itai audiri eldu zion, egurra pitzatzeko... Bañan, norbaitek eraman zion, eta zorrotzaren orde z amuts eta koskaduna an zintzilik. Kirtenik eta esku-lekurik ere ez, gañera!

Kepa'k:

—Au ere bai, orain, garai-ontan! Etxez-etxe noan! Nik nere itaitzarra laister bezin laister aurkittuko det dagon tokian, ua bezelakorik iñork ez du emen!!

Beti bildots izango al naiz? Otsoek ni irentsiko! Orrela bizitzerik ez dago. Bakoitzari berea, zuzentza betea.

Eta, abittu zan. Ain zuzen ere, bere baratzako sarreran antxe ikusi zuan erramu bedeinkatuz landare-zaitzalle ipiñi zuan gurutzetxo. Otan, Kepa'ren biotza argizai biguña baño biguñagotu zan. Bere izate zorrotz eta zintzoaren barren-barrendik onako onetxek irten zion:

—Nere Iauna! Askesten diot!... Zuk neri ere asketsi!

—Eta, aize oxkirria artu nai zualarik ibai-ertzerara abittu zan. Arrantzan aspaldian ez zala ibili eta bere alatxoan kirolzurrean ederki egurastuko zala iruditu zitzaion, eta uaxe askatu zuan. Bañan, norbaitek arraunak ebatsi ziozkan. Kepa ez zan sutu. Arestian izan zituan bero-aldien ordañezko zigorra ote-zan iruditu zitzaion. Eta, arraunen dilla irten-da ere, nondik igarri ikusi zitazkenak bereak zirakela? Eta:

—Nere loina ederrak eta bargin lodiak? Ez nadin erre! Beste baterako ortxe izango dira. Eskalluak ere neretzako!

Buru a oztu zekion egurastaldi luzea artu zuan. Bere aterpera itzuli zaneke gaua. Eta, etxe-barrunbea oso illun. Argi-ontzia beti txoko iakiñean uzten zuan. Oraingoan, ordea, billa eta billa... eta, iñon ez ageri! Beraz, Kepa'ri berriro odolak irakingo!! Ta:

—Bai zera!! Beste bein isilik egon bear dedala? Goizetik asi-ta ez aldiet ainbesteri asketsi? Biotz-biotzez nik amor eman!! Ontan neurrik ez al degu? Ez, ba!!! Nire kirisellua arkittu arte ez det etsiko. Ostu didanak bereak eta bi artu bearko dizkit. Geiegia, geiegi dek!!

Irteterakoan, ate-ondoan lo zegon zakurra zapaldu zualarik, arek ipurditik eldu zion eta gure Kepa'k sudurrez arri konkorra io zuan!:

—Olakorik! Edonork esango luke, olako ez-bearren billa neroni nabillega. Burugogor xamarra naiz, noski! Aundigotan erortzen ez naizenean gaitz-erdi!

Berriz ere barrura ioan. Eta, oso illun-lodi zegon arren, ongitxo zekian aulkian eseri zan. Bere bakarrean, egun guztiko aldi txarrak gogora zekazkian. Berak nai bezela, ezer ez zitzaion irten. Guztia beltz eta gogaikarri. Ainbesteri asketsi bearra. Gogo onez ez beti. Inortxok eskarrikasko esan ez! Ala ere, askesteak gaitzik ez izan. Arako Kinbonbo'ren biraoa! Auntzek ian zioten zosaria. Urrengo baratzurik. Otorduak egosteko egurrarena. Ibaian egurasteko arraunena. Argi-ontziarena. Aztu zaskionak ere bai! Ametsetan bezela bere buruaz antxe ziarduan esan eta esan, ausnar eta ausnar, gogora eta gogora...

Ontan, etxe-barunbea argi bizi-biziz bete zitzaion... Eta, gizon bi. Bañan, gizonak al ziran? Iratxo ote? Bañan, bai! Irudimenean aiek biak aspalditik zeramazkian eta orain aurrean zituan: IESU launa eta Kepa deuna. Aiek bai soñekoak! Ez berak eta auzokoek zeramazkiten zarpailldutako puska zikiñak... Bai maitagarri zetorkiola:

—Iauna! Iauna! Niregana al zatoz? Auxe iruditzen zait: nitaz pozik ote-zeran! Beintzat, nik lanik izan det eta asketsi ere askori nik asketsi! Zazpi aldiz bai, gutxineko!

Eta, ortarakoxe izan, noski, eta Kepa deunak darantzuio:

—Seme! Seme! Ez dezu aski egin! Neronek ere bein Iaunari galdetu nion zazpi aldiz askestea bear aña ote-litzaken. Eta... neri iardetsi: «Are oraindik. Are!! Beste zazpitan, eta ondoren beste zazpitan, eta urrena beste zazpitan eta irurogeitamar aldiz zazpitan.

Gure Kepa bioztuna ametsetatik esnatzen bezela asi zan:

—Irurogeitamar aldiz zazpitan? Ori zer da? Orrenbesteko kopuru-zenbatza buruan nork artuko?

Eta, IESU'k esan zion:

—Alaxe da! Beti asketsi bear da! Nik ere asketsi izan dizuet eta inori ez diot gorrotorik. Gaur, zuk al dezuna egin dezu eta Ni zutaz gogo-beterik Nauzu. Besterik ere adirazi nai dizut: Nik zure

uts eta auleri guztiak osatu dezazket. Eguzkipe ontan gertatzen zaizkizunak ain dira ttiki eta utsalak eta iraunkorrak! Nik ba-dizkizut ianari eta argi-ontzi eta sua eta olakoak baño askozaz iorigoak...

IESU'k ez al zituan itz oriek esan, Kepa zintzoaren estalpea argibizi-labe biurtu zan. Uaxe bai egoitza zabal eta apaña. Irurak maian eseri ziran: IESU Iauna, Kepa deuna eta Kepa zintzoa. Bai Kepa zintzoa ere beste bien ondoan eseri zan: ez akats gabeko gizona zalako... Baizik, gogo oneko kistarra zalako.

IRU AGINTARI-GAL

Ni andik zear ibili nintzanean Ceylon deitzen zioten: gero, ordea, izena aldatu diote. Ango muñoak eta zelaiak eta mendiak eta itsas-bazterra urte guztian eze. Giroa beti ederra eta bein ere ez iasan-gaitz. Angoek iñola atotsiko ba'giñuzteke, aien artera bizi izaten ioateko esparik gabe nintzake. Egokiera izan genduan ez eguarte artan Colombo'tik Kandy'ra igo giñan. Nere lagunetako batek Kandy'ko apaizgaitegian laguna zuan: ikustaldi egin bear geniola eta gerorako ez utzi nai. Bertantxe abagunea ustiatu nai guk.

Kandy espaldiko iria. Agintari lénak an bizi izan ziran. Izaroaren erdi-erdian tokirik ederrenean eraiki zuten: orain añako aukerak izaten orduan ere iñongo aberastasunak antxe pillan biltzeko. Lurzabal ontan betiko iñor ez izan, eta Kandy'ko agintari lénaren guttirako gizona il-egin zan. Ordekoa aukeratze-asmoz agintari lénak deiak zabaldu zituan, beren buruak artarako añakotzat zituztenek irira agertu zitezela.

Iru gizaseme etorri ziran. Agintari lénak txeratsu atotsi! Lénbikoari garbi itz-egin zion. Zemakioken buruzagitzan zúrki ibili bear-ko zuala. Iñoren leunkiari alde batera utzi bear-ko zituala. Aozu-riak oildu. Alperrak astindu. Biotz makalak suspertu. Eta, batez ere, ber-bera txito bioztun izatea ongi zala!:

—Labur esateko, beldurrak eta umekeriak uxa!!

—Lengoan tximista nere oñetan lertu zitzaidari. Nik dardarraren antzik ere ez! Are oraindik, amagiarrebari gogor egiten nik!

—Ongi da! Gaberdian, amabi-amabitan, nere baratzara agertuko zera. Zerraldo-kutxa utsik, illa sartzeko antxe izango dezu. Zerori an sartu eta gertatzen dana gertatzen dala, andik irten gabe egon bear dezu. Eguzki-argiak musu ematen dizunean, orduantxe niregana itzu-

li, egoki dan saria eman dezaizudan eta gerorako zertxoetaz itundu gaitezen. Zer derizkiozu?

—Ori lan ariña neretzat.

Bigarrena ere azaldu zitzaion, eta oni orobat: gizonak gizon izan bear duala eta ez erdi-eme. Beraz:

—Oillaritea baño apurtxo lénago nere baratzara zoaz: antxe ikusiko dezu altxordun zerraldo-kutxa antzekoa. Uaxe zaindu bear didazu. Goiz-aldera gizatzarrak ere erne ibiltzen dira eta ez nuke iñork altxorra ostutzerik nai. Geroan izango nituzken ordain-bearrak ere andik atera nai nituzke, saltzekoak egoki saldu ondoren. Gertu al zaude?

—Izerdia latzago ateratzen oitua ni!

Irugarrena ere arpegi-arrai eta bearkizun aundietarako gertu! Agintari lénak aolku zuzenak eman zizkion. Lén izan zuan ordezkari zana, ua bai gizona!! Azkenean bere osasunari begiratzeko betarik artzen ez... eta, ua ere il. Eta:

—Zuk ez didazu olakorik egingo!!

—Ez iauna! Amatzok sarri esaten dit, neronek nere burua zainitzen ez ba'det, besteek ez dirala nitaz kezka izango.

—Ollarra kurrukurrukuka asten danekoxe nere baratzan ba-det zuretzat lana. Antxe gizona ikusiko dezu, zutik eta zerbait zaintzen bezela. Al dezun bezin arin, ua andik uxatu eta zerori aren izkilluak artuta, antxe dedan altxorra zainduko otezenduke? Ez da ain lan ikaragarria.

—Menpekoei lan ederrak agintzen oitua zerana agerian det. Eta... ua andik uxatu! Zigorka bizkarra berotu bear al diot? Orruaka ikaratu... Ala zer?

—Ori erorrek ere asmatuko dek, bai!!

* * *

Ua gauaren ederra! Izarrrik ttikiena ere ez illun!

Gau erdi-erdian lénbizikoa an zan. Baratzako ostodunen orriak zirkiñik ez. Guztia oro geldi. Illuna lodi. Illargirik ez. Izarrak oso goien. Kutxan sartu zan... eta, biotz-taupak besterik ez entzuten.

Bigarrena ere egaztien oiturak ikasirik izan, eta ollarra asi baño ordu-erdi léntxeago arâ bildu zan, eta aizta-makilla eskuan, kutxa-zaindari zutik! Zerraldoan zetzanak belarriak erne, eta ioan zanak orbela zapaltzean ateratako otsak entzun zituan: ain garbi! Bañan... ua aren beldurra!! An nor ote-zebillen? Eta, liparrean oin-otsa isildu!

Aizta-makildunak, gutxi-asko, kutxa ba-zekusan. Ordea, beste iñor ez ote-zan alderdi aietara agertuko? Altxorra ostu? Bañan, zer

ondare izan ziteken? Urrea? Oial ederrak? Beintzat, gaua luzea izango, eta apurtxo itxoin, estu-estuan lanean asiz guztia alperrik galdu gabe.

Eta, illargi borobillarentzat il-betea ioana zan. Ala ere, goiz artan borobil-borobil illargia. Talorik aundiena baño ederrago. Ertzeko lañoek zegiten lilluraketa ote-zan? Gero, aruntzaxeago gizonaren antzeko zerbait zuri-zuri. Artzarena baño aundiagoko burua. Besoak txito zabal. Oñak luze-luze. Begietatik sua zeriola ematen zuan.

Alako txorimaloa aurrera zetorkiola ikusiz, zaindaria eztarria ez izan makala eta izugarritzko karraxi-otsa atera zuan. Eta, iesi abittu eta bein betiko izkutatu.

Delako izu-otsa entzunez zerraldoko illak iauzi aundi egiñez, alderdi artakoak egin zituan, ziolarik:

—E! E! Eldu ona, galdua naizela!

Zerralkokoa bere kutxatik iaiki zala ikusiz, txorimaloa gizon biurtu zan eta puzka eta aintxintxika iesi oldar izugarrian. Soñean zeramazkianak bertan bera utzirik, ua atxi zezakenik ez an!

Gau artan, agintari lénak loa txito ariña izan, eta bere gizonek zer zegiten ikusteko ua goiz-goizetik leioan zan. Alde batetik bere ezpañetara irri-parra zetorkion eta asmakizuna ederki eratu zuala. Iru gizonok, ordea, gizon al ziran?

Biaramonéan, agintari lénak, menpeko batzu biali zituan irira delako iru gizonéi bere etxera deitzeko asmoz. Aiek zer egin zuten iakin nai zuala. Bakoitzaren indarrak zer nolako izan ziran ere aztertu nai zuala... Bañan, bai zera!! Gizonik iñon ez ageri! Orduan agintari lénak bere menpeko bereini itz-egin nai izan zien:

—Nik nere laterrian ditudan gizon azarriak orren ollo ba'dira... besteak zer ote-ditut? Nori beldur?... eta, illei beldur! Ildakoek zer egin dezakete? Biziek, biziek lanak ematen eta buruausteak sortzen eta arazoak pizten eta nâsketak asmatzen eta iraulketak sutzen eta lipiztak garrazten!!

Ala ere, agintari lénaren oldozketak apurtu eta ezabatu eziñik ez litzake; izan ere, biziak zein aiekatara makurtu litezken gutxi-asko igarri oi da, eta azkenik il ere biziak iltzen dira eta bizi izan diran bitarteko biurrikeriak bein-betiko orduantxe aiei amaitzen zazkiete. Bañan, ildakoak berriro bizien artera agertzen asiko ba'lira, nork esan zer-egin? Eta, aiekiko artu-emanak egoki danez nork zuzendu? Itzak aldatuz auxe: bioztun izatea eta beldurrik ez izatea zertxo bi ditugula.

Eta ipui ontatik zer ikasi?

Kandi'ko agintariak, beintzat, orduan azterketa poliki asmatu zigun. Bestalde, buru argikoa zan, eta ongitxo zekian guztia nor-berak

egin zezakenik ez zuala arkittuko. Olako guzti-aldunak, azkenerako zikoitz gertatzen dira: burugogor eta eoskor. Geroenean, bein zerraldo-kutxan sartzen dutenez-gero... alakoa bere indar guztiakin ere antxe egoten. Ua illen artetik piztu dezaken zaindari eta indartsurik iñon ez izango...

IBAI ETA EGUZKI

Aspaldiko garai aietan India'ko iauntxoak izen tximena zuten: MAHARAJA. Itz ori irakurtzean, Formosa ontako *tayeldarrena* neri gogora etortzen: MARAHO!! Adirazpena indiatarren izenaren antzekoa. India'n, ordea, iauntxo aiek bestelakoak ziran. Laterritxo bakoitzean, alderdi artako iauntxo: zertxo guztiak arek bakarrik erabaki bear! Eta, Trichinopoli izeneko lurraldean delako iauntxo oietakoa zan: oso nolabaitekoa! Aserrekorra. Arekin iñork artu-eman zintzorik ezin izan; txito aldakorra zalako, arean. Burutik ere zerbait arindua, noski. Aren agintetza: eoskorkeria eta buruarinkeria! Zoritar aundigorik!!

Eguarte epel-epel batez, gure gizona, etxegañeko sapolloan genduan aruntza eta onuntza, bere ordezkari eta lénengo eskudunarekin izketan eta aginterriko arazoak aztertzen eta zuzentzen... Ustez, beintzat! Ontan, bat-batean ango ibai eder Cauvery'runtz so eta so MAHARAJA'k asi eta zion:

—Gure ibai aundia bai begibetegarri! Lats baño geiago, noski! Orixe! Ala ere, ain egoki ez dana aurkitzen diot: ura bêraka ioanaren-ioanean ioaten zaigula. Gure iri eta baratzak eta bazterrak uieldu ondoren noruntz ioaten? Azkeneko mugak non dizkigu?

—Bai! Tangore'raño ioaten zaigu, nagusi.

—Ori ere bai? Beraz, gure ibaiko urak Tangore'ra doazkigu! Ango iñozoek gure urak zertarako dituzte?

—Txarki al deritzazu?

—Ain txarki! Txarki baño txarkiago! Olakorik ezin onartu nezake.

—Nagusi! Egitan ote?

—Esan dizut. Oso txarki iruditzen zaidala...

—Zer egin?

—Malatua egin eta urak ementxe esitu.

—Ori, eziñekoa degu.

—Berriketa gutxi! Eta, bigar goizean urak oraindik Tangore

alderuntz dazela ikusten ba'det... errukarria zu! Burua lepotik kenu-
duko dizute.

Maharaja kirtena etxe-barrura sartu zan. Ari begietatik beazu-
na zeron.

Eta, ordeazkariak iauntoak esan ziona egin bear! Bai, noski!
Bere menpekoak alderdi guztietara biali zitularik, izugarrizko lan-
gillesaillak bildu zituan eta iñularrerako Trichinopoli'ko zelaietan
urak gôraka oso... Langille aiek beti malatugintzan ari ziraneta-
koak'edo izan. Pizkaka eta apurka ibaia osin izaten asi eta azkene-
rako itsasoaren antzeko biurtu zan. Soroak eta ereintzak eta bide-
txiurrak osin bearriarentzat aña ez ziran. Guztiak liparetan irentsi
zituan. Iria ere laister estaliko!

Biztanleak ikara lauorrian agintari lèn eta iauntoaren iauregira
abittu ziran, alako ondamentia aienatu zezan eskotzen. Bañan...
arek ez entzuten! Ua bere bostekoan! Guztiak isiltzen ez ba'ziran
eta bere etxêtara ioaten, ezeak eta iarrak ikusiko zituztela! Orduan
ordezkari gurbillak, isilka-misilka otsa zabaldu:

—Ez zaitezte estutu! Auzia nik zuzenduko eta okerrik ez dezute
izango. Eguna argittu baño leñ, urak ez dira irira iritsiko. Ez beldurtu.

Garai aietan iñork ez zuan eskumuturrekorik zer ordu zan iaki-
teko. Illargia, eguzkia, izarrak, ollarraren kukurrukua... Eta, zerbait
ba-zutela-ta arro zitzen, urian sapallo gôra-garaia zuten eta an ardie-
na baño durundi aundigoa, eta gauetz zaindariai ua iotzen zuan, zer
ordu zan guztiak iakin zezaten.

Gau artan ordezkariak durundi-zaintzalleari esan:

—Txo!, mutil!! Ire ioaldiak bestetan baño ariñago io bear
dittuk, eta ordu-erdia ioan orduko ire danbatekoa io, ordu ospa ioan
balitz bezelaxe. Orrela goizeko ordubitan, seiak dirala uste dezaten.
Alegia, orduan seirak io!

Erritarrak ez zeuden beren onean. Ala ere, orduak bestetan baño
ariñago zioazela aiei iduritzen, eta gaua motxagoa zutela.

Beraz, ordezkariak Nagusiari ordubik baño apurtxo lènago deitu
zion. Eta arek:

—Zer degu?

—Nagusi Altsu! Ieikitzeke garaia dezu.

—Dagoaneko? Nik ez det lorik egin. Auxe bai gau motxa!

—Iñortxok ere ez degu lorik egin.

—Begiak loz puztu-puzturik ditut. Ezin zabaldu! Ia sapalloko
zaindariairen ioketa guztiak entzun ditut. Zer izan da? Orain zer
ordu da?

—Sei-seirak. Entzun: sapalloan seirak dituzu.

—Ia!: bat, bi, iru, lau, bost, sei... Bai! Eta, ain zuzen ere seirak. Eta, eguzkia? Ua ez zaigu esnatu, ala?

—Lan txarrak sortu zaizkigu. Zuri esaten ez dakit asmatuko ote-dedan. Eta, goiz ontan eguzkirik ez degu izango. Ez gaur eta ez beste iñoiz! Lurbiraren azkenetan gera!

—Ona ago i! Zer egin dezute?

—Ez degu sorginkeririk asmatu. Guk emen goien urak bildu ditugu, eta Tangore'koek aserrez eta bekaitzez eta etsaikeriz eguzkia lotu digute, onera Trichinopoli'ra etorri ez dedin. Iauna! Galduak gera! Gureak egin du!

—Arraio, arraiua! Ori ez dago ondo. Eguzkia lout! Bañan, eskuak antxumatuta egongo al gera? Gudua piztu bear degu, eta errukarri oriek guztiak betiko ondatu! Eta, eguzki ederra, eguzki maitea berriro askatu...

—Nagusi! Zuk izketan ba-dakizu! Alderdi guztiak urez kuin-kuin, iñor iñora ezin ioan dan ontan gudua piztu! Etxetik irten gabe?

—Alaxe dek! Bañan, iri ez al zaik buruan ezer sortzen?

—Ezer sortu? Ezpañetatik ezin irtenik bezela alakoxe zerbait det.

—Zer gero?

—Urei lêngo bidean ioaten utzi. Guk emen sartaldean ura askatzen ba'degu, aiek sortaldean eguzkia aske utziko digute.

—Berealaxe lanean asi ditezela!!

Ain zuzen ere, urak etxétako atariraño igo ziran, eta langilleak ordez kariaren iritziko ziran, eta berealaxe malatu-orman zuloa egin zuten eta urak oldar izugarrian bêraka asi ziran.

Eguna ere laister asi zan argitzen eta erritarrak pozez txilioka eta Maharaja bera ere antxe sapalloan iauzika zebillen bere poza ezin izkutaturik. Beraz, Tangore'ko aldetik gorri-gorri talorik aundiena baño aundiagoko eguzki borobilla dizditsu gôraka zetorren garaitza berri bat izan ba'lu bezelaxe. Beintzat, beste kaiku batek alako erokeriren bat izan arte lurraldean beldurrik gabe ziran.

Ala ere Tangore eta Trichinopoli, bi irien arteko liskarrak ez ziran betiko amaitu. Eta, lêngoak âzturik orain ere moxiña eta txakurra bezelaxe ibiltzen dira, emendik auzia eta andik eztabaidak eta mutur batek iskanbillak eta beste ertzetik ezin-ikusiak. Eta bein-lako Maharaja aiek attu ziralarik, ori!!

1974.I.14

ETXEBERRIA'tar P., S. J.

Catholic Church

KUANSI - (Hsinchu Dt.)

306 Formosa

OLERKIAK

Pedro Martín Zabaleta

Ez esan ezer
Ez aitortu ezer
Ez asma gezurrik
zeure buruari

Idei izkutuak
burubide galduak
dena da iluna buruan
nahas-mahas korapiloa
pixua
bi ezpatekin ebaki ezinekoa.

Nun zera, nun?
Baina, egitan al zera
Jainkoa betikoa
Hiru eta bat
gizon egina?
Etzera mitoa?
Ager zakio munduari
ager zakida niri.

Nun zera, nun
Jainko ezkutatua?

Lotan naizenean espero zaitut
gaur bertan
erruki ager zakidan
misterio.
Argi behar dut ozena
Jeriko-ko tronpetaren deia:
muruak apur ditezen
esiak eror ditezen
begietako eskama zaharrak
gal ditzadan.

Zakida erruki
jaio zeran Jainkoseme
Jesukristo.

Tabu dut erlijioa
Jainkoa nun den ezjakinean,
mundua zer den asma ezinean.
Buru bat behar dut
berria
eta buruarentzat bidea.
Antsi astun legorra.

Nun zera, nun?
nun?
Hitzegidazu, arren berriro
gaur, hemen.
Orain.

Arren, Jauna,
Jainko guzieldun bazera,
errukior bazera
maitasun bazera.
Hitzegidazu arren.
Zai nago.
Indarrik gabe.

Hitzegidazu, arren,
azkar,
presa dut
antsi astuna.

Ixildu egingo naiz.
Erasoko diot itxasoari
Elduko diet mendiei.
Ozka egingo diet etxei.

Nola, nola, nola?
Ortzak galduko ditut
Mingainak salatuko.
Begiak adieraziko.
Igesari emango diot.
Joango naiz urruti
hitzik ez den mundura,
ulert ez nazaketen lurrera.

Izan, beti izan.
Irahan.
Irauli pilare idurizkoa
egur pipijotakoa
antsi gaberik irripar tristea.
Begen ondoan dago esegia
 bizitza osoko tristura
 amets guztien irrikia
 irriki guztien ondorioa.

Moskortuta egon nahi nuke beti
sekula guztietan
munduak jakin dezan
tristuraren ozpina nolako dan.
Uste duzute
uste dut ere bihotz barnean
ba dela
amets kantsatu bat
amets ustel guztien pozoia.

Zorabio bat da bizitza.
Zorabio bat da heriotza.
Ta gero?
Gerorik ez balego
entzungo nuke musika
eginen poesia.

Halabaina
irriki pozoitua da nire ametsa
tristura sendakaitza bizitza
ordeka gabeko malkarra
negarra
ta bakardade iluna.
—Sibelius-en Hirugarrenean Adagio—

Damu dut orain
Damutuko naiz oraindik
egun batez eman nuen pausoogatik.
Zer dire hainbeste gauza?
Jakintza bizitza zer da
ez bada
liburu printza orixka?
Fraile bizitza
zer da?
Esan arren
federik ez badut ere.

Jainkoa izanen da metafisikan
Biblian
Beda liburuetan
Koran-en
edo Marx-en Kapitolean.
Horrialdez horrialde
letrak daude, hitzak, ametsak.
Ez Jainkorik ta Santurik
garai bateko amets.

Harri jaurtiaren ur mugida urria.
Narzisoren ispilu ausia.

Nohiz, nun?
Ta gero?
ta orain.

Nun da nire luma.

Nun galdu zera
nire luma zaharra?

Anitz paperen artean zaude
gauzatxo bat lez
odol bero ixurtzailea.
Nire pentsamenduak jalgi
nire bihotza iriki
nire ametsak
 irrikiak
 antsiak irauli
dituzu sarri.

Nire luma zaharra
bazeneki zer den
luma bat erabili
idilioak idatzi!
Bazeneki
nire grin eta doloren berri
honezkero autsi zinen
hamaika aldiz,
honezkero galdu zenuen
tinta guztia
honezkero etzinen nire.

Segituko diozu oraindik
zure lanari
eta esanen dituzu
nire
nire diren ametsak
 antsiak
odol emango zenion bihotz legor honi
edo utziko zenion lanari.
Ez dizut gehiago eskatuko
idazteko
hainbeste gauza
garratzkeria.

Bihotz bazenu izan
tintaren ordezkari odolezkoa
irakingo zenuen sarri
nire eskuan.

Ez duzu izan atseginik

pozik
gozotasunik.
Izan duzu otsegin
pozoi
gaixotasunik.
Ta izanen dituzu gehiago
larregi
ozpin eta garratzkeri.

Zakida oraindik lagun
azken ordurarte
ordura arte,
ta gero lurpera zaitzabela nirekin
legor zaitean
nire bihotz legorrarekin.

Dantzatu duzu nire zortzikoa
amorraziozkoa.
Korritu dituzu munduak
autsi dituzu nire sekretoak.

Gaur hitzezin dut zurekin
nire adiskide min.
Barkazio eskatzen dizut
azken hitzekin:
Latzegia da niretzat
horrelako bizitza
iluntasuna
atzipetua bizitzea
habitua
ta
kordoi madarikatua.

Madarikatzen ditut
—orain—
zeruak eta inpernuak
aspaldi ikasitako hitzak
esperientzia guztiak
nire burua ta
nire arima.

Erre dedilla ilargia
erre, zigarrilo bat lez,
burnia lez sutegian
dena.

Ez dut nahi ezer.
Ez dut nahi ametsik
ez dut nahi.
Ez dut maite.

Ez nau inork maite.
Ta nire ingurumaria ikusten dudanean
nirekin ezer nahi ez duena
ezer ez dakiena
ezer asmatzen ez duena

ta ikusten ditudanean
harriak amildegian
hiru arbola ebaidean
zeru urdin-beltza
altxatzen zait barnean
irrikia
legoikumea
infernua
kixkalgarría.
Aize beroa

—otzak nago, beti lez—
Harkaitzak ez dute errukirik
—burua botatzeko bederen—
Eguzkiak ere ez
—kixkaltzeko bederen—
arbolak ere ez
—urkatzeko bederen—
gizonak ere ez
—maitatzeko bederen—
Jainkoak ere ez
—hitzegiteko bederen—

Desertua nahi dut
ondarra
legorra
komentua baino ere bakarragoa.
Ta desertuan

espejismua
misterioak bezelakoa.

Nun ote dire pertsonak
nun maitasuna?

—Behartsu botoa egin dugu guztiok
ta maitasuna eske joanik
ez daukagu maitasunik
ematekorik
ez baidugu ezer gurerik—

Ta pattarrak ez daki sendatzen
ta Jainkoak ez du entzuten
ta geroa ez da mintzatzen
ta amilean...

ez da urik.

Ai nire luma gaixoa
nirekin joanen zera
inpernura.

Nirekin egonen
Satanasen ondoan.

Ta han ere idatziko duzu
suzko tinta errearekin
zure azken bertso betikoa,
hamaigabeko poema gaiztoa.

Esan, maiz
dakidana
eta asmatutakoa
hitzak
ugari.

Tantanka doa eguna
erlojuaren kolpetan
bihotzaren taupadetan.

Tantanka
jariodun ontzitik ura lez
jario nintzan
ta
heriotza.

Orduan ixilduko naiz
burua txano barruan

ahoa itxirik
ixilik
jariodun ontzia lez
botako naute
norabaitera
zulora.

Zenbat zulo ote ditu munduak
gizona denetik
gizonak deseintzeko.

Gizon hila da
ludiaren zimaurre.

Ta nire bihotzetik
aritz bat erneko da.

Ta nire hitzak iraungo dute
aizearen egatan
hosto bakoitzean.

Izar bat zeruaren atea
izar bat zera ene maitea.
Soroetako hintza zu zera
Arrosa erne berri ezca
Izar bat zera ene maitea.
Zorion eta amets bete
goizeko izar argia.



ADABAKIAK

«UNAI»-RI BURUZKO GEHIGARRIAK.—Aurten betetzen ditugure Unai-k hamar urte, bere izena aurrera atera nahiz aski lan izan nuen eta bildu ahal izan nituen agiriekin lantxo bat argitaratu nuen Iruñeko «Principe de Viana» mintegiaren *Fontes Lingvae Vasconuvm* aldizkarian (III, 7 zenb., 1971). Baina garriatu nituen agiriak, orduan uste nuen bezala, ez ziren denak, eta oraingo honetan zenbait gehigarri eman nahi nuke; baina orain ere ez gaia zeharo ahortzeko ustetan.

Lehen gehigarria A. Arrue adiskideagandik izan nuen, ohar honekin: Juan Bautista Agirre, Asteasuko erretoreak, *Erakusaldiak*-ren hirugarren liburua 418garren orrialdean, hara zer dakarren: «Zer marka ote da dotrinak eta Jainkoaren itza ez entzutea? Marka guziz gaistoa eta izugarria, ua da alabaña infernuko *unayak* bere mendean eta beretzat daukan taldearen marka. Ala esana utzi zigun Jesu-Kristok Evangelioan. Argatik zuek, esan zien bein Juduai; argatik zuek entzuten ez dituzue Jainkoaren itzak, ceren Jainkoarenak etzeraten: Propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis. Jesu-Kristoren itz oetatik argiro ezagutzen da, dotrinak eta Jainkoaren itza entzun litekeala ez entzutea dala infernuko *unayak* beretzat bildu duan taldearen marka edo siñalea».

Orduan konturatu nintzen Agirre Asteasukoaren lanetan zenbait ohar eginak nituela eta beste zerbait ere bazela. Hirugarren tomoan bertan, 293an hara zer arkitu nuen: «Eta Deabruac-ere beretzat dauzcan becatariac marcatzen ditu bere guisara; ipintzen ditu *unai* contuzcoacquin, eta nai duan lagunacquin. Ay! ta nolaco taldeac!».

Alajaina! Ezta txantxetako Agirrek *Unai*-ez zuen ustea, inpernuko deabrukeriak adiarazteko erabiltzen bai zuen izen hau. Baina, argi dago *Unaia* eta *Artzaia* elkarregandik bereizteko asmatzen zuela. Apaizari *artzaya* deitzen dio, esateaz: «Len egin bear citzayon

confesio au Artzayari, edo onec siñalatzten zuanari. Arzayac berea Obispoari...» Kontzeptu hau arkituko dugu liburuaren barrena: *Unaia* gaiztakerizkoa eta *Artzaia* bide honekoa edo apaiza. Ikus lehen liburuaren 305garren orrialdean, bertatik jaso dugu esaldi hau. Baina, begira bigarren liburuaren 50 eta 52 orrialdeak, eta hemen konfesatzailea dugu *artzaya* (*Artzaya* = confesor). Hirugarren liburuaren 426garren orrialdean ere berriz dakar *arzaia*. *Arzay*, esaten die San Inazioa Loiolakoari eta San Karlos Borromeokoari hirugarren liburuaren 408garren orrialdean; orrialde berean, *animen Arzayac*, «pastor de almas» edo adiarazteko. Hirugarren tomo berean baina 426garren orrialdean *Arzai ona* deitzen dio Kristori. Hoieak ikusirik, oraindik argiago jartzen digu *Unaia* eta *Artzaia*-ren arteko bereizketa. Gauza bera ez diralako egiten bai du. Eta, *Fontes*-eko lanean bi gauza argitu nahi nituen: bat, izen bezala erabilia zela; bi, unaia eta artzaia desberdinak zirela (lehenengoa «vaquero» eta bigarrena «ovejero»).

Geroztik, izenaren zabalkunderako, beste agiri hauek ere arkitu ditut:

Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren XIgarren tomoan (Canciones de ronda), 984 numeroz agertzen den kantari, «Txamarra txartxo bat» izenekoan, 1136/37 orr., Hernanin jasotako kantaren bigarren bertsoan, hau dio:

Lagunak ere baditugu:

lau artzai eta bost unai gartsu:

Santxo, Peru eta Martin Anton,

Frantzisko, Paulo, Beltxior, Simon.

Ai, oi gabaren on!

Yaio-berri ori non degu, non?

¶ Eta, hemen ere, gauza bera, *Artzai* eta *Unai*-ren arteko bereizketa garbia.

Errefrau bati buruz, *Fontes*-eko lanean, 90garren orrialdean, Urkixok, *Unai*, *Artzai*-ra aldatu zuela esaten nuen. Baina, egia esan, Urkixok ez, baizik bere aurretikoak aldatu zuten, J. A. Mogelengandik hasi ta. Hau ikusten dugu J. Urkixok gertatutako *El refranero vasco*, tomo I, «Los refranes de Garibay»-ren 11-garren orrialdean: «*Unayac arritz citean, gastaac aguercitean*, Los baqueros riñieron y los quesos parecieron», L. de Isasti ber-berari jasoa.

Horrez gainera, hiztegien inguruan jaso gabe utzi genuen L. Mi-

txelenaren iritzia. Mitxelenak *Apellidos vascos*-en, 104 orr., 577 erreferentzian: *un(h)ai, unain*, «vaquero, pastor de vacas»: Unibaso (?).

Aloña-mendian, Arantzazu aldera, *Unamendi* dagonez (ikus, *Fontes*-en aipatutako lana, 91 orr.), «monte del vaquero», ene iduriz *Unamuno* deitura (Unai-muno), «colina del vaquero» da.

J. S. M.

* * *

Gorasarre bat egin jako Bilbon Joanjo Rochelt Amann (1881-1953) bilbotar margolariari. Bere omenez, berak pintauriko ogei ta amalau oial pintura erakutsi dira Arteta-Galerian, 1974-udagoiengan. Lekanda osagilleak egin eban erakusketaren zabaltze eguneko itzaldia, Rocheltdarrai buruz, etxeartako eta bilbotar ertizale askoren aurrean. Izan be, ertizaleak izan dira Rocheltdarren etxearteko pillo bat.

Ez eban bizimodutzat erabili pintatze arazoa Rochelt-Joan jok. Zaletasunagaitik bakarrik pintau eban, Regoyosen tankeran eta maixu onen adiskidetasunean. Paraje pintatzailetzan, mailla on bat irabazi eban. Regoyosen neurrietaraño eldu ez baizan be, inguruetan gelditu zan.

Zaletasunezko bidean pintatu dabeenak, hainbat eta asko izan dira Euskalerrian. Ezagunak dira batzuk, eta beste batzuk ez. Gai onetan jakintsuek diranai dagokie iritziak emotea. Ixilik beintzat ez leitzake euki behar atal hau, Euskalerriko ertiaren kondaira zeatza egite orduan.

* * *

Ioan Matia Pascual, begoñarra dogu jaiotez, eta arima-gazte bizi jaku oraindik, irurogei ta amairu urtegaz. Margolari honeri be omenaldi bat egin jako udaran (1974) Bilbon, Uranga erakusketa aretoetxean. Bizitzan ezagutu dau gorazarrea. Berrogei ta bi margolariiek eskeini dabeez euren laukoek omenaldi honetarako. Ez dau gitxiago merezi pintatzaile apal eta gure lurralde bazterren maitatzaile honek.

M-B. A. G.

“GORA ARRATIA”

Bonifazio Laxak eginiko «Todos erribatecos» iru ataleko antzerkitik zati bat.

LAGUNEN IZENAK: JUANA, ostalaria.
MAINTON, onen alabea.
ROMANA.
BURNO de Santa Lucía, jueza
SANTI.
KELETO (Cleto Causte).

ARRATIAKO ARDAUTEGI BATEN

Oletarrak eta agura bat, burua ule bagarik, arpegia lez garbi; arratiarren jantzia. Buruan txapela.

LENGOAK eta OLETARRAK

OLETARRAK.—(*Sartuaz batera eresiko dabe.*)

BATZUK.—Ointxe jango geunke lebatz andi bat.

BESTE BATZUK.—Ba, guk jango geunke ogi andi bat.

Ba, guk jango geunke
saltzan eperra.

Danak.—

Ondo ipiñi ezker
ai, bai gauza ederra.
Gose gara guztiok,
ta eztaukagu zer jan;
ezin bizi geintek
mundu onetan alan.

BATZUK.—Ointxe jango geunke lebatz andi bat.

BESTE B.—Geuk be, jango geunke ogi andi bat.

Danak.—

Ze beste egingo gintzakezan
lebatzez eta eperrez!

- Agoa garbitutzeko
kopatxu bana jerez.
- BATZUK.— Ainbeste gose izan ta
iñor be ezgara egarri?
- BESTEAK.— Dozenatxu bat botilla
bear doguz ekarri.
- BATEK.— Botilla bat jereza,
beste danak xanpanak.
- Danak.*— Arek bai gozotuko dauz
ederto gure ezpanak.
- BURNO.— (*Irautsia.*) Mutilek! Oletarrak balienteak dozak!
- SANTI.— Bai, gizona.
- BURNO.— Ee?
- SANTI.— Baietz, gizona.
- BURNO.— Bai, seguru.
- KELETO.— Juana!
- JUANA.— Bota!
- KELETO.— Gaberako ipiñizu guretzako afarie.
- JUANA.— Nozko?
- KELETO.— Amarrak ingurureko.
- JUANA.— Beno, beno.
- KELETO.— Agur!
- OLETARRAK.— Agur!! (*Urteten dabe berbetan euren artean.*)
- BATEK.— Neuk esantxa ba, ta neuk egingo disuet.
- BESTE BATEK.— Goraintziak emozak ba, Otxandioko Bulkanoi.
- SANTI.— Oletarrak ee... gizon alegereak jatzuz, Burno. Aik ee...
beti unore ona.
- BURNO.— Ta nik ez? Arraioa! Orretan gozak ba, mutilek...! (*Jarri-
ta dagoen lekutik juaten da erdi-erdira ta badiño.*) Eupa!! (*Txis-
tuaz garbitu beiz eskuak.*)
- SANTI.— (*Txaloka.*) Ole niña! Totonera bat, Burno, totonera bat.
- BURNO.— Ez, mutil. Beste zeozer.
- SANTI.— Tire ba.
- BURNO.— Ezdago mundu onetan
gaur krabelinerik
neure maitia baño
lora ederragorik.
Orain egon neinteki
ardura bagarik
iñok ezdaukalako
nik lako lorarik.

kantuz eta dantzan lun lirun liru lun...

* * *

JUANA.—Ja, ja, ja, ja. Guztiz birloratu zara, Burno.

BURNO.—Birloratu? Arraioa! Biba la gorma!

JUANA.—Ene aitea ta semea ta espiritu santu jaun Jesukristo.

BURNO.—Amen Jesus, Maria ta Kosepe. Emen dago Burno bat, eta porrot egiteko bildurrik barik egon be. Gaur len be entzun dozu, unore onez nagoela, ta beste sirkustansie.

SANTI.—Beorrek unore ona, ta beste sirkustansie, ta barriz nire nobiek, ai, nire nobiek...

BURNO.—Diru-moltsea be bai ak ederra...

SANTI.—Ta beorren sirkustansie zer da ba?

BURNO.—Fortune itzela! (*Jarten da lengo lekuan.*)

SANTI.—Ze fortune? Arloterie?

BURNO.—Ez.

SANTI.—Ba... Ori ez bada, ezda andie.

BURNO.—Ez andie? Beñipenean e... ik ezdauketan gauzea dot.

SANTI.—Nik ezdaukedana?

BURNO.—Bai, ain zuzen.

SANTI.—(*Kentzen dau txapela esanaz.*) Agura zar demoniño oneri, uleak urten ete deustso, dauken edadean...

BURNO.—Ezta! Ezteustat esan ba, ik ezdaukedan gauzea dala? Ik ulea, badeukek.

SANTI.—Baie... bai... ezdauket kalborik.

BURNO.—Nik bai, ta ederra. Zeinbet denpora dok bai, burdin bi-deak egiten asi zireala?

SANTI.—Ni orduen ee... bai... jaioteko nengoan, baie gure aitek esaten dau, ee... bai... direala berrogeta bi... berrogeta... (*gora begira*) lau urte ingurumarie.

BURNO.—Gizonaaaa, bai, ordurarte nire buruak zirudian ee... are-txezko berezi bat. Ain ñeunkan ule ederra ta lodie ze...

SANTI.—Beorrek e, trabesak salduko ebazan.

BURNO.—Saldu? Galdu, gizona, galdu!

SANTI.—Ezdeutsiez ondiño, bai, pagau, oin berrogeta lau urteko trabesak? Nun etedira trabes aek!

BURNO.—(*Asarratuta.*) Jaujan!

SANTI.—Bai, seguru... Trabes aek...

BURNO.—I bai azala trabesa. Ezdok entzun galdu egin nebala ulea?

SANTI.—Aaa!... Lastime gorrie! Gesorik egoan baten, ee!

BURNO.—Bai, gizona. Osagilleak jeukazan erruek.

JUANA.—(*Asarratuta.*) Zagoze ixilik! Osagilleak ezdauko iños errurik.

SANTI.—(*Juanari.*) Atara egizu beste azunberdi ta zagoz ixilik.

JUANA.—Au da guzurrezko txotxolo parea. (*Eroaten deutso ardoa.*) Eutsi.

SANTI.—(*Pitxarra artzen deuten batera.*) Zu bai zareala egizko sor-
gin bakarra. Tire, tire! (*Pitxarra lurrean usten daben artean.*)
Zoaz zu, zeure lekure, ta ezegizu sartu kaderarik gure asientuen.

JUANA.—(*Badoa bere lekura, josten, esanaz.*) Aupa! Oneek deukiez
ixil-kontuak.

BURNO.—Nun itxi gatuzek sorgin orrek suspentso?

SANTI.—Osagillearen erruetan.

BURNO.—Ortxe izen be. Osagilleak jeukazan erruek. Bada, Kosefina
jakan botike bat emon bearrean e... Santipirina emon jostan ak
asto faltsoak; ta orduen ee... bai seguru, asi zoan galtzean, gal-
tzean nire ulea, farra farra.

SANTI.—Dana sinisten deutset nik beorreri. Osagille asko dire erdi
asto, erdi mando. Egundo pareterno ezdot artu nik ee... botike-
rik; baie arteakotan, lenago artuko neuke Kosepina, Santipirina
baño, nik neuk beñipenean. Gero, betor, gure badau bai, Kose
falso.

BURNO.—Ja, ja, ja, ja. Berari jakoan bai, izena Kose. Falso traidore
arraioari.

SANTI.—Bardin da ementxe balego be. Neu bere, osagilleakaitik ee...
txarto esateko ohea nago, arto zati bat eureri limosna emoteko
baño. (*Asarratuta.*) Ujui... Neuk be, bein ee... belarri okulu
ingurumarie guztie neunken ee, total anditurik; eta... Belarrie
erderaz ezda oido?

BURNO.—Bai, gizona.

SANTI.—Ba, orduen ee... pintura de oido emon bearrean e, pintura
de iodo emon eusten arraioak. Zer deretxo beorreri? Esaten eus-
ten ee... bai, neunkela liebre. Badaki beorrek zer dan liebre.
Kalenture andiek.

BURNO.—Bai, bai. Sarriten koiu joat ori alemaniñeori.

SANTI.—Binke alemaniñea. Gose andie neunken da bai, esaten eusten
ee, neunkela triputz.

BURNO.—Triputza? Ezdok millagro bai, gose andie eukitea!

SANTI.—Beorrek daki osagilleak baño geiego! Beorrek daki zer dan
triputze.

BURNO.—Bai. Neu bere, orlako sokatik dindilin-dangoka ibiliko mu-
tile nas, konpañero...

SANTI.—Bai, seguru. (*Arrausike.*) Ai, ai, ai...

MAINTON.—(*Sartuko da ta eskuan daroian papera emongo deusto Burnori, esanaz:*) Beorren anateak emon deust.

BURNO.—(*Paperari begira.*) Zer eteda? Santi, eutso. Kristalezko bego barik, ezin neik leidu. Leidu egik euk, ia zer dakarren.

SANTI.—(*Irakurten dau papera, danak entzuteko moduan.*) «Ene anaje ori, Zure nobie Mariak ezkondu gure dau ointxe. Abadea gertu dau elizan, eta etorri zaitez ainbat lenen.

PERU.—Zer darabil beorrek. Burno?

BURNO.—Zerñok?

SANTI.—Ezkonetan joateko bertatik. Bai (*ikaraturik*), ezalda ezkonetan beori dauken edadean?

BURNO.—Bai, gizona. Orixe izen dok ba, lengo nire sirkustansie...

SANTI.—Benetan...?

BURNO.—Bai.

SANTI.—Benetan diño?

BURNO.—Baietz, baietz eta baietz.

JUANA.—Ene aitea ta semea...

BURNO.—(*Santiri.*) Bañoak: gero eskondute etorriko gozak eztegu-ko guztiek. (*Badoa kanporantz.*)

SANTI.—(*Atzamarrari orain diruagaz lez.*) Ta, beorrek ee, zeinbet deuko ba!!!?

BURNO.—(*Ate ondotik.*) Irurogeta zortzi urte egin eginak. Gero arte! (*Badoa.*)

JUANA.—Ai, Burno, Burno!

SANTI.—Lenago sinistuko neban ee... ulleak urten deusala kalbo guztien, ezkonduko zala baño. Mutilek, agureak bizkor jaozak! Ta nogaz ta Mariegaz...

JUANA.—Mainton: zoiez karnezuegana eta kilo bi okela, izterrekoa ekarri egizuz, ta neuk pageuko deusadala gero.

MAINTON.—Ondo da. (*Badoa.*)

JUANA, SANTI; gero ROMANA

JUANA.—Santi: Burnoren ezkontzan zagoz pentsetan?

SANTI.—Bai. Sinistu ezinde nago.

ROMANA.—(*Atiaren kanpoko aldeti.*) Juana.

JUANA.—Zer?

ROMANA.—Emen dago Santi?

SANTI.—Bat bai, beñipenean.

ROMANA.—(*Ori entzunik sartu, eta Santigana, amurruturik kiskan egiteko.*)

Bertsuak ataraten
neuk asi bearrean
ederto parau zara
zeu neure aurrean.
Ifiniko zindukaz

SANTI.—Ene nos inducas in tentasionen...?

ROMANA.— Ifiniko zindukaz
azirik txarrean,
zeu asto, idi itailla
ta zeu itaurrean.
Ain izan dira gozo
eta ain koipatsuak

SANTI.—(*Lurrera begira oso lotsaturik, eztau ezer esaten.*)

ROMANA.— Asto batek jan ditu
gure ogei bertsuak.
Lapikoa badago
pilpil irikiten,
ekin egiozu zuk
bertsoak egiten,
ta gazatxo badagoz
gatza egin birriten;
gatzaren premiña
daukazu sarriten.
Zelan egingo nintzan
ni zugaz konpondu?
ezbagara batera
iños bere egon gu?
Gura ezdabenagaz
zartzaroan ondu,
aberatsa izan arren
ezdot gura ezkondu.
Umilla izan ezkero
gura dot probea,
probe umilla beti da
ezer baño obea.
Baña, izaten bada
umillen ordea
gautxorizar faltso bat
nok ta nun gorde a?

Ezdot gura gaurkoan
zuri esan geiago
bada berba egiñaz be
damaturik nago.
Barriz asten bazara
neu baño lenago,
zuri erantzuteko
Romana emen dago.

(*Kanpora beioa, esanik:*) Kontuz nigaz eta agur!!

SANTI.—Anda demoniño!

JUANA.—Ondo egiña. Ezeunken bakean itxi baño areri, zeure bertso ta koplakaz.

SANTI.—Zuk be bai areri fagore, ezta? Bajaok zer egin arraiokaz!
Bier, ee, obeak atarako deutsedaz, onrameutan.

JUANA, SANTI, BURNO eta EZTEGUKOAK

(*Panderua ta txiribitua joten asiki dira agertu baño len Burnoren ezteguakoak. Gero, ariñeketea edo biribilketea joaz, mutil eta neskek amar-amabi laguneko sokia egiñaz sartuko dira uiuka, aurrekuak lez. BURNO ta onen urrengo MARIE.*)

Dantzan dantzan sonbrollu,
Marie gurea da ezkondu,
Marie gureen ezteguetan
oillo errea jangogu
jangogu ta jangogu,
dantzan dantzan sonbrollu.
Lirunlun lirulun lairun...

BATEK.—Txaloak be bai, mutilek txaloak be...! (*DANAK egin beie txalo.*)

BESTE BATEK.—Uuuujujujuju...!

BATEK.—Gora Arratia!

DANAK.—Gora!

BATEK.—Dantzan ein beariuk, mutilek. (*Panderudunari.*) Jo soiñue zuk! (*Alboan daukan neskatilleari.*) Mikela: Erdu dantzan mesedez... (*Eskura bota txistua, ta jo kisketak. Panderuduna joten asi deitenien, urten beie lautzuk edo bostzuk dantzan.*)

ESTALKIA

E. ERKIAGA.



LIBURVAK

AITA LUIS VILLASANTE, *Axular-en Hiztegia*. (Euskara - Español - Français; Español - Euskara; Français - Euskara). Jakin. Arantzazu - Oinati, 1973.

Liburu hau zer den jabetzeko beharrezkoa zaigu Axular eta bere obraren berri jakitea, baina era berean zehatzago ezagutzeko lagungarri izango zaigu liburu hau.

Karl Bouda, Erlangen-go Unibersitateko irakaslearen iritziz, 1949an euskal kulturari buruz Unibersitate hartan argitaratu zuen liburuxka batean zionez, literaturari buruz aritzean, gehiegizkoa iduritzen omen zitzaion euskaldunon literatura erlijio hutsezkoa dala esateak. Elizak, behar bada, berakin dituela hizkuntza zaintze eta gordetzearen merituak, baina hala ere, euskara idatzian, Axular-ena bezalako erlijio liburuak teologia hutsezko lanetatik oso urruti daudela.

Axular-ek, *Gero* liburuan, kristauak inguratzen dituzten bizio txar eta pekatuak aztertzen ditu, denboraz bide onera laguntzako asmoz, behar bezalako kristauera eramateko. Gaia, liburuaren barna, erudizioz betea, autore askoren eritziak jasoaz, kondairak, gertaerak eta abar, eta era berean idazkera txukun batean hizkuntza jantzi az maitasunez agertzen zaigu. Honek egin du Axular denbora guzietako euskal idazleen artean klasikoena izatea.

«Orixe»k 1927an «Euskal-Esnalea» aldizkarian zionez, Axular, Bidasoaz handik asko irakurria omen zen, eta Bidasoaz hemendik «orain beintzat irakurtzeko gogoia etorri zaie zenbaiti, ta maizago irakurtzen ezpada, liburu orien alerik arkitzen ez delako da, ta ez besterengatik. Damurik ez dugu ikusiko nai bezain laister *Gero*-ren edizio berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskerak, dagon baino landuagoa zegoen onezkero.»

Baina, gehiago oraindik, «Orixe» ber-berak iharraituko du esanaz: «Axular-en idaztankera bizia da, arraia, garbia, ta zainduna. Naiz bitxikeri edo axekarako, naiz funtsez eta gogor mintzatzeko gai dago beti.»

Gero liburua 1643an argitaratu zen lehen aldiz. Geroztik zenbait argitalpen izan ditu. Azkeneko biak, 1954an Euskaltzaindiaren ardurapean argitaratua eta aspaldi ahortua, eta 1964an, L. Villasante berak erdal itzulpenez «Espirituales Españoles» sailean argitaratua, laster ahortzeko zorian dagoena.

Guztiok bat gatoz euskal literaturako egilerik bereziena dala aitortzean. Baina, batez ere, Axular, bere inguru zuen eskola baten maisu eta ordezkari dugu. Sarako eskolatzat ezagutzen dugu, Sarakin batean Ziburu eta Donibane-Lohizune ere hartzen zituelarik. XVII. mendearen lehen partean egosi zen eskola hori, gure literatura zaharreko unerik aberatsena dugu.

Axular eta bere inguruko izkribatzaileei buruz saiakera anitz egin da; baina batez ere, Axularri buruz, Aita Luis Villasante urte askotan ari zaigu. Arestian aipatu dugu *Gero*-ren erdal itzulpena, baina egilearen bizitzari buruzko lan eder bat ere badu: *Axular: Gizona, Mendea, Liburua* izenez 1972an argitaratua. Hamazortzi urte dira Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian Axularren hiztegiaren lehen zatia argitaratu zuela, eta geroztik, A. Villasantek, eten gabe iharraitu dio lanari hiztegi osoa burutu arte. 1973an izan du argitaratzea zorioneko liburu honek: *Axular-en Hiztegia* izenez.

Liburuaren sarreran ematen ditu lana aurrera eramatearen xehetasunak eta lehen euskal hiztegien berri laburra ere bai. Liburuaren egitura nagusia Euskera-Español-Français du, bertan hitza eta bere inguruko esana duelarik, hitzaren esan-nahia zihurrago ulertarazteko. Ondorean, hitz soilez, beste bi eratako hiztegiak dakarzki: Español-Euskara eta Français-Euskara ditu, bi hizkuntza horietarik bilabidea errazteko.

Lehen ere eginak dire autore zaharretatik zenbait hiztegi, baina oraingo hau dugu, dudarik gabe, euskarazko Autoritate-Hiztegirik handiena eta osatuena. Bertan biltzen dituelarik Axular-en esaera guztiak.

673 orrialde ditu liburuak 21 × 14 zentimetro neurrian. Beraz, ezta txantxetako lana A. Villasante jaunak gertatu diguna.

Gero zuzenki ezagutzeko hiztegi bikaina. Hizkuntzalariak, hiztegilariak, eta izkribatzaileak, gure hizkuntzaren harrobi handi bat izango dute beren esku liburu honi esker.

J. SAN MARTIN.

BIBLIOGRAFIA

Berriz ero hemen gaituzu, irakurle, urteko liburuen zertzeladak emanez. Urterik gehienetan gertatzen zaigun bezala, 1972-koan ere, liburu garrantzizko bat utzi genuen gure zerrendan sartu gabe: Santi Onaindiaren **Euskal Literatura (I)**. Obra honen lehen tomo hau, 1972koa izanik, bere zabalkundea oso berandu egin zalako "Etor"eko harpidedun artean, Behinik-pehin, harpideduna naizen aldetik, berandu heldu zitzaidan urteko zerrendan sartu ahal izateko.

Dena dela, irakurle, konprenituko dituzu huts ttipi hauek. Bestalde, liburuek hautatzean zer aburu jokatzen dugunaren berri zerrenden hastapenean eman genduen, hau da, EGAN-en 1969ko 4-6 zenbakia 158/159 orrialdeetan. Zenbaki berean, 160/168 orrialdeetan 1963, 1964, 1965, 1966, 1967 eta 1968koen lista argitaratu genuen, titulu, egile, argitaratzaile eta argitara-tokiak emanez, oraindik orain jarraitzen dugun eran. Orduan esan bezala, 1968an lehen aldiz heltzen da euskal liburuen produzioa hilean hiru liburu argitaratzera, eta urrengo urtetik, 1969tik, hilean gutenez lau liburu argitaratzen dira. 1972garren urtean 61era heldu ginan, baina aurtengo honetan 54ra jetxi da. Hal ere, batanaz beste, lasai esan genezake 1969tik astero euskarazko liburu bat argitaratzen dela, haurrentzako liburuzkat eta zenbait liturgia liburuxka kontuan hartu gabe.

Gainerako zerrendak, EGAN, 1970ko 1-3 zenbakieren 133/136 orr. 1959-ekoak; 1971ko 1-6 zeb. 110/114 orr. 1970 eta 1971koak; eta 1972ko 1-6 zeb. 112/114 orr. 1972koak.

Gure literaturaren ekintzaren aurrerabidearen jakingarri beharrezkoa zaigun liburu estadistikagintzarako lagungarri izanen dugu. Era askotako aburuak ateratzera eramango gaitu, baina gaur gaurkoz, puntutxo bat zuritu beharra dut. Guziok dakizute buruarin batzuk esana dutela H letrak ezdatik zelako ikurra edo sinboloa adiarazi nahi duela, eta harrez gainera, argitaldari batzuk ere eragozteza eskatu dute H honek nahastea sortzen duelako eta argitaldaririk gehienak maioriaz hala nahi dutelako. Baina, nik diot, argitaldari horiek berek jakingo dutela bere euskarazko liburuen


produzioari buruz zelan dabiltzaren, baina egi soila besterik dela. H letra, gaur egun, ezeren sinboloa edo ikurra izatekotan, euskararen batasunarena da, eta Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an gomendatu zuenez gero, liburu estadistikak argitasun hau ematen digula:

1968an	40	liburu	argitaratu	etik	34	H-gabe	eta	6	H-kin
1969	49	"	"	"	30	"	"	19	"
1970	55	"	"	"	30	"	"	25	"
1971	56	"	"	"	18	"	"	38	"
1972	61	"	"	"	18	"	"	43	"
1973	56	"	"	"	20	"	"	36	"

Hau da praxisean agertzen zaiguna. Batasunaren aldeko argitaldarien eta gaurko idazleen dinamika agiri agirian dago. Oztupoak jartzen jarraitu nahi dutenak, eman dezatela beren arrazoi zentzuzkoa. Zeren hau ikusirik argi dago idazlerik gehienak zelan ulertu zituzten Arantzazun Euskaltzaindiak emandako gomendioak.

Nere uste apalez, argi ta garbi dago majoria non dagoen. Hala ere, bat ez datozen guziak errespetagarri ditugu, baldin euskaraz ari direnean, euskara lantzen dutenean. H-kin edo H-gabe, erdaraz baino euskaraz hobe. Berriketak utzi alde batera eta luma hartu euskaraz lantzeko. Euskaltzaindiak batasuneruntz markatu duena, bide bat da, besterik ez. Iduritzen ez zaiolak markatu dezala beste bide bat edo doala iduritzen zaiolak lekutik, baina gure hizkuntzaren egoera ikusirik ez gaude txotxolokerietan denbora galtzeko. Behin eta berriz deitu dezagun Etxeparekin batean: "Euskaldun den gizon orok altxa beza burua".

J. SAN MARTIN.



1.973 URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

- Aitonaren ipuiak, Ramon Murua. Kardaberaz. Gasteiz.
- Amets eta egi, Gallastegi'tar Kauldi. Bilbao.
- Aralar'ko San Migel, Latxaga. Gasteiz.
- Aurtengo zenbait berri, LUR-eko ekipoa. "Lur". Donostia.
- Bible Saindua (hiru tomo), J. Duvoisin. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Bizitzako urratzetan, Martin Iturbe Balda. Colección Premios Literarios Ciudad de Irún. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Deunor (Idahon artzain ta euskaldun), Santos T. Rekalde. "Kulista Sorta". Ed. Itxaropena. Zarautz.
- Ekaitza, José M.^a Satrustegi. Jakin. Arantzazu - Oinati.
- Erreka zuloan eta..., Albisu ta Ayerdi-tar Anastasio. Gasteiz.
- Ertzpegi ta biotz-taupadak. Perfil y pulso de Guipúzcoa, Pilar de Cuadra Etxaide (euskeratzailea, Pedro Berrondo). Ed. Auñamendi. Donostia.
- "eta sasi guztien gainetik...", J. A. Arze "Harzabal". Donostia.
- "Euskal-berdintasuna" - I, Otazu'neko Alfonso (A. Urretavizcayak euskaratua eta egokitua). Lur. Donostia.
- Euskaldunen ipuin harrigarriak, Martin Etxeberria. Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Euskal idazleak. Basabe'tar Kandido, S. J. (1867-1928), Etxebarria'tar Juan Anjel. Bilbao.
- Euskal Literatura (II), S. Onaindia. Etor. Bilbao.
- Euskera eta Nafarroa, Jose Anjel Irigaray. Ed. Aranzadi. Iruña.
- Ezpalak, E. Urruzola "Uxola". Kardaberaz taldea. Gasteiz.
- Gatu beltza, Txomim Peillen. Gero. Bilbao.
- Gerraondoko Euskal-Poesiaren antologia (1945-1964), Ibon Sarasola. Lur. Donostia.
- Goiko-kale, Angel Lertxundi. Gero. Bilbao.
- Gure erri-joku nagusiak, Iriarte-tar Jose Luis. Etor. Zarautz.
- Gurutz-Bidea, Batiz'tar Nikola, K.O. "Xalokin". Markina.
- Haurgintza minetan, Mikel Zarate. Etor. Zarautz.
- Haurra ipuin denean. Zarauzko ikastolako haurrak, "Kimu saila". Gero. Bilbao.
- Hego-haizearen ipuinak, Lurdes Iriondo. "Kimu saila". Gero. Bilbao.
- Herri-musika sorta, Edigsa/HG. Donostia.
- Hil ala bizi, Larraun. Editions Elkar. Angelu.
- Inauteria. El carnaval vasco, Juan Garmendia Larrañaga. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia.

- Ipuin barreka**, F. Bilbao. Arantzazu Argitaldaria. Oinati.
- Iraultaz**, Joan M.^a Torrealday. Jakin. Arantzazu - Oinati.
- Itsasoak ez du esperantzarik**, Luis Haranburu-Altuna. Lur. Donostia.
- Itsaso ur-bazter luzea da**, Martin Ugalde. Gero. Bilbao.
- Kaskazuri bertsolaria (Jose Joakin Urbieta Yarzabal, 1873-1932)**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Koperatibak**, Elkar lanean: U.L., X. Zabala, B. Laxague, C. Harlouchet, Ibarrekoa, I. Laspiur, A. Larrainaga, K. Gorostiaga, G. Ansola, R. Kanblong. Jakin sorta. Arantzazu - Oinati.
- Kultura proletarioaz**, Joxe Azurmendi. Jakin. Arantzazu - Oinati.
- "Iaino guzien azpitik..."**, J. A. Arze "Harzabal". Donostia.
- Lanaren antropologia**, Roman Garate. Gero. Bilbao.
- Langileria Historian zehar (II)**, Mikel Ugalde. Gero. Bilbao.
- Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Lau teatro Arestiar**, G. Aresti. Lur. Donostia.
- Louis Bonaparte-ren "Brumaire"aren hamazortzia**, K. Marx (M. Onaindiak euskaratua). Lur. Donostia.
- Martin Arotza eta Jaun Deabrua. - Sendagile maltzurra**, Lurdes Iriondo. "Kimu saila". Gero. Bilbao.
- Muga beroak**, Juan M.^a Lekuona. Gero. Bilbao.
- Nafarroa-ko Euskal-kantu zaharrak** (Viejas canciones vascas de Navarra). P. Jorge de Riezu. Archivo P. Donostia. Lekaroz (Nafarroa).
- Naparroa euskal arrobia**, Mikel Atxaga. Edili. Donostia.
- Oiartzungo bost Bertsolari**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Origen y evolución de la Pintura Vasca - Euskal Pinturaren sorrera eta eboluzioa**, Juan M.^a Alvarez Emparanza (Mikel Ugaldek euskaratua). Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Pedagogia gaur**, Joshe Erzibengoa. Gero. Bilbao.
- Pette Beretter** (Pastorala), Iruriko Etxahun. Pau.
- Sasiletrau baten ziria ta abar**, Pedro Migel Urruzuno. Auspoa. Tolosa.
- Sortu zaizkidanak**, Iñaki Eizmendi "Basarri". Auspoa. Tolosa.
- Sugegorri korapilloa**, F. Mauriac (E. Urruzolak euskeratua). Kardaberaz taldea. Gasteiz.
- "Txiki" marrazkilari ta umore zale - "Txiki" dibujante y humorista**. Ed. Añamendi. Donostia.
- Txingo. Gertaldi eta ibilkeriak**, Sabin Irizar. Gero. Bilbao.
- Txuri eta gorri eta kikiriki**, Manuel Lekuona. Erri-bide zabalkundea. Etor. Zarautz.
- USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia**, Gurutz Ansola. Gero. Bilbao.

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

- MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLO-
RIDA, por Gregorio de Altube.
LA EPOPEYA DEL MAR, por M. Ciri-
quiain-Gaiztarro. (Agotado.)
PASADO Y FUTURO DE LA REAL SO-
CIEDAD VASCONGADA, por José Ma-
ría de Areilza.
HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN
TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñi-
ga y Churruca.
ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE
DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.
BREVES RECUERDOS HISTORICOS
CON OCASION DE UNA VISITA A
MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.
LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS Y LA META-
LURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII,
por Manuel Laborde.
EL REAL SEMINARIO DE VERGARA
EN LA HISTORIA DE LAS ESCUE-
LAS DE INGENIEROS INDUSTRIA-
LES DE ESPAÑA, por Manuel Laborde.
LA VIDA Y LA OBRA DEL CONDE DE
PEÑAFLO-
RIDA, por el Prof. Dr. Lean-
dro Silván.
BIBLIOGRAFIA DE LA REAL SOCIE-
DAD VASCONGADA DE LOS AMI-
GOS DEL PAIS EN EL SIGLO XVIII,
por Francisco Aguilar Piñal.
FILIACION DE LOS SEMINARISTAS
DEL REAL SEMINARIO PATRIOTI-
CO BASCONGADO Y DE NOBLES DE
VERGARA, por Julián Martínez Ruiz.
LAS CIENCIAS NATURALES Y LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE
LOS AMIGOS DEL PAIS EN EL SI-
GLO XVIII, por Julián Martínez Ruiz.

REVISTAS

Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País:	
Ejemplar suelto	75 Ptas.
Ejemplar suelto (extranjero)	125 "
Suscripción anual (España)	250 "
Suscrip. anual (extranjero)	400 "
Egan: Ejemplar suelto	50 "
Suscripción anual	90 "
Munibe. Revista de Ciencias Naturales:	
Número suelto socios	100 Ptas.
Número suelto no socios	150 "

Redacción y Administración: Museo de San Telmo
SAN SEBASTIAN



GRAFICAS COLON, S. L.
SAN SEBASTIAN